goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2013-06-07
EGUBAKOITZA
556. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## "Lurraldearen garapen integrala nahi dugu"



**Agurne Barruso** | Diputatu nagusiaren kabinete-burua | 8

## Errekadisten lana asko aldatu da

Ibarrekoek 200 kilometro egiten dituzte egunero | 2

Musika fusioen erritmora, Flamenko Etxea, Arrasaten | 32



Udaberriko 25. kontzertuan 400 bat ikasle Bergaran bihar | 18




Arrasateko zezen festen gaineko liburua aurkeztuko dute gaur | 15

## Beñat Rezusta pilotari bergararra Aspera doa

Ekainaren 24an egingo du debuta, Eibarren | 30



Beñat Rezusta. | GOIENA

## 17 urteren ostean Uema eguna bihar Aramaion | 26

## Herritarren parte-hartzea aztergai Kursaalen

Debagoieneko ordezkaritza ere bada tartean | 4

### SINADURAK



**Langabeziara kondenatua** | 6
AITOR BIAIN



6 | **Zezenketen historia**
JON BEREZIBAR



**Normal-normal** | 40
MIKEL IRIZAR



## EZEZAGUNAK BEZAIN BEHARREZKOAK

Ingurumenaren Egunaren harira, saguzarrak eta haiek duten balioa ezagutzera emateko ekimena abiarazi dute Arrikrutzen; besteak beste, ekainaren 14an saguzarrak ikusteko txangoa egingo dute, gauean. | 11

Arratoi-belarri saguzar arrea. | JUAN TOMAS ALCALDE

# Oñatiko eta Bergarako musikariak, batera

Mozarten 'Requiem'-a interpretatuko dute Oñatiko Abesbatzak eta Bergarako Orfeoiak domekan | 31



BERGARAKO REAL-ZALEAK

## Realari gainbegiratua ibarrekoen ikuspuntutik | 28

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRITARRAK 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# Errekadistak: betiko lanbidea, garaiei egokitua

## Mandatarien lana asko aldatu da azken urteetan



LEIRE KORTABARRIA

**CLEMENTE JIMENEZ** Gasteizera joan-etorriak egiten ditu egunero. "Tokatzen zaidanean hasten eta bukatzen dut lan-eguna. Batzuetan, 07:00etan hasi eta 20:00etan bukatzen dut; beste batzuetan, 10:00etan hasi eta 18:00etan bukatu. Lana dagoenean, heldu egin behar diozu".

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Errekadisten lanak hamarkada luzeetako historia du Euskal Herrian, baina gaur egungo errekadistek zereginek eta ohiturek antzinako haien antz txikia dute; izena da ordutik datorkien gauza ia bakarra. Gaurko egunean, errekadistek ia-ia beste edozein garraiolari autonomoren lan berbera egiten dute.

Errekadistek badute, hala ere, berezko zerbait. Batez ere, lurraldeko tamaina ertaineko herrietan ematen dute zerbitzua, eta Donostia, Bilbo edo Gasteizera joan-etorriak egiten dituzte, normalean hiruretako batera. Kotizazio-erregimen aldetik, gehienak autonomo gisa daude Gizarte Segurantzan alta emanda. Bakoitza bere enpresaburua da eta pertsona bakarreko enpresa aurrera eroatea dagokio, nahiz eta, azken urteetan, beste langile bat hartu dutenak ere badiren.

### Gero eta norbanako gutxiago

"Oso lan-urte oparoak izan ditut, baina, gaur egun, gazte bati ez nioke gomendatuko lan honetan has zedin; beste zerbait bilatzeko gomendatuko nioke". Horixe esaten du Clemente Jimenez arrasatearrak. Krisiak errekadistak ere zigortu ditu: "Nik aurten igarri dut beherakada handia. Orain arte, krisia hasi zenetik, nahiko ondo jarraitu dut; baina aurten, sekulakoa izan da. Nik eusten diot nireari, bezero finkoak ditudalako eta zorrik ez daukadalako, eta honetan jarraituko dut", gaineratzen du. Gero, baikortasun puntu bat: "Beste batzuetatik ere irten izan gara eta honetatik ere irtengo gara".

Garai bateko errekadista edo mandatariek automobil partikularra zabaldu zenean lan asko galdu zituzten bezala, gaur egunekoek enkargu edo bezero mota garrantzitsu bat galdu dute errepideak hobetzen joan diren heinean. Hori deritzo, behintzat, Gasteizera joan-etorriak egiten dituen Clemente Jimenezek: "Gure lana asko aldatu da, izugarri. Hasi nintzenean, norbanakoen enkargu asko jasotzen nituen. Gaur egun, oso ezohikoa da norbanako batek deitzea. Lehen karnetak, pasaporteak, konpontzeko utzitako arropak, altzariak… ekartzen nituen; orain, hori norberak egiten du. Izan ere, oso gertuan dago orain Gasteiz. Orain, asko jota, urte baten norbanako batek deitzen dit".

**DATUA**

**200**

KILOMETRO

Egunero 200 kilometro edo gehiago egiten dituzte Debagoieneko errekadistek Gasteizera edo Donostiara joan-etorrian.

**DATUA**

**20**

URTE

Jimenezek, Zeziagak eta *Sarramendi*-k 20 urte inguru daroate errekadista lanean, eta horretan hartu nahi dute erretiroa.

Errekadisten lana zeharo aldatu duen beste faktore bat ere badago, Oñati eta Donostia artean ibiltzen den Jose Ramon Kortabarria *Sarramendi* oñatiarraren iritziz: "Batez ere, Internet sartu zenetik aldatu da gure lana. Asko igartzen dugu; lehen norberak aurrez aurre egin behar zituen tramite batzuk orain Internetez egiten dira: Foru Aldundian, bankuetan, Ogasunean…"

Dena dela, oraindik hala gura duten norbanakoen enkarguak ere egiten dituzte errekadistek. Gehienek Goienaren gida komertzialean iragartzen dute bere burua; eta herrian izaten dituzte ohiko geltokiak. Hala ere, oraindik euren lana zein den oso ondo ez dakien jendea dagoela diosku Luis Zeziaga arrasatearrak: "Montte enpresarekin lan egiten dudanez, jende askok uste du Montteko langilea naizela".

### Konfiantza, euren babesa

Krisiak, ohitura aldaketek eta teknologia berriek kendu dieten lanaren falta konpentsatzeko, bezero finkoen leialtasuna dute Clemente, Sarramendi eta Luis bezalako errekadistek. "21 urte daroat, eta bezero finkoekin lan asko egiten dut. Dena dela, asko aldatu da egoera, enpresen portaera… Lehen zintzotasun handiagoa zegoen, ezagunengana jotzen zuten gehiago enpresek. Gaur egun, enpresetan, zifrei asko begiratzen diete; beharbada, 15 urtean enpresa batendako lan egin ondoren, merkeago bat topatu eta harekin joaten dira. Denak ez dira horrelakoak, baina horrelako kasuak izan ditut, bai". Horrelako kasuen aurrean, bezeroei ematen dieten "konfiantza" da errekadisten babesa.

### Gutunazala, pezeta bat

Oraindik ez dira hainbeste urte, hiriburuetara ez ezik, Eibarrera-eta errekaduak egiten zituztenak ere baziren gure herrietan. Errekadista haiek autobusean edo trenean ibiltzen ziren. Askotan, emakumeak izaten ziren. Errekadistaren figura hori gerra ondoren sortu zen, eta horren erretratu ederra egiten dute Carmelo Urdangarin Altunak eta Jose Maria Izaga Reinerrek *www.aintzinakolanbideak.net* webgunean. Bertan jasotzen dutenez, Arrasatetik edo Oñatitik Donostiara gutunazala eroatea pezeta bat kobratzen zen 1940an.

Errekadista bakoitzak ipintzen ditu bere tarifak. *Sarramendi*-ren esanetan, gutxi gorabehera beste errekadistek ze tarifa dituzten jakiten du bakoitzak. Luis Zeziaga arrasatearrak bi tarifa mota ditu: "7 euro kobratzen dut gutunazala, kaxa bat, poltsa bat… eroatea. Tramite bat egin behar badut, hala nola Ogasunera paperen bat eroan eta han zigilua ipini, itxoin…hori 14 euro kobratzen dut".

### Goizean goizetik

Azkenean, errekadistak baditu urtean zenbait gastu eta inbertsio finko. Gasolinaren prezioa goraka joan da ia eten barik azken urteetan, eta horrek ere eragina du euren poltsikoan. Clemente Jimenezek galduta dauka ibili dituen furgoneta kopuruaren datua: "Mercedes batekin hasi nintzen, 25 edo 26 urte nituela. Beste guztiak Ford-ak izan ditut. Oraingoa laugarrena edo bosgarrena dut. 300.000 kilometro egiten dituenean kendu egin behar duzu, bestela gastuak besterik ez dizkizu ekarriko".

Errekadista horiek 200 kilometro edo gehiago egiten dute egunero, Donostiatik edo Gasteiztik bueltan; hilean, 5.000 bat, eta urtean, 50.000 eta 60.000 artean. Gainera, Jimenezek dioen moduan,





L.K.

**'SARRAMENDI'** Oraindik ere norbanakoen Donostiarako enkarguak baditu: "Lehen, jendea egun pasa joaten zen Donostiara eta, bitartean, errekaduak egin, baina orain garestiagoa da egun pasa hori", esaten digu.



L.K.

**LUIS ZEZIAGA** Arrasate–Donostia ibilbidea egiten du egunero. Furgonetan bertan, egokitutako koadernoa dauka, enkarguak jaso ahala apuntatzen joateko. Hasi zeneko, orain 17 urteko planoak eta kale-izendegiak ere badaroatza oraindik, apuntez beteta, nahiz eta gaur egun leku guztiak bere egunerokotasunaren zati bat diren. "Ez dut GPSrik erabiltzen, ez dut horren beharrik. Hasieran galdu egiten nintzen, baina orain buruz dakit leku bakoitza non dagoen", esaten du.

autobidea baino gurago dute betiko errepide zaharra, herri artekoa, izan ere, hemendik eta hiriburura arteko herrietan ere egiten dituzte sartu-irtenak. Hala, Clemente Jimenezek Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara… ere egiten ditu Gasteizera abiatu aurretik; eta Donostiara bidean, Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara, Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Beasain, Tolosa, Lasarte… ere egiten dituzte Zeziagak eta *Sarramendi*-k, bezeroaren arabera. Normalean, 08:00ak eta 09:00ak hasten dira, herrian errekaduak jasotzen edo eguna antolatzen; goiza herri inguruan ematen dute; eta arratsalderako, Gasteizen edo Donostian daude.

**Abuztuan oporrak**

Ordutegi finkorik ere ez dute errekadistek: "Inoiz, gaueko hamarretan, etxean nagoela deitzen dit bezeroren batek, bihar egin behar dudan enkargu batekin akordatu berri dela, baina normalean ez da horrelakorik gertatzen", dio Luis Zeziagak. Oporrak ere ez dituzte ziurtatuta, *Sarramendi*-k dioen bezala: "Normalean, abuztua aprobetxatzen dugu oporrak hartzeko, enpresak geldiago dabiltzalako; zubietan-eta, enpresek lan egiten badute, guk ere lan egin behar izaten dugu. Azkenean, norberak bere buruari betebehar hori ipintzen dio, norberaren negozioa delako".

**Tarta erotikoarekin Oñatira**

Errekadisten lana astuna izan daitekeen arren, pasarte bitxiak eta barregarriak ere izaten dituzte. Clemente Jimenezek inoiz ez du ahaztuko mahai handi bat etxetik atera eta Gasteizko etxera eroateko eskatu zion emakumearena: "Gasteizera joaten nintzela zekiela eta ea bidaia aprobetxatuta, mesedez, mahaia eroango nion".

*Sarramendi*-k gogoan dauka Lasartetik tarta erotikoa ekartzeko enkargua jaso zuenekoa. Dena dela, ezohikoak izaten dira kasu horiek: "Jendeak ohiko gauzak enkargatzen dizkit, ez da aparteko ezer egoten".

## Astakeria askoren testigu

Zirkulazio handiagoa dago, baina errekadistak herri arteko errepideetatik ibiltzen dira gehiago. "Segurtasun aldetik, hobeto" daudela onartzen du *Sarramendi*-k. Bestalde, gauza baliotsuak garraiatzen dituzten heinean, lapurretekin-eta argiago ibili behar dute, baina normalean ez dute ezusterik izaten.

Okerrera egin duten gauzak ere badaude: "Konturatzen naiz zenbat astakeria egiten ditugun errepidean. Karrera-zirkuituan gabiltzala dirudi batzuetan. Eta nik ikusi ditudan gauza gehienak ez dituzte gazteek egin", esaten du Clemente Jimenezek.



# Erakundeetan herritarren parte-hartze zuzena hizpide egunotan Kursaalen

## Gipuzkoako Foru Aldundiak topaketak antolatu ditu Donostian parte-hartzearen gaineko esperientziak partekatzeko; tartean, bailarakoak

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Atzo ezkero dihardute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta herrialdeko udalen sareak antolatutako topaketak egiten Donostiako Kursaalen. Bihar, zapatua, bukatuko dira. Topaketon helburuetako bat da "2011-2015 agintaldiko lehen bi urteetan herritarren partaidetzaren inguruan garatutako esperientzia ezagutaraztea. Bertatik ikasi eta balioan jartzea, eta, aurrera begira, urratsak emateko jakintza eta indar berriak eskuratzea". Eta partekatuko dituzten esperientzien artean, Debagoienean egindakoen berri ere emango dute.

Hain justu ere, gaur eta bihar Oñatiko *Herrijorran* egitasmoa azalduko dute Nerea Zubia zinegotziak eta Mikel Biain alkateak, hurrenez hurren.

Eta gaur, baita ere, Eskoriatzako *EskoHitza* esperientzia izango da beste protagonistetako bat, Beñat Herce alkatearen eskutik.

Edozelan ere, aipatutakoez gainera, Debagoieneko ordezkaritza zabalagoa ere izango dute Aldundiaren topaketok, besteak beste, inguruko udal gehienetako hautetsi edo teknikari batzuk Donostian izango direlako gaur eta bihar. Eta baita bestelako debagoiendar batzuk ere; herritar modura, kasu horretan. Izan ere, herritar orori zuzenduta, Latinoamerikako eta Europako adituak gonbidatu ditu Diputazioak bakoitzaren esparruko esperientziak konta ditzaten.

**Parte-hartzearekin, aurrera**

Gipuzkoako Foru Aldunditik topaketon garrantzia azpimarratu dute. Eurek dioten moduan, "herritarren eta erakunde publikoen arteko botere-harremanak eraldatzeko abiarazitako bidean, eta zehazki, herritarren parte-hartzea erakundeetan bultzatzeko egindako ahaleginaren baitan, salto kualitatiboa" da topaketetan emango dutena. Izan ere, orain arte Gipuzkoa mailan landu duten egitasmoa izatetik, Euskal Herri osoko herritarrei eta hautetsiei zuzendutako egitasmoa izatera pasako da.

Horrekin batera, iragarri dute datozen egunotako topaketak orain arte egindakoaren "inflexio puntu" moduan planteatzeaz gainera, etorkizunean bide beretik segitzeko asmoa dutela. Eta horren adibide da atari berezi bat aurkeztu behar dutela Donostian, herritarren partaidetza zuzena bultzatzeko: *www.gipuzkoaherritarrekin.net*.



Diputazioko ordezkariak Bergaran, aurrekontua aurkezten. | GOIENA

**BEÑAT HERCE** | ESKORIATZAKO ALKATEA

### "Aurreikuspena da herritarren zortzi proposamenak 2013an eginak egotea"



UBANE MADERA

Beñat Herce alkate eskoriatzarrak gaur (egubakoitza) udalerriko esperientzia partekatuko du Kursaalen:

**Konta egiguzu EskoHitza izeneko esperientzia zertan datzan.**

Udalera sartu ginenean argi geneukan gure kudeaketak gardena, parte-hartzailea eta helburuetara bideratutakoa izan beharko lukeela. Lehen erabakia izan zen Parte-hartze eta Komunikazio batzordea sortzea, eta horretatik abiatzea. Lehen ekintza izan zen datorren urteetarako kudeaketa planak prestatu eta herritarrekin konpartitzea. Esperientzia oso polita izan zen, 150 pertsona bildu ginelako kiroldegian, eta galdetu genien eskoriatzarrei zer zegoen herrian hobetzeko, mantentzeko eta zer sumatzen zuten faltan. Hortik abiatuta, 2012-13rako planteatu genuen olio tanta bat balitz bezala udal kudeaketan poliki-pokiki parte-hartzea zabaltzen joatea arlo gehiagotara. Izateko zerbait udal kudeaketa osotasunean hartzen duena. Joan gara esperientzia txikitxoak garatzen zenbait arlotan herritarren iritzi eta ekarpenak jasoz, pentsatzen dugulako erabaki hobeak hartzen direla. Hala, egiten ditugun ekintza guztiak Eskoriatza prozesu parte-hartzaile aterkinpe horretan sartzen ditugu, eta halaxe landu.

**Zertan gauzatzen da parte-hartze hori udal jardunean?**

Adibide konkretuetara joanda, iaz atera genituen parte-hartzera 2013-ko udal inbertsioak. Irten ziren 14 proposamen, denerako dirurik ez, eta esan genien herritarrei lehenesteko eurentzat garrantzitsuenak direnak. Gehien bozkatu zituzten zortziak txertatu ditugu aurrekontuan eta hasi gara poliki-poliki gauzatzen. Poliki goaz, inbertsio garrantzitsuak dira eta denbora behar da, baina aurreikuspena da zortziok 2013an eginak egotea. Beste esperientzia bat izan zen gurasoekin parke eta berdeguneen diagnosia egitea (iaz) eta aurtengo proposamena zen diagnosi horretatik irten ziren lehentasunak aurrera eramatea: 9 urtetik gorako neska-mutikoendako parke bat sortzea, (ez dagoelako) eta liburutegi aldameneko txintxaunak konpontzea.

**Igarri duzue kultura aldaketarik?**

Herritarrok ez gaude ohituta administraziotik gure iritzia eskatzera, bileretara etorri eta ekarpenak luzatzera... normalean joan izan gara bileretara entzutera. Poliki-poliki gero eta indar handiagoa hartzen doan neurrian badoaz herritarrak ere kontzienteagoak izaten eurek duten botere horretaz. Uste dugu bagabiltzala nolabaiteko kultura parte-hartzailea sortzen. Ez da egun batetik bestera sortzen, baina landuaz landuaz espero dugu etorkizunean herri parte-hartzaileago bat lortzea.

> **"Herritarrok ez gaude ohituta administraziotik iritzia eskatzera"**

# Langabeziak urteko daturik onena utzi du maiatzean

**GOIATZ ARANA** | DEBAGOIENA

Maiatzean 3.724 debagoiendar zeuden lan barik, aurreko hilean baino 51 gutxiago. Maiatzeko datua apirilekoa baino hobea da, beraz, baina ez hori bakarrik: 2013ko lehen bost hilabeteetako daturik onena da.

Datu bidezko konparazioaren arabera, ibarrean 3.776 langabe (%12,67ko langabezia maila) zeuden urtarrilean; 3.868 (%12,98), otsailean; 3.825 (%12,83), martxoan; 3.775 (%12,66), apirilean; eta 3.724 (%12,49), maiatzean.

Herriz herri, langabe kopuruak behera egin du Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñatin; gora egin du Antzuola eta Arrasaten; eta berdin mantendu da Elgetan.

**Iaz maiatzean, hobe**

Langabezia mailak behera egin du Hego Euskal Herrian ere: apirilean baino 1.630 langabe gutxiago zeuden maiatz amaieran: 231.403, guztira. Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan jaitsi egin da langabezia (Nafarroan, gehien); igo, aldiz, Bizkaian.

Langabezia mailak behera egiteko hilabetea izan ohi da maiatza, eta hala egin du aurten ere. Hala ere, iaz maiatzean handiagoa izan zen langabe kopuruaren beherakada.

**HERRIZ HERRI**

| HERRIA | LANGABEAK | EHUNEKOA |
|---|---|---|
| **Antzuola** | 114 | %10,45 |
| **Aretxabaleta** | 340 | %10,06 |
| **Arrasate** | 1.565 | %15,10 |
| **Bergara** | 905 | %12,90 |
| **Elgeta** | 49 | %9,04 |
| **Eskoriatza** | 230 | %11,29 |
| **Leintz Gatzaga** | 10 | %7,41 |
| **Oñati** | 511 | %9,74 |
| **GUZTIRA** | **3.724** | **%12,49** |

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

# Pistola erabilita bi lapurretaren ustezko egilea, kartzelan

**GOIATZ ARANA** | DEBAGOIENA

Bergarako ertzain-etxeko ikerketei esker, Arrasaten eta Eskoriatzan hilabeteotan egindako hainbat delitu argitu dituzte, zapatuan ustezko egilea atxilotu baitzuten Aretxabaletan. 29 urteko gizona da, eta gasolindegi batean ustez indarrez lapurreta egin eta gero atxilotu zuten. Bergarako epaitegira eraman ostean, epaileak kartzelara bidali zuen.

**Pistolarekin buruan kolpatu**

Joan den zapatu goizaldean gertatu zen, ekainaren 1ean, Arrasateko zerbitzugune batean. Ertzaintzaren arabera, "lapurra lur orotariko ibilgailu batean joan zen gasolindegira eta txano batekin burua estalita langilearengana hurbildu zen, pistola bat eskuan zuela. Pistolarekin langileari buruan eman, eta kutxako dirua eskatu zion. Azkenean, erasotzaileak helburua lortu gabe ihes egin zuen. Borrokaldian, autoko kristal bat hautsita joan zen gasolindegitik".

Berehala, Ertzaintza eta anbulantzia bat agertu ziren, eta erizainek langileari arreta eskaini eta anbulantzian eraman zuten, zauriekin buruan. Polizia-patruilek ustezko atrakatzailearen ibilgailua aurkitzeko dispositiboa ipini zuten martxan, eta Aretxabaletan harrapatu zuten. Handik gutxira, gidaria atxilotu zuten.

Segurtasun Sailaren arabera, Ertzaintzak arma bilatzen jarraitu zuen, bide batez, maiatzaren 2an AP-1 autobideko Eskoriatzako bidesarian gertatutako tankerako eraso bat argitzeko.

Ustezko egilea atxilotu ostean, ikerketako agenteek Bergarako 2. epaitegiak gidatutako erregistroetan bi delituen inguruko hainbat ebidentzia topatu zituzten. Hala, ertzainek Belgikan fabrikatutako pistola bat topatu zuten, 7Ž65 kalibrekoa, kargadorea hutsik zuela. Arma Ertzaintzaren Polizia Zientifikoko Unitatera eraman dute, aztertzera eta balistika-analisia egitera. Era berean, lapurretetan erabili zituen jantziak ere topatu zituzten: gurutzeta-ezpata bat, eskularruak, bisera, txapela eta neoprenozko maskarilla; baita Eskoriatzan ustez indarrez egindako lapurretan erabilitako matrikula-plaka ostuak ere. Diligentzien ostean, atxilotua Bergarako epaitegira eraman eta epaileak kartzelara bidali zuen.



Pereda, Ezpeleta eta Zabala ordezkariak garbigunea aurkezten . | O.E.

# Garbigune ibiltaria, herriz herri hondakin arriskutsuak batzeko

Asteon aurkeztu dute Leintz Gatzagan, herri txikietara ere iristeko helburuarekin

OIHANA ELORTZA | DEBAGOIENA

*"Zero zabor* filosofiari eutsiz", garbigune ibiltaria aurkeztu du Debagoieneko Mankomunitateak asteon Leintz Gatzagan. Etxean pilatzen diren hondakin arriskutsuak batuko ditu, eta herriz herri ibiliko da. Adibide praktikoetara jota, bonbillak, erradiografiak, bateriak, disolbatzaileak, olio zaharrak, pilak, CD eta DVDak, margoak, etxetresna elektrikoak eta beste batuko ditu.

Ekimenaren helburua da garbigune ibiltari horrekin herri txikietara ere iristea, lehenago ematen zen zerbitzua berreskuratuz. Izan ere, hiru herri nagusietan (Arrasate, Oñati eta Bergara) badaude garbiguneak.

**Egutegia, etxez etxe**

Hamabost egunean behin bisitatuko du ibarreko herri bakoitza, herriko erdigunean egongo da, goizetik gaueraino eta Mankomunitateko langileek eraman eta jasoko dute. Hain justu, egunotan dabiltza herri bakoitzari dagokion egutegia etxez etxe banatzen.

Gainera, ikusiz gero garbigune ibiltaria zuzen erabiltzen dela, Mankomunitateak bigarren garbigune mugikor bat erosteko aukera aztertuko luke, udalerrietako erdigunera ez ezik, auzoetara ere ailegatu ahal izateko.

### Iaz ia %36 birziklatu zen

"Gipuzkoarrek hondakinen %33,4 birziklatu zuten 2012an", Gipuzkoako Diputazioko Ingurumen Departamentuak jakinarazi duenez. Datuen arabera, mankomunitateka, Txingudik % 29,9 birziklatu zuen iaz; San Markok, % 35,2; Tolosaldeak, %32,9; Sasietak, % 36,3; Debagoienak, % 35,9; Debabarrenak, % 22,7; Urola Erdiak, % 32,9; eta Urola Kostak, % 37,5. Gipuzkoa osoak, %33,4.

Jose Mari Erauskin
Abokatua

## "Hipoteketan hiru gauza negoziatzen dira bakarrik"

I.G./U.M. | ARRASATE

Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformak gonbidatuta, hipoteken gehiegizko klausulen gainean berba egin du Jose Mari Erauskinek. Ezjakintasun handia dago.

**Bankuekin kontratuak sinatzerakoan, badakigu zer sinatzen den?**

Ez. Eta gainera, oinarrian hiru gauza negoziatzen dira: zenbatekoa, epea eta, asko jota, aplikatuko dioten interesa. Aldiz, eskriturak 15 orri izaten ditu. Gainontzeko guztia jakin barik sinatzen da. Ondo bidean, ez da ezer gertatzen. Baina arazoak daudenean, jakin barik sinatutako horrek eragin handia du.



J. Mari Erauskin. | I. GALLEGO

**Izan ere, abiapuntu orokorrean bankuez fidatu egiten gara...**

Sinatzen diren mota guztietako kontratuetako abiapuntua izaten da alde bietako fede ona. Aldiz, bankuekin negoziatzean jabetzen gara ez dela hala, klausulak fede-on horren kontrakoak direlako.

**Hipotekek eragindako arazoetan gertu dago konponbidea?**

Ez. Epaileak aitortutako kasuetan ere, diru kopurua horren altua da, ezin da bueltatu finantza sistema arriskuan jarri barik.

## Elikagai bilketa egingo dute Eroski hipermerkatuan gaur eta bihar, elikagaien bankuari emateko

Bergarako Elikagaien Bankuak gaur, egubakoitza, eta bihar, elikagaiak batuko ditu Arrasateko Eroski hipermerkatuan. Boluntarioak egongo dira jakiok batzen eta herritarrei informazioa ematen; adibidez, elikagai egokienak zeintzuk diren azaltzen: babak, lentejak, arroza, tomatea… Arrasateko hipermerkatuaz gainera Eibarkoan ere jardungo dute zeregin horretan. Iazko bilketan, 6.366 kilo batu zituzten Arrasaten eta 3.623 kilo Eibarren, guztiak Bergarako bankurako. Bergarako Elikagai Bankutik eskerrak eman dizkiete euren ekarpena egindako guztiei.

## Txakolin, txokolate eta bakailao zaporea izango du Debagoienak uztaila amaitu bitartean

Gaur, barikua, hasi eta uztailaren 31ra artean egingo dituzte hurrengo Debagoieneko Gastronomia Jardunaldiak. Nabarmentzekoak, bi kontu: berritasun moduan, sukaldaritza tailerrak antolatu dituztela, eta topaketa eta egun berezi bana egongo dela aurten: Barnealdeko Gatzagen Lehen Topaketa eta Gatzaren Eguna. Bestalde, garaiko barazkiak, bertako txakolina, txokolatea eta bakailaoa izango dira asteon aurkeztutako jardunaldi gastronomikoetan produktu izarrak.

## 'Herriko tabernen' kontrako epaiketa urriaren 17an hasiko dute, ETA finantzatzearen akusaziopean

Auzitegi Nazionalak urriaren 17an hasiko du orain 11 urte Batasuneko kide ziren 40 lagunen kontrako epaiketa. Arnaldo Otegi, Joseba Permach eta Rufi Etxeberria eseraraziko dituzte, besteak beste, baita Jose Luis Elkoro bergararra ere. *Herriko tabernen* bitartez ETA finantzatzea leporatuko diete. Auzipetuek zortzi eta hamabi urteko espetxe zigor eskaerei egin beharko diete aurre (10 urte eskatzen dituzte Jose Luis Elkororentzat), ETAko kide izatea edo erakunde armatuarekin kolaboratzea egotzita.m

## Bihar, zapatua, Mundumoben amaiera, Donostian 'Eman hartu nahi duzun mundua' leloarekin

Lau asten herriz herri (gurean, Elgetan) Mundumob ekimena gauzatu ostean, bihar, Donostiarako (18:00etan) gonbitea egin du Gipuzkoa Zero Zaborrek, ekimena borobiltzeko. "Hondakinen kudeaketan ere oinarri izan beharko lukeen printzipioa aldarrikatzen ari gara. Guztiok daukagu mundua aurreko belaunaldiek jaso zuten aukera berdinekin jasotzeko eskubidea, eta ondorioz, guztiok daukagu hurrengo belaunaldiei mundua jaso dugun aukera berdinekin uzteko betebeharra", hori izango dute oinarri.




RUBEN CUESTA

## Emakumeen kontrako erasoen aurka, Debagoienean

*Emakumeei erasorik ez! No a las agresiones a mujeres* pankartaren atzean protesta egin dute asteon Arrasaten eta Oñatin. Bilbon bi emakumek (oraingoz) jasandako eraso eta heriotza bortitzak salatzeko izan dira agerraldiok. Zen4 Indautxuko gimnasioko jabea da haien ustezko hiltzailea, Juan Carlos Aguilar. Epaileak kartzelaratu egin du asteon.

TXANTXIKU IKASTOLA

**TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**EGITARAUA**

**EGUNA:** ekainaren 26a, eguaztena.
**ORDUA:** 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.
**LEKUA:** Ikastolako aretoa (San Juan kalea, 1)

1. Akta onartzeko bi kide izendatzea.
2. Aurreko aktaren txostena irakurri eta, hala badagokio, onestea.
3. Kudeaketa txostenaren berri ematea eta, hala badagokio, onartzea.
4. 2012 urteko kontuak eta 2013 urteko aurrekontua aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. 2013/2014 ikasturteko zerbitzuen ordainsarien onarpena.
6. 2012 urteko emaitzen banaketa eta, hala badagokio, onartzea.
7. Kontseilu Errektorea eta Eskola Kontseiluaren dinamikak bat egiteko Txantxiku Ikastola Koop. Elk.aren estatutuetan aldi baterako xedapenaren proposamena aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
8. Gurasoen Kontseiluaren txostena azaltzea.
9. Zaintza Batzordeko kide berriak aukeratzea.
10. Eskariak eta galderak.

OHARRA:
Bazkide guztiei gogorarazten zaie urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta kudeaketa txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.

Oñatin, 2013ko ekainaren 7an

ZABALIK



AITOR BIAIN
http://goiena.net/iritzia/

# Langabeziara kondenatua

Euskal Herriko eta baita Espainiako jendeak ere, 60ko hamarkadan, maleta hartu eta Europara edo Ameriketara jotzen zuen lan eta bizitza hobe baten bila. Horri, 1973an eman zitzaion amaiera, petrolioaren krisiarengatik, Espainiak bizi kalitatean gora egin baitzuen eta etorkinak sorrarazi beharrean hartu egin baitzituen.

Gaur egungo langabezia tasa oso handia da Espainian (5 miloitik gora), eta inork ez zuen espero tasa horietara iritsiko zenik krisiarengatik.

Baina badago beste datu larriago bat: gazte langabezia %56 inguruan dago gaur egun, eta are okerragoa izango litzateke kanpora joan diren gazteak batuko bagenitu zenbaki honetara. Datuek 300.000 gaztetik gora joan omen direla diote 2008-11 urteen inguruan.

**"Aspaldiko arazoa da hau, baina orain hasi da indarra hartzen prentsan"**

Egia da datu horien barruan jende azkarra eta ez hain azkarra egongo dela, baina kantitate handia da. Eta gaur egun dugun lan erreforma ikusita, 25 urtetik beherako gazteak, beraien esperientzia faltarengatik, derrigortuta egongo dira langabezian edota erremuneraziotik gabeko praktiketan lanean egotera.

Gainera, ikerketa munduan egon den diru jaitsierarengatik ere, gazte hauei formakuntza izateko aukera ere asko jaitsi zaie. Orduan, zer ari da gertatzen? "Fuga de cerebros"-era jasaten egongo gara?

Aspaldiko arazoa da hau, baina orain hasi da indarra hartzen prentsan. Gaur egungo gazteak ez dira Europa iparraldeko lurraldeetara bakarrik joaten, baita Europa ekialdeko lurraldeetara. Egia da EBk (UE) 2014rako 6.000 milioiko injekzio bat emango duela gazte langabeziari aurre egiteko.

Baina, bien bitartean, zer ari da egiten Espainiako Gobernua? Murriztu, murriztu eta murriztu. Orduan, gazteriak honoko galdera hau egiten du: langabeziara kondenatua, gaurko gazteria? Denborak esango du hori.

USTEAK USTE

JON BEREZIBAR | jberezibar@goiena.com

# Zezenketen historia

Gaur aurkeztuko du Ana Isabel Ugalde historialariak Arrasateko zezenketa zaletasuna dokumentatzen duen liburua; deigarria bada ere, Intxorta 1937 Kultur Elkarteak argitaratuko duena eta jardueraren testigantza XIII. mendetik hasita jasotzen duena. Beste behin ere, halako erakusketa batekin iragana zein arrotza geratzen zaigun ikusiko da. Horren *afizio* zalantzagarri batek historian piztu izan duen sukarra apaldu da. Niretzat, zorionez, ondo bidean goaz. Halere, susmatzen dut, zezenketa-zaleei hauspoa emango diela beste behin ere historiaren argumentuak. Tradizioak eta are gutxiago historiak, huts-hutsean, ezin du ezer zilegi egin.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/




HANDIK ETA HEMENDIK

## Fokua

**Anjel Lertxundi Esnal**
berria.info/blogak/lertxundi/

Gerra agintzen duen orok justizia inbokatzen du, gerra bateko bando bakoitzak aliatutzat dauka zerua.

Berek fabrikatutako egia dute beren metraila nagusia.

Hara hor Estatu Batuak Manning soldaduaren kontra egiten ari diren epaiketa ere.

Bideo bat zabaldu izana ari dira, besteak beste eta arrunt labur esanda, epaitzen:

Apache helikoptero baten irudiak ikusten dira bertan, Bagdadeko hainbat herritar metrailatzen.

Manning izan zen, bai ala ez, irudiok Assangeri, Wikileaks aferaren buruari, pasatu zizkionak?

Tribunalak baietz erabakiko balu –traza hori hartzen ari da epaiketa– Manningek bizitza osoa pasa dezake kartzelan.

Epaileek soldaduak nazioa saldu ote duen argitu nahi dute, baina aski da arretaren fokua pitin bat desplazatzea gaitzi garratzez egiteko epaileek inoiz formulatuko ez duten galdera:

Bideoko irudietan ikusten dena egia da?

Modu askotan traizionatu liteke nazioa.

Modu ustez ustel askotan zerbitzatu.

## Eskua ez ematea, desobedientziaren lehen urratsa

**Mikel Garcia**
argia.com/blogak/mikel-garcia/

Eskua ez ematea, kasu honetan, ez delako edukazio txarraren seinale (eskuin muturrak adierazi duen moduan), baizik eta hezkuntzaren kontra egiten ari diren politika suntsitzailea ez ohoratzeko modua.

Kalifikazio onenak atera dituzten ikasleek ukatu diote agurra Espainiako Wert ministroari –hauek ere *perroflauta* ote Gobernuarentzat?– eta horrek deseroso utzi du LOMCE legearen bultzatzailea.

Ikasturte amaierako sariak banatu zituzten atzo Espainiako Estatuan, karrera ezberdinetan nota onenak atera zituztenen artean.

Hainbatek (bideoan ikus daitekeenez) muzin egin zion José Ignacio Wert Hezkuntza ministroari eta Montserrat Gomendio Hezkuntzako Estatu-idazkariari eskua emateari, Espainiako Gobernuak hezkuntzan inposatu nahi duen erreforma zentralista eta burugabearen aurkako protesta gisa, baita murrizketen kontra ere.

Askok Marea Berdea mugimenduko kamisetak zituzten soinean (denon eta denontzako hezkuntza publikoaren defentsan) eta ikus-entzuleek txalotu egin zuten ikasle hauen jarrera.

Keinu bat besterik ez dela?

Beharbada bai, baina keinu esanguratsua, LOMCEri men egingo ez diotela dioen keinua, planto egiteko prest daudela dioena, errebalidak egiteari planto, erlijioko ikasgaiari, curriculum homogeneoa memorizatu beharrari…

Keinuetatik ekintzetara pasatzeko, hori bai, ikasle, irakasle, guraso eta arloko eragile guztien elkarlana eta indarra beharko da.

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

## Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren gainkargua Arrasaten

**Vicente Zugasti Arbizu**
Arrasate

Poztu egin ninduen maiatzaren 29ko *Diario Vasco* egunkarian OHgZren %50eko gainkarguaz Bergarako Udalak duen helburua irakurtzeak: "Hutsik dauden etxeak alokatzen jartzea".

Gure esperientziaz, Arrasateko Udalaren helburua zabalagoa da: "Hutsik ez dauden etxeak ere alokatzen jartzea".

Hizkuntz nahasi batean berrestu digu Udalak gainkargua ezarriko zaiola gure etxeari, nahiz eta azken hamar urteetan beti, legea betez, alokatuta egon eta 2012ko uztailetik aurrera gure semea eta beste bi gazte bertan bizi.

Hau probatzen duen dokumentazioa eskaera gutunarekin batera bidali genion alkate jaunari.

Erantzuna badakizue zein izan den.

## Mila esker

**Andoni Arando Elejalde**
(Arrasate Eskubaloi kluba)
Arrasate

Arrasate Eskubaloi klubak eskutitz honen bitartez bere esker ona adierazi nahi die jokalari, entrenatzaile, laguntzaile, familiakide eta, bereziki, gure jarraitzaile sutsuenei eta patrozinatzaileei; azken urteetan egindako lanari eta esfortzuari esker, Arrasate Eskubaloi osatzen dugun partaide guztion ametsa egia bihurtzea lortu baitugu.

Estatu mailako lehenengo nazionaleko txapelketara iristea ez da erraza izan, bide gogorra izan da; ilusioz eta garaipenez betea, baina baita porrotez eta atsekabez. Horregatik, balentria hau posible egin duzuen guztiokin partekatzea gustatuko litzaiguke. Hemendik gure esker on eta zintzoena helarazi nahi dizuegu.

Horrez gain, Arrasateko gainerako kirol elkarteei ere eskerrak eman nahi dizkiegu jaso ditugun zoriontze mezuengatik, bereziki Arrasateko Futbol klubak eskainitako omenaldiagatik. Izan ere, beraiek baitakite inork baino hobeto federatutako lehiaketetan aurrera egiteko egin behar den lana eta esfortzua zein den, batez ere gure herrian.

Azkenik, ez dugu ahaztu nahi igoera fase honetan gure ondoan egoterik izan ez duen zuzendaritzako kidea, Mariano Arrieta. Gure eskerrik beroena eta besarkada handi bat urteetan egindako lanagatik.

Bestalde, ekainaren 15ean (osteguna) 17:00etatik 19:30era eskubaloiko entrenamendu saioak egongo dira iturripeko kiroldegian. Bertara 9-12 urte dituzten neska-mutilak etortzea eskatzen da; hau da, 2001 eta 2004 urteen artean jaiotakoak. Larunbatean ere, ekainaren 17an, entrenamendu saioak egongo dira goizean, 10:00etatik 13:00etara.

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Herritarren parte hartzeaz eta gardentasunaz ahoa betetzen zaie, baina...

**Juan Karlos Garitano, Maria Ubarretxena, Ibon Arrupe eta Juan Ramon Mendieta**
(EAJko Udal taldea)
Arrasate

Interesgarria da, alde batetik, hondakinen bilketari buruz Arrasateko Udalak egindako inkestaren emaitzak aztertzea, eta, bestetik, oso adierazgarria Udal Gobernuan dagoen Bilduko kargudunek egiten duten balorazioa.

EAJko Udal Taldearentzat, argi eta garbi dago inkesta egiteko modua eta alkate eta bide batez Mankomunitateko presidente Inazio Azkarragaurizarrek eta Ingurumeneko zinegotzi Iosu Peredak egiten duten balorazioa erabat aldebakarrekoa eta alderdikoia dela.

Halaber, oraingoan ere agerian geratu da Bilduren inkoherentzia; herritarren parte hartzeaz eta gardentasunaz ahoa betetzen zaie, baina prentsaren bitartez jakin behar izan ditugu inkestaren emaitzak. Beraz, zalantzan jarri beharko ditugu emandako datuak.

Dena dela, inkestaren emaitzak ikusterakoan, gezurrik ez dutela esan onartuta, berba bakar bat baino ez zaigu etortzen ahora: porrota.

1-Parte hartzea minimoa izan da, hautesle erroldaren %14ra ez da iristen eta kopuru horretan gazteak %16,76 baino ez.

2-Gehiengo zabala bosgarren edukiontziaren alde dago (%63,4), inkestaren galderak atez atekoaren alde erabat manipulatuta egon arren.

3-401 pertsonak parte hartu dute inkestaren aurkako euren protesta agerian uzteko, eta parte hartze txikia protesta moduan ere ulertzen dugu. Asko dira inkesta onartu ez eta, beraz, fartsa honetan parte hartu ez duten arrasatearrak .

4-Inkesta egin dutenen %74,25ek badakite zein den hondakinen kudeaketan jarraitu behar duten ordena (murriztu, balorizatu, kanporatu), eta hori inkestaren egileei ez gustatu arren, bosgarren edukiontziaren aldeko datua da.

Hala ere, emaitzak ikusita, Udaleko eta Mankomunitateko arduradun gorenek temati eusten diote atez atekoa ezartzeko asmoari eta gogor jarraitzen dute euren ohiko demagogiarekin, esanez hondakinen %30 bakarrik bereizten direla... Baina errealitatea bestelakoa da: Gipuzkoako Diputazioak emandako datuak aztertu ondoren ikusten da beiraren %95, kartoi eta paperaren %91,5 eta edukiontzien %87 eta hondakin organikoen %46 bakarrik, baina hau bosgarren edukiontzia falta delako da. Zergatik ezkutatzen dira datu hauek? Atez atekoa gezurrekin justifikatzen jarraitzeko?

Beraz, "hausnarketak" alde batera utzi eta ekin diezaiogun *zero zabor* filosofiari, baina bosgarren edukiontziarekin, arrasatear gehienok eskatzen dugun moduan. Formazio eta hezkuntza plan serio batekin, eta ez inposaketarekin. Edo akaso Donostian, Azpeitian, Zumaian, Elgetan... baino gutxiago merezi dugu Arrasaten?

## Goazen alternatiba eraikitzera!

**Jose Ramon Kortabarria eta Ana Sebal Agirregabiria**
(Debagoieneko LAB)
Debagoiena

Borrokak alternatiba non dagoen kokatzeko balio izan digu, Euskal Herrian erantzuten hasi ginenetik irtenbidea osoko aldaketan kokatu dugu. Beste eredu sozial eta ekonomiko bat dela irtenbidea euskal jendartean errotu dugu, eta eredu hori Euskal Herritik eta Euskal Herrirako eraiki behar dugula.

Maiatzaren 30eko greba ez zen eraso puntual bati erantzuteko greba soilik izan, erantzun bat emateko ere bada, baina alternatiba bultzatu eta eraikitzeko greba izan da. Esan bezala, alternatiba badagoela aldarrikatu dugu, eta alternatiba horrek zein parametrotan egon behar duen argi eta garbi azaldu eta zabaldu dugu. Orain, alternatiba hori aldarrikatzetik alternatiba eraikitzera jauzia egitera goaz.

Horretarako tresna Euskal Herrirako gutun soziala izango da. Eragile sozial eta sindikalen artean bide bat egin dugu. Benetako mugimendu soziala eratzeko asmoz.

Gutun soziala ez dugu ulertu behar zenbaitek idazten duten aldarrikapen sorta huts bat moduan, gutun soziala burutzeak berak indar metaketa prozesua ekarriko du berarekin batera. Euskal Herri osotik zehar eztabaidatu eta erabakiko dugu zein den Euskal Herriak behar duen eredu hori. Herriak egindako burujabetza ariketa izango da. Gutun soziala egitea eta osatzea lehenengo pausoa izango da eta denon borrokak bideratzen dituen tresna hori eskuetan izanda, herriak erabaki duena instituzioek errespetaraztea izango da hurrena.

Prozesu indartsu hau martxan dago eta indartu egingo dugu. Euskal Herriko eredua denon artean erabakitzeko eta azken greba honek desobedientzia eta konpromisoa erakusteko ez ezik, prozesu sozial honi bultzada erabakigarria emateko ere balio izan digu.

Animo, eta ekin alternatiba eraikitzeari!

## Euskaldunak beti bananduta?

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Nafarroako erresuma sortu zenean, Nafarroan zen hedatzen bakarrik. Gipuzkoarrak beren aldetik gobernatzen, bizkaitarrak ere bai, Gernikako Zuhaitzaren pean; arabarrak beren aldetik. Ez zegoen batasun politikorik.

Nafarrek diote orain estatu bat zirela. Erregea edo erregina edukitzea batzarretan eratutako gobernatzeko ohitura zaharra baino gehiago zen? Gaurko ikuspuntutik ikusita, zer ziren errepublika ezberdinak, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia? Gaurko Euskadi. Beste horrenbeste Lapurdi eta Zuberoa. Noski, bakoitzak bere euskalkia zuen. Hori ote arrazoia, besteak beste, orduko banaketarako? Denok izanik Euskal Herria. Baina Euskal Herria definizio kultural bat da. Euskal Herriaren barne, abertzaleek gehiengoa duten nazio kontzientzia definitzeko lurraldeen eremua Euskadi hitz edo adierazpide politikoa dugu. Eta herrialde horiek argi dugu Hirurak Bat direla.

Orduan, komunikabide gutxiago zegoen, euskara idatzirik ez, eta abar. Agian, euskalki ezberdinak aditzeko aukera gutxiago. Elebakar gehiago, zer esanik ez. Horrela, ba, distantzia handia beraien artean eta herrialdeak, ondorioz, bakoitza bere kabuz gobernatzen ziren, batasunik gabe, nahiz eta erabili Euskal Herri hitza definizio kultural gisa gaur egun bezala. Baina politikoki ulertuta, bata zen Gipuzkoa, bestea Bizkaia, Nafarroa, Araba, Lapurdi eta Zuberoa. Ezberdinak garai haietan, gobernatzeari dagokionez.

Beti egon dira tirabirak gure artean. Gero etorri ziren garai berrietan bazeuden gorroto itzelak ganboatarren eta oinaztarren artean, agaramontarren eta beaumontarren artean. Orain ere, komunikabide gehiagorekin, batzuk espainolistak dira, besteak Frantzia-zaleak eta gu abertzaleak. Hiru hizkuntza ere badaude, eta ezinikusiak. Bi hizkuntza inposatuak dira betebeharrez eta gurea eskubidea.

Independentzia, laster baten egitekoa. Euskadin. Ez da Euskadi Nafarroa, abertzaleak %30 soilik direlako. Ez da Euskadi Iparraldea, abertzaleak %10 soilik direlako. Baina zer gertatzen da? EAJk eta EH Bilduk nahiago dutela 20 edo 30 urte itxaron, ea Nafarroa abertzale bihurtzen den, eta ordurako lagatzen dute Hego Euskal Herriaren independentziaren proiektua. Gehiengo bagara hiru herrialdetan, zergatik ez eman amore Nafarroari orain, eta demokratikoki independizatu Hirurak Bat? Hots, Euskadi. Gaztelera orain bertan bihurtuko genuke eskubide soila, eta ez betebeharra, euskara bezala. Zergatik itxaron 20-30 urte? Posible da EAEk, Euskadik, independentzia lortzea.

Abertzaleek, behingoz, lagatzen badute Nafarroa, ziur Espainiak lagako duela EAE Euskadiren independentzia, demokraziaren logikaz. Mesedez, abertzaleok...

**Agurne Barruso** | Gipuzkoako diputatu nagusiaren kabinete-burua

# "Krisira eroan gaituen ereduaren ordez eraikiko dugu etorkizun oparoa eskainiko digun eredua"

- Bergarako alkate ohia ahaldun nagusiaren kabinete-buru izendatu dute oraingo astean
- "Krisiaren ondorioak arintzera bideratutako ekimenak bultzatzea da lehentasuna"

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Oraingo astean hartu du kargu berria Agurne Barruso (Bergara, 1968) Bergarako alkate ohiak: diputatu nagusiaren kabinete-burua izango da, Juan Carlos Alduntzinen ordez. Martin Garitano ahaldun nagusi bergararrak beste bergarar bat izango du alboan, horrenbestez. Barruso Euskal Filologian lizentziaduna da eta parte-hartze teknikaria profesioz, Elhuyar Aholkularitzan. Sorturen Gipuzkoako arduradun instituzionala ere bada.

**Kargua hartu eta berehala aipatu duzu nahiko zenukeela igartzea Gipuzkoako diputatu nagusia eta kabinete burua bergararrak direla. Zertan igarri beharko lukete bergararrek hori?**

Horrela argitaratu bada ere, ez nuen zehazki hori esan. Diputatu nagusia eta bere kabinete burua bergararrak izatea Bergarak igartzea naturala litzatekeela baizik. Foru gobernuak Gipuzkoara begira egin behar du lan eta ez bere kideen jaioterrien arabera. Zertan igarri? Gauza txikietan proiektu handietan baino gehiago, seguru. Sentimendu kontua da. Norberak ez du nongoa den ahazten eta hori nahigabe ere igarri egiten da bere jardunean.

**Bergarako UNEDek egoitza aldatu eta Arrizuriaga jauregian kokatuko da?**

EH Bilduk legegintzaldi hasieratik egin du eraikinen arteko trukearen aldeko apustua. Kontua da momentu honetan egoera ekonomikoak ez duela ahalbidetzen Arrizuriagak behar dituen inbertsioak egitea. Diru-aukerak zeudenean ez egiten egoskortu izana, oso kaltegarria izan da Bergararentzat eta UNEDentzat. Dena den, eraikinen trukean aurrerapausoak eman daitezkeela uste dut.

**Bergaran urteak daroatzate Errege Seminarioaren zientzia bilduma museo bihurtzeko asmotan. Horri bultzada eman nahi diozue Diputaziotik?**

Nire iritzian interesgarria da Bergarako Museoa oso, baina aukera ekonomikoak ere baldintza oso garrantzitsuak dira bizi dugun egoeran.

**Kargua hartu berritan, eta agintaldia amaitzeko urte bi geratzen direnean, zein izango da zure lehentasuna?**

Nire lehentasuna Foru Gobernuaren lehentasunak sustatzea izango da. Ildo honetan, bizi dugun krisia gure jardunaren erdigunean izango da. Orain dela hilabete eskas sortu da diputatu nagusiaren ardurapeko Zuzendaritza berria, Lurralde Garapenerako Zuzendaritza, hain zuzen ere, eta ildo hau giltzarri izango da. Bizi dugun krisi ekonomikoak bi abiaduratan lan egitera behartzen gaitu: alde batetik, epe motzean, krisiaren ondorioak arintzera bideratutako ekimen zehatzak abiatu behar dira eta, bestetik, krisira eroan gaituen eredua eraldatu eta etorkizun oparoa eskainiko digun eredua eraiki behar dugu. Lehenengo ildoari begira, Garapen Ekonomikorako Ponentzian jasotakoa izango da ardatz. Bigarren ildoan, berriz, eskualdeak ardatz hartuta, epe luzera diseinatu beharreko lurralde-ereduan Garapen Agentzien eta eskualdeko eragileen bidelagun izatea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren egiteko nagusia. Bestalde, lurralde garapenaz ari garenean garbi utzi behar dugu ez dugula garapen industrialean bakarrik pentsatzen. Are gehiago, ez dugula garapen ekonomikoan bakarrik pentsatzen, lurraldearen garapen integralean baizik.

**Hain justu ere, Berdintasuna, Parte-hartzea, Euskara eta Migrazioa dira diputatu nagusiaren ardurapeko beste zuzendaritzak. Alor horietan, zein izango da lehentasun nagusia, urgenteena edo garrantzitsuena?**

Aipatutako hauekin batera Lurralde Garapeneko Zuzendaritza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza ere diputatu nagusiaren ardurapekoak dira. Guztiak estrategikoak EH Bildurentzat. Baina ez horiek bakarrik. Gizarte Politika, Politika Fiskala, Ingurumen Politika, Mugikortasuna eta Ingurumen Politika aurrerakoiak eta jasangarriak ezinbesteko elementuak dira eraiki nahi dugun Gipuzkoarako. Bestalde, jatorri anitzeko gipuzkoar euskaldunez osatutako herrialdea eraiki nahi dugu eta horretan zeresan handia daukate Euskarak eta Kulturak, Migrazioak.... Gainera, zer egiten dugun bezain garrantzitsua da nola egiten ditugun gauzak eta Parte Hartzearen Zuzendaritza gure izaerarekin zeharo bat datorren elementua dugu. Foru gobernuren jarduna ezin da Zuzendaritza eta Departamentu batera mugatu. Guztiak norabide berean lanean jartzean dago gakoa.

**Ze balorazio egiten duzu Gipuzkoako Foru Gobernuaren lehen bi urteena?**

30 urtean eredu zehatz baten arabera gobernatutako erakundearen jarduna irauItzea genuen helburu eta bi urte hauetan aldaketa sakonak egon dira Politika Fiskalean, Gizarte Politikan, Hondakinen kudeaketan, Mugikortasunean, Kulturan… Eredu berria eraikitzeko orubea prestatu du Foru Gobernuak pasa diren bi urteetan. Orain eraikitzen jarraitzea dagokigu.

**Diputatu nagusiaren bi kabinete-buru ezagutu ditugu bi urteotan, Errazkin eta Alduntzin; orain, zeu hirugarrena. Aldaketa asko?**

Asko? Nik ez nuke horrela planteatuko. Datozen egoerei eta erronkei modu egokian erantzutea da erantzukizunez jokatzea dagokio Foru Gobernuari eta hori egin du gureak ere, beharrezkoak edo behartuak izan diren aldaketak eginda. Ez dauka bestelako eraginik gaiak.

**Hiri hondakinen kudeaketa da denon ahotan dagoen gaia. Atez atekoaren aldeko hautua egin zuen Bilduk agintaldi hasieran. Orain, berriz, askatasuna eman die udalei egokiena iruditzen zaien bilketa modua aukera dezaten. Zela ulertu behar aldaketa hori?**

EH Bilduk argi dauka hondakinak sailkatuta jasotzeko egun ezagutzen dugun sistemarik onena atez atekoa dela. Dena den, inoiz ez dugu eztabaida sisteman jarri nahi izan; helburuetan baizik. Beste batzuk tematu dira atez atekoaren aurkako gurutzada egiten. Guretzat, gutxienez, %60ko birziklatze-tasara iristeko bermea daukan edozein sistema izan daiteke ona. Udalen eskumena da bilketa-sistema kudeatzea eta udalek erabaki dute zein bilketa-sistema ezarri; orain eta lehen. Bestalde, nola iradoki porrota Gipuzkoan hainbat herritan %80tik gorako birziklatze-tasak lortu direnean, beste askotan %70eko tasara iristeko akordioak erdiesten ari garenean? Egungo birziklatze-tasa %33koa da. Eztabaida %70era iristeko sistemen artean egotea arrakasta da eta handia, gainera.

**Agintaldi amaierarako, Gipuzkoan %60ko birziklatze maila lortu nahiko luke Aldundiak. Posible da?**

Jakina! Baldin eta horretarako borondatea badago. Gaika batzea eta ahalik eta gehien birziklatzea guztion esku dagoen ariketa erraza da. Maila hori lortzeko izan dezakegun oztoporik handiena EAJk bereziki hondakinen gaiarekin egin duen borroka partidista da. Gutariko bakoitzak etxean ondo sailkatu eta bereizten badugu, %80 ere irits daiteke eta hori erakusten dute datuek.

**Zela dago Diputazioak Zubietako errauste-planta eraiki behar zuten enpresekin duen auzia?**

Ez dugula errauste-plantarik egingo esan dugu eta berretsi egiten dugu. Hori horrela izan dadin gestioak egiten ari da GHK eta bide onetik doaz.

**Sozialistekin adostutako krisiaren aurkako plana abian jarriko duzue aurki. Ze ekarriko dio horrek lurraldeari eta, zehatzago, Debagoienari?**

Lurralde Garapena planifikatzeko aukera emango digu, baita Debagoienari daukan plangintzan aurrera egiteko ere. Bestalde, epe motzean enplegu zuzena sortzeko aukera emango digu.



Agurne Barruso bergararra da Martin Garitano ahaldun nagusiaren albokoa. | ENEKO AZKARATE

> "Bergarako UNEDen eraikinaren trukean pausoak eman daitezke"

> "Lurraldearen garapen integrala nahi dugu, ez soilik industria garapena"

> "Hondakinak sailkatuta jasotzeko sistemarik onena atez atekoa da"

> "Esandakoa berresten dugu: errauste-plantarik ez dugu egingo"

bilduma
**Sombra**





diseinua
Eloy Millán

**Sombra saileko** egongela-jangela. Akaberak euri lakatuan, ardesian eta sumendi matean. **Eclipse** erdiko mahaia. Akaberak sumendi lakatu matean. **Aukera** gehiago Kibuc.com en. Adierazitako neurri eta akaberetarako balio duten prezioak. BEZ-a barne.

**www.kibuc.com** ikus gaitzazu Facebook eta Twitter-en

**gureametsa@kibuc.com**
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel. 943 151 681

**KIBUC** Gure Ametsa

**KIBUC**
altzariak eta osagarriak
**Azkenean etxean**

## DUELA 10 URTE

2003-06-06

### 36ko gerrako fusilatuei omenaldia

Espainiako gerran fusilatu zituzten debagoiendarren aldeko omenaldiaren harira, haien oroitzapenean egin zuten monolitoa inauguratu zuten. Omenaldia orokorra izan arren, Arrasaten egin zen.

Lehenengo, errepresaliatuen aldeko meza egin zuten parrokian. Ondoren, Laubide plazan jarritako monolitoa desestali ostean, bertsolarien eta herriko musikarien omenaldia jaso zuten.



Fusilatuen senideak, bilkura aretoan. | UBANE MADERA

2003-06-06

### Jonathan Perez, bigarren

Jonathan Perez pertika-jauzilari arrasatearrak Madrilen antolatutako txapelketan bigarren postua eskuratu zuen, Real Sociedad taldearekin.

Arrasatearrak 4,70 metroko saltoa egin zuen eta irabazlearengandik hamar zentimetrora geratu zen. Txalotzekoa izan zen Perezen marka; izan ere, aste batzuk lehenago, pertika hautsi eta lesio garrantzitsua izan zuen.

## DUELA 5 URTE

2008-06-06

### Legarreko etxeen proiektua

Gelma ondoko pabiloi industrialak bota eta bertan, Gipuzkoa etorbidera begira 80 etxe egiteko plana finkatu zuen udalbatzak.

Proiektu berak, gainera, etxe berri horien azpian 169 garaje eraikitzeko asmoa ere bazekarren. Bertako merkatariek nora joan beharko zuten kezka azaldu zuten.

## HERRITARRAK

ARRASATE

**Aitor Astaburuaga** Duela 26 urte martxan jarri zuen kopia-dendari esker Arrasate guztiak ezagutzen du; bere prestutasun eta aldarte onarekin, bezeroekin gertuko harremana izatea lortu du. | IMANOL GALLEGO

# "Gogoan daukat behin tanga bat fotokopiatu behar izan nuela"



Aitor Astaburuaga, Ttukun dendaren barruan. | IMANOL GALLEGO

Aitor Astaburuaga ez da oso izen ezaguna izango, baina, Ttukun aipatuz gero, Arrasate osoak zein dendariz ari garen erraz asma dezake. Bere irribarrea "ongi etorri!" esateko erabiltzen duen tresna eraginkor horietako bat da. Jatorra, zintzoa, etxerako modukoa. Kopiatu baino gehiago, fotokopiatu ezin den arrasatear atsegin horietako bat da.

**Zu arrasatearra zara, ezta?**

Bai. Egia esateko, 1963. urtean Arrasaten ez zegoen ospitalerik eta garai hartan etxean edo Bergarako ospitalean jaiotzen zen. Ni Bergaran jaio nintzen, hemen ospitalerik ez zegoelako! Hala ere, arrasatearra naiz.

**Zenbat urte fotokopiak egiten?**

Uf... 26 izango dira!

**26 ez da zenbaki makala! Fotokopia-denda lehen aukera izan zen?**

Ez. Aitaren lokala zen eta bertan zer jarri pentsatzen hasi ginen. Hasieran, paper-denda bat jartzeko ideia otu zitzaigun, baina, azkenean, fotokopia-denda jartzea erabaki genuen.

**Zenbat fotokopia egin dituzu?**

Zenbakia diozu? Ideiarik ere ez. Ez ditut inoiz zenbatu.

**Jendeak etxean inprimagailuak jarri dituela sumatu duzu?**

Beti igartzen da. Egia da jendea gutxiago etortzen dela, baina horrekin ere aurrera egitea besterik ez zaigu geratzen.

**Ttukun ez da fotokopiak soilik egiteko leku bat.**

Askotan, herritarrak elkartzen diren puntu bat dirudi. Herriko elkarteek, adibidez, euren liburuak hemen saltzen dituzte eta gure ateak iragarkiz beteak daude. Denda ezagutzera emateko beste modu bat da. Gure zerbitzuengatik etortzen ez direnak hemen ditugun iragarkiak irakurtzera etortzen dira eta horri esker denda ezagutzera ematen dugu.

> "Askotan, dendak herritarrak elkartzen diren puntu bat dela dirudi"

> "Oraingoz, paperak ordenagailuak baino aukera gehiago ematen ditu"

**Hala ere, zure denda fotokopiak egiteko toki bat da. Ze izan da kopiatu behar izan duzun objekturik arraroena?**

Tanga bat.

**Barkatu?**

Bai, bai, tanga bat. Eskuan ekarri zidan eta nik fotokopiatu egin nuen. Ez da objektu bitxi bakarra izan. Gauza kurioso gehiago fotokopiatu izan ditut. Bularretakoak, harriak, bitxiak...

**Zertarako?**

Ez dakit. Nik ez dut galdera askorik egiten. Fotokopiatu egiten ditut eta listo. Eurek jakingo dute zertarako behar duten harri edo tanga baten fotokopia.

**Fotokopia kuriosoez gain, beste gauza arrarorik egin duzu inoiz?**

Ba, psikologo lana, akaso! Nire iritziz, dendari guztiok doan ematen dugun zerbitzua da hori. Gertuko zerbitzua eman nahi den heinean, horrelako gauzak egin behar dira.

**Zure denda oso leku ezaguna da.**

Herri erdialdean dagoenez oso eskura dago, eta horregatik izango da. Beste denda edo taberna batzuekin ere gauza bera gertatzen da. Kokaleku kontua da.

**Kantoi honek bizitasun handia izan du.**

Lehen, Biona zegoenez, kantoiak bizitasun handia zuen. Hemendik pasatzen ziren, eta, askotan, fotokopiaren bat egiteko aitzakiarekin, trago bat hartzen zuten tabernan. Alderantziz ere bai: tragoa edan bitartean fotokopiak egitera ere etortzen ziren.

**26 urteren ostean, garai onak eta txarrak bizi izan dituzu. Zelako garaia da hau?**

Nire ustez, okerrena. Lehen, kooperatibak diru eta lan asko sortzen zuen, baina egun, soldatak asko jaitsi dira. Orain, autoa samurrago eta maizago hartzen dugu eta merkatariok joera hori bereziki igarri dugu.

**Zenbat aldiz entzun duzu papera hilda dagoela?**

Milaka aldiz! Jendeak ikasteko, irakurtzeko papera gustukoago du. Oraingoz, paperak ordenagailuak baino aukera gehiago ematen ditu.

**Inoiz sumatu duzu zurea aurpegi ezaguna dela?**

Bueno, bai. Baina ez dit axola. Oporretatik bueltan norbaitek beti esan izan dit hemen edo han ikusi nauela. Jendearekin harreman ona daukadanez, ez zait gogorra egiten.

**Beste herri batetik zer kopiatu edo fotokopiatuko zenuke Arrasatera ekartzeko?**

Dudarik gabe, hondartza.

**Eta non jarriko zenuke?**

Epele ingurutik Elorregiraino jarriko nuke.

**Eta Arrasatetik zer fotokopiatu eta esportatuko zenuke?**

Jendea, giroa eta hemen lan egiteko modua.

### NIRE HERRIAN

**:) BIZITZEKO TOKI LASAIA DA**

Umeak kalean jolasten dira, gauean ez da bestelako ezer gertatzen. Arrasate bizi izateko oso toki atsegina da. Beste toki batzuekin alderatuz gero, Arrasate bizitoki egokia da. Tamaina, tokia, klima... Esan bezala, lasaitasuna asko atsegin dut. Egia esateko, herri osoa gustatzen zait. Bertakoa naiz, ze esango dut ba!

**:( ORAIN, LANGABEZIA**

Zerbait esatekotan, langabezia aipatuko nuke, benetan kezkatzen nauen gai bat da. Zorionez, herriko langabezia-maila ez da oso handia, baina lan barik egotea oso egoera txarra da. Ez da herriko ezaugarria, arrasatearrok beti izan dugu ekintzaile-grina hori; horregatik, langabeen alboan egoteko garaia da. Irtengo gara!

# HERRIAK

OÑATI

# Saguzarrak ezezagunak bezain beharrezkoak dira

- Gure ekosistemaren orekari eusteko animalia garrantzitsuak dira
- Ingurumenaren Egunaren harira erakusketa eta hitzaldia egongo dira

**IMANOL GALLEGO** | OÑATI

Ez dira animalia erakargarri edo bukolikoenak, baina saguzarrak, daukaten izen beltz eta ilunetik urrun, oso animalia baliagarriak dira. Hilaren 5ean, Ingurumenaren Egunaren harira, Arrikrutz koban animalia bitxi horiek ezagutzera emateko ekimena abiarazi dute. Aurten saguzarrak aukeratu dituzte, eta aurreko urteetan ere ospatu dute egun hori: "Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatzen dugun hirugarren aldia izango da eta aurreko urteetan izan dugun arrakasta errepikatzea espero dugu", dio Jaione Igartuak, Arrikrutzeko gidariak.

Gidariaren eta antolatzaileen helburua argia da, gure ingurumena sostengatu eta orekatzen duten elementu ezezagunak jendeari hurbiltzea. Horretarako, argazki erakusketa, tailerra, Arrikrutz eta Jaturaben txangoa...: "Natura hobeto zain dezagun informazioa ematen saiatzen gara", dio Igartuak.

Gure inguruak espezie askoren ekosistema dira eta haien arteko orekari eustea ezinbestekoa da. Juan Tomas Alcalde adituaren hitzetan, "saguzarrek oreka hori bermatzen dute". Animalia horien inguruko kondairak ere gezurtatuko ditu: "Zentzurik gabeko istorioak dira".



Ferra-saguzar gaztea. | JUAN TOMAS ALCALDE



Arratoi-belarri handi saguzar bikotea. | J.T.A.

### Argazki erakusketa

Gainera, saguzarren ohiturak ezagutzeko, hilaren 16ra arte Arrikrutzeko harreran argazki erakusketa egongo da. Argazki bakoitzak bere azalpentxoa izango du, eta, horri esker, animalia horren bizimodua azalduko dute. Eta sakontzeko gogoz daudenek *www.secemu.org*-en informazio gehiago aurkituko dute.

### Haurrentzako bisita tailerra

Hezkuntza kontuak gaztetatik hasi behar direnez, lehen saio didaktikoa eurentzat izango da. Bihar, 6 urtetik gorakoek saguzarren mundua ezagutzeko aukera izango dute. 16:30etik aurrera, Arrikrutzeko harrerako argazkia ikusi ostean, koba barrura sartuko dira eta, arratsaldea bukatzeko, eskulan gisa saguzar bat egingo dute. Horrek guztiak sei euroko kostua izango du eta izena ematea beharrezkoa da. Hala ere, erakusketak irauten duen bitartean, ekintza ugari doan egongo dira. Saguzarren inguruan egingo diren ekimen guztien berri izateko, Arrikrutzeko 943 08 20 00 telefonora dei daiteke.

## Saguzarrak gertutik ezagutzeko gaua

Ekainaren 14koa gau berezia izango da Arrikrutzen. Argazki erakusketaz gain, 19:30ean Juan Tomas Alcalde adituak hitzaldia egingo du. Ilundu bezain laster, 22:00 inguruan, saguzarrak ikusteko txangoa egingo dute. Afaria etxetik eroatea komeni da.

Ekimena doakoa eta jende guztiarentzat irekia dagoen arren, antolatzaileek aurretik izena ematea gomendatzen dute.

**JUAN TOMAS ALCALDE**
BIOLOGOA

## "1.200 espezietatik, 3 bakarrik dira odolzaleak"



J.T.A.

Biologia ikasketak bukatu eta gero, 1990. urtean bere tesia saguzarren inguruan egin zuenetik animalia haien kontserbazioa eta dibulgazioa bere ogibide bilakatu da.

**Saguzarrak ez dira oso animalia erakargarriak, baina naturarentzat oso mesedegarriak dira.**

Hala da, gure inguruan dauden motek intsektuak jaten dituzte, eta, haien lanari esker, izurriteak kontrola ditzakegu.

**Euren hondakinak ere oso preziatuak dira.**

Guanoa oso ongarri ona da. Zenbait kasutan, gainera, landare dezenteren hazia zabaltzeko balio izaten du.

**Intsektuak, fruta... Euren dieta banpiro batenetik asko aldentzen da.**

Mito bat besterik ez da. Munduan 1.200 saguzar mota daude eta horietatik hiruk edaten dute odola, gainontzeko guztiek ez dute odolik edaten. Hala ere, normalean, ez dute gizakien odolik edaten.

**Nondik dator ospe hori?**

Bram Stokerrek erruaren zati bat dauka. Hark idatzi zuen *Dracula* eta bertan *saguzar* hitza aipatzen ez zen arren, gauean zelatan ibiltzen zen animalia ilun arraro bat agertzen zen; horrela sortu zen kondaira.

**Saguzarrak arriskuan daudela esango zenuke?**

Zenbait mota bai, baina jenerealean ez. Edozelan ere, babestuta dago.

Nik euskara

Udako ikastaroak 2013
HABEren dirulaguntzaz
2013-14 ikasturterako aurrematrikula

Matrikula zabalik
Ekainaren 1etik 21era
16 urtetik gorakoentzat
www.udaleuskaltegiak.net

udal euskaltegiak

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO ENTITATE OFIZIALA

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza 2
(Eskola Politekniko ondoan)
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta kalea 18 - OÑATI
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@oinati.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea 33 (Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

# Emausek Ekozenterra 2014rako ireki gura du

Emaus Fundazioak Gipuzkoa izango duen hirugarren Ekozenterra izangο da

**J.B./I.G.** | ARRASATE
Emaus Fundazioak Ekozenterra irekiko du Musakola auzoko Bidekurtzeta kaleko ASAM pabiloi zaharrean. Proiektu honekin Udalak eta Emausek berrabilpenean oinarrituko den dendaren alde apustu potoloa egin dute-eta. Pabilioi berriak bi solairu izango ditu eta 2.610 metro koadro; 2014an martxan jartzea espero dute.

Kokaleku berriko 800 metro koadro bazar itxura izango duen denda kokatuko dute. Bertan bigarren eskuko altzariak, arropa... salduko dituzte. Guztia erakargarriagoa izateko, ekozenter berriak, 30 metro koadro izango dituen erakusleiho zabal bat izango du.

Emaus Fundazioak eta Arrasateko Udalak 2008a ezkero dihardute elkarlanean eta Udaleko iturrien arabera, Nafarroa Etorbideko gizarteratze tailer eta dendarekin oso emaitza onak lortu dituzte, sozialki zein ingurumenaren ikuspegitik.

Izaera sozial eta ireki horren harira Emaus fundazioak arkitektoei zuzendutako ideien lehiaketa bat antolatuko Ekozenterraren aurreproiekturako. Kontuan hartzeko puntuak gardentasuna, berrikuntza, langileen edota erosleen ongizatea bezalako eko-kontzeptuak kontuan hartuko dira.

**DATUA**

**12**

LAN POSTU

Kokaleku berrian martxan jarriko duten Ekozenterrari esker sortuko dira.

**Aldundiak ere bai**

Gipuzkoako Aldundiak ere begi onez ikusten du Arrasaten Ekozenterra zabaltzea eta konpromisoa hartu du proiektua bultzatzeko: 2013ko aurrekontuetan 240.000 euroko kontu sail bat izendatuta dauka, ASAM pabiloiaren egokitzapen lanetarako. 2014 eta hurrengo urteetan ere Ekozenterreko obrak finantzatzeko konpromisoa hartua du Aldundiak.

Arrasateko Emausek, gaur egun, bi produktu ditu salgai bere dendan: bigarren eskuko arropa eta Sin Desperdicio markako produktuak, tailerrean konponduta berrerabilgarri jartzen dituztenak. Ekozenterra martxan jartzen denean, berrerabiltzeko produktuen eskaintza askoz zabalagoa izango da, egun eskaintzen duten arropaz gain, etxetresnak, jostailuak... ere eskainiko dituztela.



Emausek bidekurtzetan izango duen lokal berriaren aurrealdea. | JOKIN BEREZIARTUA



Osoko bilkuren aretoan egindako agerraldia. | IMANOL GALLEGO

## Udalak eta hezkuntza eragileek Lomce legea baztertu zuten

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE
Arrasateko Udaleko hezkuntza kontseiluak Wert ministroaren legearen aurka agerraldia egin zuen. Osoko bilkura aretora gerturatu ziren ikasle, guraso, herritar eta udal ordezkariek bat egin zuten, euren iritziz hezkuntza erreforma honek eskumenak murrizteaz gain, sistema elitista bat inposatuko duela salatzeko.

PPko zinegotzia ez zen bilkuran egon eta gainontzeko alderdi guztiek aho batez onartu zuten erreforma baztertzea. Hezkuntzaren %65a Madrildik zehaztuta etorriko denez, euskal curriculumaren kontrako neurria dela salatu zuten.

Osokoaren ostean herriko hezkuntza komunitateko hainbat ordezkarik agerraldia egin zuten Lomce legearen kontra. Bertan salatu zuten erreforma honek izaera "baztertzailea eta elitista" duela. Agerraldian azpimarratu moduan "legeak ikastetxeen autonomia murrizten du gehiena kanpotik erabakitzen baita".

**Mugitzeko deia**

Agerraldiaren sustatzaileek besoak gurutzaturik geratu beharrean jendea elkartu eta mugitzera deitu zuten. Euren ustez "beharrezkoa da gizarteak lege honi buruz duen iritzia argi azaltzea".




## TAO sistemaren tasak onartu dituzte

**I.G.** | ARRASATE
Osoko bilkurak Arimazubi plazaren inguruan aparkatze arautuaren eta egoiliar nahiz merkatari txartelen tasak onartu zituen. Egongo diren bi guneetan, lehen 90 minutuak doakoak izango dira. Hortik aurreko minutuek tasa bigun bat izango dute; Maider Morras udal taldeko bozeramaileak adierazi duenez, "lehen ordu erdiak 10 zentimoko kostua izango du eta hurrengo 15 minutuko franja bakoitzagatik 5 zentimo ordaindu beharko dira".

Uribe inguruan gehienez hiru ordu aparkatzeko aukera egongo da eta unibertsitate atzealdean, aldiz, sei orduko epea egongo da. Egoiliar eta merkatarien kasuan ez da gune bereizketarik egingo.



TAO sistema Arima Zubi plazaren ingurua jarriko dute. | IMANOL GALLEGO

Ohiko egoiliar txartelak 10 euroko kostua izango du. 1 motako merkataritza egoiliar txartelak, aldiz, 20 eurokoa eta 2 motako merkataritza egoiliar txartela eskuratzeko 50 euro ordaindu beharko dira. Salaketa kentzeak 10 euroko kostua izango du.

## Emakumeen sexualitateaz berbaldia eta tailerra antolatu ditu Ekin elkarteak

**Z.V.D.M.** | ARRAASATE

Bi ekimen antolatu ditu datozen bi eguaztenetarako Ekinek. Aurrenekoa ekainaren 12an izango da, eta bi zatitan egongo da banatuta: *Sexualitatea historian zehar* eta *Sexu aniztasuna, maitasuna eta desioa*.

Udal Sexologia Zerbitzuko kide Montse Velascok historiaren gainean egingo du berba; horren ostean, Maitasun sexologia zentroko Estitxu Iriondok eta Miren Navarrok hartuko dute hitza.

Bigarren ekimena hilaren 19an izango da: Bitxigorriako Nerea Sanchok *Sexualitate ereduak, osagarriak eta formula erotikoak* tailerra emango du.

Ekinen egingo dituzte bi ekimenak. Ekainaren 11 baino lehen eman behar da izena, 3 euro ordainduta.



Z.V.D.M.

## Petxarromanekin solasean

*Su haietatik ke hauek* liburua aurkeztu zuen Iñaki Petxarroman kazetari eta idazleak Kulturaten martitzen arratsaldean. Arrasateko Zero Zabor taldeak gonbidatuta etorri zen herriko kultura etxera Petxarroman, eta bertaratutakoek interesez jarraitu zituzten, besteak beste, lasartearrak erraustegien eta hondakinen gainean esan zituenak.



Nagusien Astearen une bat. | GOIENA

# Iturbideko egoiliarrek euren astea ospatuko dute

**ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL**

Astelehenean hasi eta egubakoitzera bitartean Nagusiaren Astea ospatuko dute Iturbide egoitzan. Bertako egoiliarrentzat egitarau entretenigarria antolatu dute.

**Musika eta antzerkia nagusi**

Musikak garrantzia edukiko du datorren astean. Astelehenean, esaterako, Iturbide egoitzako korua aurkeztuko dute familien aurrean eta emanaldia eskainiko dute, 18:00etan hasita.

Eguenean, berriz, doinu ezberdinez jantziko da egoitza. Batetik, danborrada saioa egingo dute, 10:00etan, eta Alaitzen taldearen eskutik, aldiz, Mexikoko abestien errezitaldiaz gozatuko dute, 17:30ean hasita.

Oñatiko Ikusi Makusi taldearen eskutik, ostera, umorezko antzezlana ikusteko aukera egongo da, ekainaren 11n, 17:00etan hasita. *¿Dónde está la pierna del alcalde?* obra eskainiko dute; hain zuzen ere, hanka ortopediko baten bilaketa eroa ardatz duen antzezlana.

**Egun handia eguaztenean**

Eguaztenean, berriz, jaia Iturbidetik Etxaluzera pasatuko da, eta bertan bazkaria egingo dute guztiek batera. Egunari amaiera emateko dantzaldia antolatu dute.

## Zero Zaborrek agerraldi jendetsua deitu du hilaren 11rako

Martitzenean agerraldia egin zuen Arrasateko Zero Zabor taldeak. Helburua zen ekainaren 11n, 18:30ean, Monterronen agerraldi jendetsua egiteko deialdia zabaltzea: "Aspaldidik ari gara sentsibilizazio kanpainak aurrera eramaten, baina ez da nahikoa. Gu inplikatzeaz gain, herritarrek ere inplikatu behar dutela uste dugu". Herritarrei egin diete dei bertara daitezen: "Errauskailurik ez baduzu nahi eta %80tik gora gaika bildu behar dela pentsatzen baduzu, etor zaitez Monterronera".

## Ardo eta Gazta Eguna egingo dute bihar egun osoan

Jende ugari elkartzen da urtero Mondra taldeak antolatzen duen Ardo eta Gazta Egunean, eta bihar, egun osoan, Herriko Plazan zer jan eta zer edan egongo da.

Hain zuzen ere, antolatzaileek aditzera eman dutenez, 20 upategik eta 15 gazta enpresak hartuko dute parte, gutxi gorabehera. Goizean, gainera, gazta lehiaketa egingo dute eta arratsaldean, aldiz, bertaratzen direnek ardoarekin batera haragi pintxoak jateko aukera izango dute.



## Eskubaloia ezagutzeko aukera izango dute gaztetxoek Arrasaten datorren astean

Arrasate Eskubaloi Taldeak gaztetxoei eskubaloian jokatzeko aukera eman nahi die. Horretarako, ekainaren 13an entrenamendu irekia egingo dute Iturripe kiroldegian, 17:00etan. Egun horretan, 2001etik 2004ra jaiotakoentzat prestatu dute saioa. Hilaren 15erako ere entrenamenduak antolatu dituzte. Goizean izango dira, 10:00etan hasita.

## Besaidekoak Bizkai aldera doaz hurrengo mendi irteeran; ekainaren 16an izango da

Besaide mendi taldekoak Bizkaiko Biraren etapa bat egitera joango dira datorren domekan, ekainaren 16an. Hamaseigarren etapa egingo dute: Orozkon hasiko dute ibilaldia eta Ubidera joango dira herrialdeari buelta ematen dion ibilbidea hartuta. Irteerara joateko gogoa duenak elkartearen egoitzan eman behar du izena; ekainaren 10etik 12ra, arratsaldez.

## Eneko Carrascal eta Marixe Ruiz de Austri atletek dominak irabazi zituzten Gipuzkoako txapelketan

Gipuzkoako infantilen proba konbinatuetan emaitza oso onak lortu zituzten atleta arrasatearrek. Eneko Carrascalek urrezko domina irabazi zuen: 80 metrokoan (10 segundo) eta luzeeran (5,17 metro) irabazita. Marixe Ruiz de Austrik zilarrezkoa eskuratu zuen: bigarren 80 metrokoan (11,24 segundo) eta lehenengo luzeeran (4,53 metro). Beste probetan ere aurrean ibili ziren.



ARRASATE PILOTA TALDEA

## Txapela, Moron eta Egiarentzat

Debarroko pilota txapelketako finalak asteburuan izan ziren, Elgoibarren. Kadeteen mailan, Markel Moron eta Josu Egia arrasatearrek txapela lortu zuten, Elgoibarko bikoteari 22-9 irabazita. Gainera, Moron aurrelariari partidako jokalari onenaren saria eman zioten. Seniorretan, ordea, Aritz Zuazuak eta Ibai Bolinagak Soraluzeko pilotarien aurka galdu egin zuten: 22-7.



Eibarko lasterketako podiuma: ezkerretik hasita, Sagasta, Madariaga eta Jauregi. | DORLETAKO AMA

# Danel Sagasta ziklistak bigarren amaitu zuen Eibarko lasterketa

Dorletako Amako txirrindulariari 10 segundo atera zizkion irabazleak

GUREN AUZMENDI | ARRASATE

Joan den asteburuan jokatu zen Eibarren juniorren mailako San Juan saria. Dorletako Ama eskolako Danel Sagastak bigarren egin zuen.

Denera 76 txirrindularik parte hartu zuten domekan, ekainaren 2an, San Juanetako 78. sarian. Tartean ziren Dorletako Ama elkarteko Ruben Carmona eta Danel Sagasta ere. 101 kilometroko luzera zuen ibilbideak eta 42 ziklistak bukatu zuten proba. Carmonak ez zuen amaitzerik izan, baina Sagastak emaitza oso ona lortu zuen: bigarren izan zen Eibarko helmugan. 2 ordu eta 37 minutu behar izan zituen, Ion Madariaga irabazleak baino 10 segundo gehiago. Hirugarren Xabier Jauregi izan zen.

### Gazteagoak, Azkoitiko sarian

Ez zen izan Eibarkoa Dorletako Amakoek aurreko asteburuan eduki zuten lasterketa bakarra: ekainaren 1ean Azkoitiko saria izan zen. Hara ere joan ziren txirrindulari-elkarteko kirolariak.

Alebinen mailan, elkarte leinztarreko Aimar Arriolabengoa, Martin Abarrategi, Koldo Zubia, Oihan Uroz eta Unax Sanchezek parte hartu zuten. Helmugan lehenengo hiruak Azkoitiko eskolakoak izan ziren: Aratz Iraola, Mikel Orbea eta Mikel Berastegi; Abarrategi aramaioarra izan zen Dorletako Amako ziklista azkarrena.

Infantiletan, Liher Untzueta eta Asier Azkarate izan ziren proban. Imanol Alvarez, Iñaki Salaberria eta Beni Leon igo ziren podiumera; Untzuetak zortzigarren bukatu zuen. Nabarmentzekoa da Eneritz Lizarralde oñatiarrak lasterketa horretan egindakoa: lehenengo neska izan zen.




Zikloturista arrasatearrak Chiako gainean. | DEBAGOIENEKO T.K.

## Avilan izan ziren Debagoiena Txirrindularitza Klubekoak

G.A. | ARRASATE

Lagunarteko irteera egin zuten aurreko asteburuan Debagoiena Txirrindularitza Klubekoek. Avilara joan ziren eta hainbat ibilbide egin zituzten. Bizikletan ibiltzeaz gain, hiriburua bera ere ezagutu zuten.

Lagun taldea joan zen Arrasatetik aurreko ostiralean Avilara. Debagoieneko zikloturisten taldeak aurtengo prestatutako irteera berezia zen asteburukoa. Zapatuan, hilaren 1ean, bi ibilbide izan zituzten aukeran txirrindulariek: bata motza, 93 kilometrokoa; eta bestea luzea, 140koa. Luzeena hartu zutenek Navalmoral, Narros eta Solosancho inguruak ezagutzeko aukera izan zuten. Domekan, berriz, 76 kilometroko bidea egin zuten, guztiek batera.




Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

**Ana Isabel Ugalde** | 'Zezen festak Arrasaten' liburuaren egilea

# "Lehen, zezen festak, dantza eta pilota ziren jai onen ezaugarri"

## Gaur aurkeztuko dute liburua, izen bereko erakusketa inauguratu ostean

**IURE EIZAGIRRE** | ARRASATE

Ana Isabel Ugalde historialariak *Zezen festak Arrasaten* liburua amaitu berri du. Gogor egin zaizkion hilabeteetako lana izan da, XVI. mendetik XX. mendera arteko materiala bilatu eta aztertu behar izan duelako, Arrasate Zientzia Elkarteko zenbait kiderekin batera. Emaitza gaur arratsaldetik aurrera jarriko dute herritarren esku, liburu eta argazki-erakusketaren bidez. Erakusketa 18:00etan zabalduko dute Kulturateko klaustroan eta handik ordubetera liburua aurkeztuko dute.

**Zezen festak aztertzen dira liburuan. Zer dira, baina, zezen festak?**

Zezenak protagonista dituzten festak, pertsonekin batera zezenak protagonista direnak. Gaur egun korridekin lotzen dugu, baina bere garaian ez zen horrela. Sokamuturra, entzierroa, kalerik kaleko zezena eta egurrekin itxitako eremuetan egindako zaldi gaineko zezenketak daude dokumentatuta zezen festatzat.

**Liburuan XVI. eta XX. mende arteko tartea hartzen da. Lehenago ez zegoen zezen festarik?**

Ez dago daturik, baina Pirinioetako alde bietan zezen festak egiten ziren. Nik uste dut zezen festak orduko aberastasunarekin lotuta zeudela, abereak ziren orduan aberastasuna eta garaiko abereak zezenak eta behiak ziren. Zezen on bat izatea inportantea zen.



Ana Isabel Ugalde. | IURE EIZAGIRRE

> **"Zezen guztiak ez ziren akabatzen eta akabatutakoak okelatarako ziren"**

**Nolakoak ziren zezen festak?**

XVI. mendean oso datu gutxi dago, XVII. mendekoetan askotan aipatzen da parajeren bat itxi eta zezenketak egiten zirela. Banderilla jartzen zitzaien, aurrez aurreko borroka hori zegoen, lantzak erabiltzen zituzten, zezenaren gainetik salto egiten zuten makila batekin… Hala ere, zezen guztiak ez ziren akabatzen eta akabatzen zirenak okelatarako izaten ziren.

**Arrasaten zaletasunik bazen?**

Zaletasun handia zegoen Euskal Herriko edozein herritan. Lehen ez zegoen jai onik zezen festarik gabe, dantza, zezen festak eta pilota egoten ziren.

**Plazan udaletxea baino lehen eraiki zuten zezen-plaza.**

Zezen-plaza egin zuten Barroko garaian, 1886an. Aurretik jartzen ziren harmailak-eta harresiz kanpo, baina han borrokak sortzen ziren. Zeharka, dokumentuek diote barruan egindako zezenplaza kontrolagarriagoa zela.

**1954an herrian egindako zezenketa zergatik izan zen berezia?**

Zoro-zoro sortutako zerbait izan zen. Hiru toreatzaile izan ziren: Juan Juarez *El Andaluz,* ezezaguna zaigun Eskoriatzako trenbideetako langile bat eta Luis Bengoa *Luisito.* Oraindik gerraoste gogorra zen, eta beharrezko arroparik eta materialik ez zuten. Hala ere, herri guztia joan zen haiek ikustera.

**Hemen egindako azken zezenketa haren omenez egin zen.**

Azkena 1988an izan zen eta zezenketen aurkakoen erantzuna egon omen zen. Jai programako iragarpenean zezen festa 54koaren omenez egiten zutela zioen.

**Egungo lanera itzulita, erakusketan liburuko testuak egongo dira?**

Testu laburrak egongo dira. Eskatu zidaten sarrera moduko bat egiteko, liburuan idatzitakotik orri eskas bat sartu nuen hizkuntza bakoitzean. Izenburuak izango dituzte argazkiek.

# Japoniar perkusio tradizional ikastaroa bihar Arrasate Musikalen

**I.E.** | ANTZUOLA

Ikastaro berezia izango da bihar Arrasate Musikalen; izan ere, taiko saioa antolatu dute. Taikoa japoniar perkusio tradizionala da, eta danbor handiekin eta bachi izeneko egurrezko makila potoloekin jotzen da. Kolpe indartsuak eman behar zaizkio perkusioari, eta horrek are ikusgarriago egiten du, antolatzaileen esanetan.

Ikastaroa bi taldetan emango da: 09:30etik 11:00etara gazteendako saioa eskainiko dute, 12 eta 16 urte bitartekoekin; 11:30etik 13:00etara, berriz, helduendako ikastaroa emango dute. Arrasate Musikaleko gurasoek ere badute ikastaroan parte hartzeko aukera, eta, gainera, seme-alabekin joanez gero, bost euroko deskontua izango dute.

**Han egondakoaren eskutik**

Biharko ikastaroak danborrak eta japoniar kultura ezagutzeko aukera eskainiko du. Horretarako, Japonian bi urtez egondako pertsona bat gonbidatu dute Arrasate Musikalekoek, Madrilgo Seiwa Taiko taldeko kide bat.



Gazteek ere ekintzak antolatu dituzte Dragoi Janerako. | I.E.

# Eguna aldatuta eta gazteen babesarekin Dragoi Jana

## Gazte Euskaltzaleen Topaguneak kalejira eta jolasak antolatu ditu ekainaren 22ko jairako

**I.E.** | ARRASATE

Aste gutxi barru ospatuko dira herrian San Juan jaiak eta dagoeneko zenbait ekitaldiren berri ematen hasi dira. Aste honetan, esaterako, Dragoi Jana pare bat egun aurreratuko dutela jakinarazi dute.

San Juan egunean egin izan dute 18 urtez, baina "euskararendako eta euskaltzaleendako egun bat berreskuratzeko asmotan", aurreratu eta ekainaren 22an ospatuko dute. Ondorioz, aurten 30 urte beteko dituen Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen bertso emanaldiarekin bat egingo du.

Urteotan antolatzaile izandako AEDko eta AEK-ko ordezkariez gain, Arrasateko Gazte Euskaltzaleen Topaguneko eta Ttak! gazte taldeko kideak izan ziren aurkezpenean.

Topagunea iaz urrian sortu zen Gaztetxean, herriko gazteak euskalduntzeko asmoz. Dragoi Janekoa izango du lehen agerraldi publikoa eta egun horretarako kalejira eta jolasak antolatu ditu. 18:30ean txosnagunetik kalejiran abiatuko dira *Ez jaitsi espaloitik* lelopean. Bi ordu geroago helduko dira plazara.

Han betiko orduan izango da afaria, 21:00etan. Aurten prezioak murriztu dituzte: herritarrek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta AEDko eta AEK-ko kideek, 8 euro.

300 pertsonarendako afaria emango dute eta jendeari plazara garaiz joateko dei egin diote, afalosteko tribialari, zozketei eta Bat Batean bertso ikuskizunari behar adina denbora eskaintzeko.

**Kartel lehiaketako irabazlea**

Sanjuanetako kartela eta haren egilea, hau da, kartel lehiaketako irabazlea, egunotan egin dituzte publiko. Iraia San Migelen lanak irabazi du lehiaketa eta arrasatear gazteak "pozik" hartu du saria. "Ez nuen espero, beste urte batean ere aurkeztu nuen lan bat baina oraingoan ez nuen espero", adierazi du irabazle izan dela jakin berritan. Ordenagailuz, suarekin eta makalaren igoerarekin irudikatu ditu San Juanak.

Aitzol Lasagaren lana ere finaleraino heldu da.




Kartel irabazlea. | ARRASATEKO UDALA







**Miguel Okina** | Margolaria

# "Lagunak nirekin oroitzen direla konturatzen naiz"

- Miguel Okinari omenaldia egingo diote ekainaren 15ean Aroztegi aretoan
- Pozik dago, batez ere, lagunek eta gertukoek antolatutakoa delako

**ARRITXU BARRUSO** | BERGARA

Miguel Okina margolariak 89 urte beteko ditu laster. Joan den urtean, Pentekoste jaietan etxafuegoa jaurtitzen ikusi genuen. Bergarako Udalaren omenaldia izan zen hura. Orain, gertuko lagunek eta Bergarako artistek omendu nahi izan dute Okina. Ekainaren 15ean egingo diote omenaldia Aroztegi aretoan, 13:00etan. Ondoren, bazkaria egingo dute Batzokian. Margolari bergararrak pozik hartu du gonbidapena, eta, are gehiago, lagunengandik datorrelako. Ohiko duen umorearekin, datorren asteko ekitaldiaren inguruan eta margolari moduan egindako ibilbidearen gainean hitz egin dugu harekin.

**Joan den urtean jaietako txupinazoa bota zenuen, eta orain beste omenaldi bat. A zelako denboraldia...**

Bai. Oso pozik nago. Omenaldiaren berri izan nuenean, nahiko harrituta gelditu nintzen eta pentsatu nuen: "Kontxo! Zenbat omenaldi. Noiz bukatuko ote dittuk". [Barre] Holako notiziak oso gustura hartzen dira. Konturatzen zara lagunak eta herritarrak zurekin gogoratzen direla; oso garrantzitsua da niretako.

**Omenaldi berezia dela diozu, lagunengandik datorrelako.**

Hala da. Alde batetik, Bearteko lagunak dabiltza antolakuntzan, eta baita beste lagun batzuk ere. Jakin dut Bergarako lagunez gain kanpoko jendea ere etorriko dela datorren zapatuko ekitaldira.

**Ezer aurreratu dizute?**

Ez. Ez dakit zer prestatu duten. Ideiarik ere ez daukat. 13:00etan Aroztegi aretoan egoteko esan didate eta hortxe egongo naiz puntu-puntuan.



Miguel Okina margolaria estudioan. | ARRITXU BARRUSO

> **"Omenaldiaren berri izan nuenean harrituta gelditu nintzen"**

> **"Askotan esaten didate nire adinarekin ni bezala egon nahi dutela"**

**Simon Arrietaren aldamenean hasi zinen zu margotzen.**

Uf! Zenbat urte pasa diren ordutik... Baina halaxe da. Barrenkalen 21. atarian bizi nintzen ni eta Arrieta, 23.ean. Haren estudioan margotzen genuen.

**Nola gogoratzen dituzu urte haiek?**

Oso urte politak izan ziren. Gazteak ginen-eta, orain baino hobeto geunden. [Barre]

**Asko bidaiatutakoa zara...**

Bai. Lehenengo, Madrilera joan nintzen; ondoren, Bartzelonara; eta Parisen ere bizi izan nintzen. Beharbada, gusturen Bartzelonan egon nintzen.

**Margolaritzatik bizi izatea lortu duzu. Hori ez da batere erraza.**

Bai. Nahikoa mirari izan da hori. Gaur egun, esaterako, pentsaezina da hori; ezta ametsetan ere. Krisi ekonomikoak ez du batere laguntzen, baina, horrez gain, uste dut margolaritzaren mundua aldatzen ari dela. Jendeak lehen koadroak erosten zituen etxean ipintzeko. Gaur egun oso zaila da koadro bat saltzea.

**Jarraitzen duzu margotzen?**

Ez. Joan den urtean utzi nion. Pultsua ere galdu egin dut. Adinak ez du barkatzen.

**Bai, baina, askok nahiko genuke zure adinarekin zu bezain ondo egon.**

Bai. Askotan esaten didate, batez ere gazteek, nire adinarekin ni bezala egon nahi dutela. Dena dela, joan den astean telebistan ikusi nuen Japoniako 100 urteko gizon batek Mont Blanc mendia eskiatzen jaitsi zuela. Orduan pentsatu nuen: "Zer nok ba ni horren onduan? Ezer be ez".

**Zeu ere mendian asko ibilitakoa zara.**

Bai. Egia da. Mont Blanc mendia ez, baina 85 urterekin oraindik Gorlara igotzen nintzen. [Barre] Beraz, ez dago gaizki.

## Lagunarteko omenaldia

Miguel Okina oso maitatua da Bergaran, margolari moduan eta baita pertsona moduan ere. Ezagutzen dutenek haren alaitasuna, umorea eta gertutasuna azpimarratzen dute.

**JUAN LUIS BIKUÑA**
OKINAREN LAGUNA

"Miguel Okina eta Joxemari Iparragirre antzerakoak dira: artista hutsak, izugarri handiak. Miguelek esaten zuen, gora begira, 'irudimena boterera'. Sekulako lana egin du eta eskertzekoa da bergarar guztientzat egin duena".

**JUANJO ALTUNA**
BEART

"Oso margolari berezia da niretzat eta pertsona oso alaia, gainera. Margolari moduan Bergarako eskolako ezaugarriak ditu, argi eta garbi: pintzel eta paleta oso garbia, inpresionista oso ona eta erretratu bikainak".

**MIGUEL LAZPIUR**
OKINAREN LAGUNA

"Margolari aparta eta pertsona are hobea. Bere umiltasuna azpimarratuko nuke. Bere lagunen lagun oso zintzoa da. Pintura figuratiboan, espezialitate guztietan nabarmendu da. Ezagutu dudan paisajistarik onena".

# Jardunek urte amaierako jaialdia egingo du gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan

**A.B.** | BERGARA

Jardun Euskara Elkartean ere iritsi dira kurtso amaierara eta neska-mutikoek, orain, ikasturtean zehar ikasitako guztia erakusteko aukera izango dute. Gaur, egubakoitza, urte amaierako jaialdia egingo dute Zabalotegi aretoan, 18:00etan. Jardunek antolatzen dituen ekintza eta ikastaroetan landutakoa ikusteko aukera izango da. "Dantzak, bertsoak eta antzerkia egongo dira, besteak beste. Horrez gain, euskara errefortzuko taldekoek bideo bat prestatu dute eta hori ere ikusiko dugu", azaldu dute Jardunetik. Herritar guztiak gonbidatuta daudela gogorarazi nahi izan dute.



Joan den urtean Munibe plazan egin zuten urte amaierako jaialdia. | JARDUN EUSKARA ELKARTEA

**ANTIA**
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

**BEHEKO TABERNA**
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

**disdira**
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

**Promozio berezia inaugurazioagatik**
%10eko deskontua produktu guztietan, txartel hau aurkeztuta*




- *Sendabelarrak*
- *Dietetika*
- *Kosmetika naturala*
- *Elikagai biologikoak*
- *Zereal biologikoak soltean*

---
- *Pisuaren kontrola*
- *Kontsulta naturista*

Bidekurutzeta 20
**BERGARA**
Tel.: 943 76 29 27

*Uztailaren 31ra arte baliagarria

# Bihar hasi eta astebetez jai giroan ibiliko dira San Antonion

## Auzoko ume, gazte eta nagusiendako jaiak antolatu dituzte aurten ere

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Pentekoste jaietako biharamuna pasatu berri den arren, San Antonio auzoan festari eta parrandari ekingo diote datozen egunotan berriro ere.

Bihar, zapatua, 15:00etan, karpako tabernaren irekierarekin hasiko dituzte jaiak. Ondoren, dagoeneko klasiko bihurtzen ari den San Antonio Saria-Honorario Agirregabiri txirrindulari lasterketa jokatuko da. 18:30ean egingo dute trofeo banaketa.

Iluntzean, bestetik, bederatziurrena egongo da auzoko elizan (nobena) eta 20:30ean sardina-jana egingo dute plaza txikian. Arratsaldean eta iluntzean musika egongo da giroa alaitzeko.

**Eguaztenean berriz**

Hiru eguneko atsedenaren ostean, eguaztenean festa giroa izango da berriro ere auzoan. 19:00etan kanpai hotsak entzungo dira auzoan eta 19:30ean, berriz, buruhandiak irtengo dira kalera auzoko txikitxoenendako. San Antonio bezperako ospakizunak amaitzeko, bederatziurrena egongo da auzoko elizan.

Eguena izango dute auzoko eguna: San Antonio eguna. 11:00etan meza egingo dute txistulariekin eta ondoren, San Joxepe elkarteko abesbatzak kontzertua eskainiko du. Erretiratuen emanaldiaren ostean, luncha egongo da. 18:30ean buruhandiak egongo dira eta 20:00etan, bederatziurrena.

**Datorren asteburuan gehiago**

San Antonio auzoko jaiek astebete luze iraungo dute, datorren asteburuan ere jaiek jarraitu egingo dute-eta. Zapatuan, hilak 15, 12:00etako mezaren ostean karpako taberna irekiko dute berriro ere eta pintxoak eta salda banatuko dituzte auzotarrendako. Auzoko txikitxoenek, bestetik, zezentxoak eta poneyak izango dituzte jolas egiteko.

Zapatu egunerdian auzotar guztiak mahaiaren bueltan elkartuko dira. Hain justu ere, herri bazkaria egingo dute auzoko plazoletan. Musikaz girotutako jatordua izango da. Arratsalde osoan DJ Angi arduratuko da auzotarrak dantzan ipintzeaz. Bazkarira joan nahi dutenek honako tokietan eman behar dute izena: Cristina estankoa, Hiru Bide jatetxea eta Gure Ametsa elkartea.

Bazkalostean, 18:00etan, kukaña eta buruhandiak irtengo dira kalera.

Jaiak domeka goizeko dianarekin amaituko dira.

### Musika Eskolak batzar nagusia egingo du ekainaren 11n

Bergarako Musika Eskolak urteko ohiko batzar nagusia egingo du datorren martitzenean, 19:30ean. Aurreko bilerako akta irakurri eta onartu ostean, 2012-2013 ikasturteko datu akademikoak eta egitasmoak azalduko dira. 2011-2012-ko emaitza ekonomikoak ere emango dituzte. Horrez gain, zuzendaritza batzordeko kide berriak aukeratuko dituzte.

### Jon Idigorasen eta Maite Arriagaren ikastaroak, Beartek antolatuta

Jon Idigoras akuarelistak artelan baten prozesu kreatiboa erakutsiko du ikastaro monografiko batean. Ekainaren 22an izango da, 10:00etatik 13:30era. Maite Arriagak, bestetik, 19 orduko ikastaroa eskainiko du giza irudiaren marrazketaren gainean. Interesa dutenek *beart.elkartea@gmai.com* helbidera idatzi behar dute.

### Pol Polekoen irteera Sabiñanigora hilaren 15ean eta 16an

Pol Pol Mendi Taldeak antolatuta, bi eguneko irteera egingo dute hurrengo asteburuan. Zapatuan, hilak 15, 06:00etan irtengo dira frontoitik. Pico del Aguila igoko dute eta domekan, berriz, Castiello de Jacatik Jacarako bidea egingo dute. Irteeran parte hartzeko 60 euro ordaindu behar dira.

# Herriko ikasleek eta udal ordezkariek hondakinen gaia elkarrekin aztertu dute

## Eskola Agenda 21 programaren barruan, ikasleek hainbat proposamen egin zizkieten udal ordezkariei



Ikasleak, osoko bilkuren aretoan, zinegotzien eserlekuetan. | BERGARAKO UDALA

A.B. | BERGARA

Bergarako gazteek politikari lanetan jardun zuten pasa den astean. Osoko bilkuren aretoan, zinegotzien eserlekuetan, aurpegi gazteak ikusi ahal izan ziren maiatzaren 29an. Agenda 21 heziketa programaren bitartez, udal ordezkariek eta herriko ikastetxeetako neska-mutikoek herriko egoera aztertu zuten, garapen iraunkorraren ikuspuntutik. Joan den astean egindako osoko bilkura berezian, egoera aztertzeaz gain, gazteek proposamenak ere egin zizkieten udal ordezkariei Bergaran ikusten dituzten arazoei konponbidea emateko. Politikariek ikasleek egindako proposamen bakoitzari erantzun zioten eta etorkizunari begira Bergarako Udalak dituen asmoen berri ere eman zuten.

**Hondakinen diagnostikoa**

Eskola Agenda 21 programaren barruan, ikasturte bakoitzean garapen iraunkorrarekin loturiko gai baten azterketa egiten dute Debagoieneko ikastetxeetan. Bukatzear dagoen 2012-2013 ikasturtean hondakinen gaineko diagnostikoa landu dute. Hori horrela, joan den astean, herriko egoera hobetzeko Bergarako ikasleek hartzen dituzten konpromisoak aurkeztu zituzten udalbatzan: hondakinak gaika sailkatzea, bildukin gehiegi dituzten produktuak saihestea, arraina eta haragia erosteko orduan tupperrak erabiltzea eta Udalak martxan dituen konpost kanpainetan parte hartzea.

Herriko hezkuntza komunitatearen eta Udalaren arteko elkarlana ezinbestekoa izan da proiektua modu eraginkorrean aurrera eraman ahal izateko. Bada, Bergarako Udalak "zorionik beroenak eta eskerrik handienak" eman nahi izan dizkie proiektuan parte hartutako guztiei.

DATUA

**1.000**

IKASLE INGURU

**Ikastetxe guztietako 1.000 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte aurten Eskolako Agenda 21 heziketa programan.**

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

TXIPI
Leiho isolatzaileak
PVC, aluminioa, beira, egurra
Aitor Zabaleta Agirre
Tellería 21 - C-1 Pab
BERGARA
E-posta.: txipi@txipi.com
www.txipi.com
606 58 18 10 - www.txipi.com

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono, 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA


Los Bonitos del Norte taldeak bihar egingo du kontzertua. | GOIENA

# Askotariko ekitaldiak izango dira gaztetxearen 13. urtemugan

▶ Gaur hasi eta hilaren 16ra arte izango dira, gehienak gaztetxean

▶ Bigarren eskuko gauzen azoka eta herriko artisten erakusketa egongo dira

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Gaztetxeak 13 urte bete ditu aurten, dagoeneko, kartzela zaharrean, eta, hain zuzen, urteurren hori ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte gaur, egubakoitza, hasi eta ekainaren 16ra arte gaztetxeko kideek.

**Erakusketa, gaurtik**

Ekintzei hasiera emateko pregoia irakurriko dute gaur, 19:00etan eta aipatzekoa da, 21:30etan herriko artisten lanekin osatutako erakusketa irekiko dutela; *Txinbo*, Gari, Beñat eta *Azkaiter*-ek egindako lanen erakusketa.

Azpimarratzekoak dira, era berean, astean barrena egongo diren hiru hitzaldiak. *Bizitoki: Hezkuntza alternatiba* delakoan umeak hezteko beste modu batez egingo dute berba; horrez gain, maputxeez eta emakumeaz eta kartzelaz ere arituko dira.

## URTEMUGAKO EGITARAUA

**EGUBAKOITZA, 7**

**19:00** Pregoia.

**19:30** *Salda badago* ikuskizuna.

**21:30** Herriko artisten erakusketa.

▶ Gero, afaria.

**22:30** Bertso musikatuak.

**ZAPATUA, 8**

**09:00 edo 11:00** Ibilaldia: *Kanalen xenda* (09:00etan gaztetxean, 11:00etan, Gorlan).

**16:00** Xake txapelketa.

**22:30** Kontzertua: Endemaño eta Los Bonitos del Norte (2 euro).

**DOMEKA, 9**

**12:00** Hitzaldia: *Bizitoki: hezkuntza alternatiba*.

▶ Gero, luncha.

**16:30** Bisita gidatua kartzela zaharrean.

**MARTITZENA, 11**

**16:30** Hitzaldia: *Maputxeak*.

**19:00** Kontzertua: Los Discolos eta Ez (2 euro).

**EGUAZTENA, 12**

**18:00** Zibergararen aurkezpena.

**EGUENA, 13**

**17:00** Hitzaldia: *Emakumea eta kartzela*.

▶ Gero, pintxo-poteoa.

**EGUBAKOITZA, 14**

**18:00** *Angiolillo*, auzolanean egindako liburuaren aurkezpena. Aitor Arantzabal testuaren egileaz gain, Koldo Izagirre idazlea ere egongo da. Flay Shit taldeak musika ere jarriko du.

**21:00** Tripa festa.

**22:30** *Ta oin zer?* antzezlana.

**ZAPATUA, 15**

**10:00** 2. eskuko azoka, kalean.

**12:00** Pati poteo mozorro musikatua.

**14:30** Bertso bazkaria (8 euro).

**18:00** Elektropoteoa.

▶ Gero, *Fan Hemendik!* elkarretaratze solidarioa.

**22:30** Txapa jaia kontzertua: Zakilers eta Sermonds (5 euro).

▶ Gero, Elvis Caino.

**DOMEKA, 16**

**16:00** Garbiketa jolasak.

**18:00** Tailerra: Maitasun erromantikoa.

# Udaberriko 25. kontzertua bihar Udal Pilotalekuan

Zenbait taldetan banatuta, eskolako 400 ikasle inguruk hartuko dute parte emanaldian

**M.B.** | BERGARA

Urtero moduan, ikasturtea amaitzearekin batera udaberriko kontzertua egingo du Bergarako Musika Eskolak; 25.a. Bihar, ekainak 8, izango da, 19:00etan, Udal Pilotalekuan. Horrekin batera, 18:30ean kalejira egingo dute trikiti taldearekin eta kontzertuaren ostean, berriz, afaria, Udal Pilotalekuan.

Kontzertuan eskolako zenbait taldek parte hartuko dute: hasiberrien abesbatzak, Suzuki taldeak, akordeoi taldeak, txistu taldeak, trikitilari taldeak, orkestra sinfonikoak, gazte bandak eta haurren abesbatzak. Bukaeran, guztiek elkarrekin *tutti*-a eskainiko dute. Sarrerari dagokionez, 2 euro ordaindu beharko dute haurrek eta 4 euro nagusiek.

**Bederatzi talde arituko dira**

Suzuki taldeak irekiko du kontzertua eta lau doinu eskainiko dituzte. Akordeoi orkestraren txanda izango da gero eta bi abesti joko dituzte. Hasiberrien abesbatza, txistu taldea, orkestra sinfonikoa, haurren abesbatza, soka taldea, trikiti taldea eta gazte banda etorriko dira gero.

**Azkeneko 'tutti'-a**

Kontzertuaren bigarren zatian, emanaldiaren lehen tartean parte hartu duten talde guztiak arituko dira elkarrekin, eta horiei guztiei musika tailerreko eta hizkuntza musikaleko ikasleak ere gehituko zaizkie. Amaierako *tutti*-an hiru obra eskainiko dituzte, Alberto Laskurainen zuzendaritzapean: Korrontziren *Panderotxoa*; Mikel Urdangarinen *Badira hiru aste* –Xabier Barriolak eta Alberto Laskurainek moldatuta–; eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek Bergarako Musika Eskolarendako konposatutako martxa.

## 'Ali Baba eta 40 lapurrak' antzezlana domekan Zabalotegin

*Ali Baba eta 40 lapurrak* ipuin ezagunaren egokitzapen arin eta azkarra moldatu du Borobil Teatro taldeak, 4 urtetik gorako neska-mutikoendako.

Hain zuzen ere, hiru aktorek kontatuko dute Ali Baba egurgin txiroaren istorioa, dekoraturik gabeko agertoki soil baten. Hain zuzen ere, Anartz Zuazua, Asier Sota eta Julen Vega dira hiru aktoreak. Zuzendaria, berriz, Anartz Zuazua da. Emanaldia domekan izango da, arratsaldeko seietan, Zabalotegi aretoan, eta sarrera lau euro ordaindu beharko da.

## Gazteendako Circus Day jaialdia antolatu dute kale hezitzaileek

Kale hezitzaileek Circus Day jaia antolatu dute gaurko, egubakoitza. 17:00etan hasiko da Ipintza institutuko patioan eta 11 eta 18 urte arteko gaztetxoei zuzenduta dago. Gauza asko egongo da egiteko jaialdiaren barruan: futbola, grafitiak, musika, eskujokoak, margo tailerra eta beste egongo dira. Kale hezitzaileek urtean behin antolatzen dute jaialdi hori, helburu bikoitzarekin: "Gurekin normalean dihardutén gazteek, zein guk geuk, beste gazte batzuekin harremana egiteko eta arratsalde atsegina igarotzeko".

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

# Beste igogailu bat jarriko dute aurten San Lorentzo auzoan, hirugarrena

Maiatzean egindako osokoan hartu zuen erabakia udalbatzak, aho batez

OIHANA ELORTZA | OÑATI

San Lorentzo auzoan beste igogailu bat jarriko dute. Horixe onartu zuen udalbatzak, aho batez, maiatzaren 29an egindako osoko bilkuran.



Hirugarren igogailua jarriko duten plazatxoa. | O.E.

**Aldapa tabernaren ondoan**

Egingo duten igogailua San Lorentzo auzoan egongo den hirugarrena izango da, eta auzo horren irisgarritasun lanen barruan kokatzen dira lanak. "Aldapa tabernaren ondoan dagoen plazatxoan jarriko da hirugarren igogailua. Bi aukera zeuden, arrapala edo igogailua jartzea. Arrapala jarriz gero, altuegia litzateke, eta horregatik erabaki da igogailua jartzea", azaldu du Iñaki Landak, Oñatiko Udaleko arkitektoak.

San Lorentzo auzoaren irisgarritasun lanen barruan hainbat eginbehar eta fase daude aurreikusita. "Irisgarritasuna bermatzea da helburua, eta hori kontuan izanda ari dira egiten faseak", zehaztu du Landak.

**Urtea bukatu aurretik**

Maiatzeko osoko bilkuran onartu zuten udal ordezkariek igogailua jartzea, eta orain, hori egiteko prozesua abiarazi dute. Tartean, gune horretan dagoen garaje pribatu baten desjabetzea. "Igogailuak egun garaje bat dagoen tokian jarriko da, eta desjabetze prozesua hasiko da orain. Jabekide guztiek erabiltzen duten gune orokorrean ere egingo dira lan txiki batzuk, kableak pasatzeko, adibidez", dio Landak.

Oraindik ez dago jakiterik noiz hasi eta noiz bukatuko dituzten lanak; dena dela, Udalaren asmoa da aurten egitea lanak, urtea bukatu aurretik.

**Hirugarrena**

Aurten egingo duten igogailuarekin, guztira, hiru egongo dira San Lorentzon. Lehenengoa Artxubi taberna paretik goiko plazatxora doana da; bigarrena, lehen plazatxotik gora doana, Arendui fruta-denda parera. Puntu horretatik goiko plazatxora joateko arrapala dago eginda. Hirugarren igogailua egiten dutenean, San Lorentzo auzoko barrenetik goraino eskailerak igo barik joateko modua egongo da.

San Lorentzoko eta Errekaldeko irisgarritasun lanak eginbeharreko lan garrantzitsuenen artean ditu udalak azken urteetan eta auzo biak konpontzen dihardute, faseka. Auzo bietan irisgarritasuna bermatzea da egiten ari diren lanen helburua.

# Etxerako produktuak txartel truke Txandarekin

'Etxearen hilabetea' da ekaina Txandarendako eta 30 euroko 40 txartel zozkatzen dihardu

O.E. | OÑATI

*Etxearen hilabetea* izeneko eskaintza egin gura die Txandak herritarrei hilabete honetan. Honela, dirusariak zozkatuko ditu bezeroen artean etxerako produktuak saltzen dituzten herriko dendetan gastatzeko.




Ekaineko eskaintza iragartzen . | O.E.

**Txanda txartelarekin**

Ekainerako prestatu duen eskaintza, gainera, aurten Txanda txartelarekin egingo duten lehen promozioa izango da.

Hilabete honetan, beraz, erosketak Txanda txartelarekin ordaintzen dituenak dirusariak irabaz ditzake. Hain zuzen ere, 30 euroko balioa duten 40 txartel zozkatuko ditu Txanda dendarien elkarteak, erosketak elkarteko txartelarekin ordaintzen dituzten bezeroen artean. Saria irabazten dutenek etxerako produktuak saltzen dituzten Txandako dendetan trukatu beharko dituzte txartelak, eurek aukeratutako produktuengatik.

Guztira, herriko 11 denda sartzen dira ekaineko eskaintza honetan. Hauexek dira dendak: Maibi dekorazioak, Beloki iturgintza, Txantxiku elektrizitatea, Aranburu altzariak, Arregi tresna elektrikoak, Belar etxetresnak, Barue barne dekorazioa, Gelatzu zeramikak, Umerez iturgintza, Zelaia altzariak eta Pakita altzariak. 30 euroko balioa duten txartelak, beraz, 11 denda horietako edozeinetan trukatu ahal izango dituzte. Ekainaren 30a aurretik trukatu ahal izango dituzte, baina, betiere, merkealditik kanpo.

Izan ere, produktu onak kalitatezko zerbitzuarekin eskaintzen die Txandak herritarrei, eta eskaintza ezberdinak prestatu ohi ditu bezeroendako, euren dendetan dituzten produktuak ezagutarazteko eta bezeroei eurekin duten fideltasuna eskertzeko. Bada, ekaineko eskaintza *Etxearen hilabetea* izenekoa da.

## 2014ko Aratusteak prestatzeko bilera egingo dute martitzenean

O.E. | OÑATI

Datorren urteko Aratusteei begira lanean hasi da dagoeneko Oñatiko Inauterietako lantaldea. 2014ko Aratusteei "forma emateko, ideia, berrikuntza, kritika zein bestelako ekarpenak egiteko", lehen bilera irekia egingo dute datorren martitzenean, hilak 11, 19:30ean, kultura etxean.



Inauteriak 2013. | OÑATIKO INAUTERIAK

**Martxoak 1**

Bilera irekia izango da, eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Oñatiko Inauterietako lantaldeak jakinarazi duen moduan, "talde, eragile zein norbanakoen laguntza beharrezkoa" dela ikusten dute, eta bileraren deialdia zabala dela azpimarratu gura dute.

2014ko martxoaren 1a Aratusteetako zapatua izango da, 4a Aratuste-martitzena eta 5a Hausterre Eguna.

### Ekainaren 24an egingo dute San Martingo babes ofizialeko sei etxebizitzen zozketa

San Juan egunean egingo dute San Martin auzoko seigarren zenbakiko babes ofizialeko sei etxebizitzen zozketa, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Onartuen behin-behineko zerrendak Santa Anan eta udaletxeko iragarki taulan jarriko dira ikusgai. Udaleko webgunean ere zintzilikatu dituzte; 68 lagunen izenak jasotzen zitu zerrenda horrek.

### Donostiako onkologikoa ez pribatizatzearen aldeko mozioa onartu zuen Bilduk azken osoko bilkuran

Onkologikoa "kolokan" dagoela eta "zerbitzua ematen jarrai dezan" eskatzeko, presazko mozioa sartu zuen Bilduk maiatzeko osoko bilkuran. Bide batez, Osakidetzan sartzeko eskaera ere egin zuen. EAJk aurkako botoa eman zuen, argudiatuz "beti izan dela pribatua baina interes publikora bideratzen" duela zerbitzua, eta "Jaurlaritzak ez duela onkologikoa alde batera utziko".

### EGA euskara ziurtagiria lortzeko udako ikastaroa antolatu du aurten ere Oñatiko udal euskaltegiak

EGA ziurtagiriko bigarren deialdiari begira, udako ikastaroa antolatu du aurten ere Bedita Larrakoetxea udal euskaltegiak. Goizez emango dituzte eskolak, uztailaren 1etik 19ra eta irailaren 2tik 6ra. Atariko probaren eguna irailaren 21ean izango da. Uztailaren lehen hamabostaldian egongo da zabalik matrikulazio epea; urte barruan 17 urte edo gehiago izatea beharrezkoa da.

### 'Azken egunak Gurian' dokumentala ikusteko beste bi aukera gaur iluntzean zinema aretoan

*Azken egunak Gurian* dokumentala ikusteko bi aukera egongo dira gaur, egubakoitza; 18:45ean lehenengoa eta 20:00etan bigarrena. Lehen emanaldian izan zuen arrakasta ikusita eta herritarrek eskatuta, Aitor Arregik zuzendutako lana berriro ematea erabaki dute. Gaur izango da, eta bi emanaldi egongo dira.

MENUAK
Astegunetan
Eguneko menua:
11,10€ + BEZa
Asteburuko menu berezia
sasoiko produktuekin egina
Berezitasuna: arraina
23€ + BEZa
Egunero: Karta zerbitzua.



URTIAGAIÑ JATETXEA
Uribarri auzoa 33. Arantzazuko bidea. OÑATI
943 78 08 14 - 943 78 31 35

# Azken 10 urteetako argazkiak bildu gura ditu Ganbara Txikik

## Erakusketa egingo du sortu zenetik gaurdainoko material grafikoarekin

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Ganbara Txiki abesbatzak 10 urte beteko ditu datorren ikasturtean, eta orain arte egindako ibilbidearen material grafikoa bildu gura du. Horregatik, eskaera egiten die herritarrei 10 urte hauetan ateratako argazki edo grabatutako bideoak izanez gero eurei helarazteko.


Ganbara Txikiri 2007an ateratako argazkia. | GOIENA

**Argazkiak eta bideoak**

Ganbara Txikiri 10 urte hauetan egindako argazkiak edo bideoak jaso gura dituzte, abesbatzaren lehen hamarkadaren laburpen grafikoa egiteko. "Abesbatzari buruz egindako albiste, elkarrizketa eta antzerakoak, prentsan jasotakoa, gordeta dugu gure artxiboan. Baita geuk ateratako argazkiak ere, baina ahalik eta gehien jaso gura ditugu. Badakigu abeslarien senideek argazkiak atera ohi dituztela gure emanaldietan, eta horiek ere lortu gura ditugu", dio Ganbarako zuzendari Aitor Biainek.

Emanaldietako argazki eta bideoak ez ezik, bestelakoak ere ikusi gura dizute. "Adibidez, egin ditugun irteeretan ateratakoak, autobusean goazela edo bazkaltzen ari garen bitartean ateratakoak. Argazkiak ez dute zertan izan behar emanaldietan ateratakoak, baizik eta Ganbara Txikik azken hamarkadan bizi izan dituen momentuetan ateratakoak. Eta hor sartzen dira, noski, egindako entsegu, irteera, autobus, barre, negar, bilera, bazkari ... eta antzerakoak", zehaztu du Biainek.

**Erakusketa berezia**

Batutako materialarekin erakusketa bat egin gura dute. "Baina erakusketa berezia egin gura dugu, ez argazki erakusketa soila. Multimedia proiekzioak ere egin gura ditugu", jarraitu du azaltzen Aitor Biainek.

Erakusketa noiz egingo duten ez dute oraindik zehaztu, baina irailera bitartean jasoko dute materiala. Argazkirik edo bideorik duen edozein herritarrek, Ganbarak Errekalden duen egoitzara eraman dezake, edo *idazkaritza.ganbaratxiki@gmail.com* helbidera bidali.

### IKASTURTE BUKAERAKO KONTZERTUAK

**EKAINAK 8**

**19:00:** Ikastetxeak Kantari egitasmoko saioa. Hiru ikastetxeetan sortu diren abesbatzen kontzertua. Ganbara Txikitxoak ere parte hartuko du martxoan antzeztutako 'Xomorroak' musikala eskainiz. Santa Ana antzokian da emanaldia.

**EKAINAK 21**

**22:00** Ganbara eta Ganbara Gazte abesbatzen kontzertu berezia dukearen jardinetan. Doan izango da, baina gonbidapenak hartu behar dira aurrez, 200 lagun baino ez direlako sartuko. Eguraldi txarra eginez gero, Unibertsitateko klaustroan izango da emanaldia.

**EKAINAK 22**

**19:00** 'Tiempo' ipuin musikatua egingo dute Ganbara Txiki eta Ganbara Txikitxo abesbatzek. Santa Ana antzokian izango da kontzertua. Josu Elberdinena da lana .


Ikasle eta irakasleak ortuan joan den martitzenean. | T.M.

# Elkar Heziko baratze proiektua hasi da fruituak ematen

**TXOMIN MADINA** | OÑATI

Elkar Heziko 3, 4 eta 5 urteko neska-mutikoek baserritar lanak ere egiten dituzte. Ortua dute ikastetxean eta horixe elikatzen eta zaintzen dabiltza ikasturtean zehar. Ingurumenarekiko begiruneaz gainera, beste hainbat alor ere lantzen dituzte bertan.

**Loreak eta barazkiak**

Elkar Heziko ikasgela berri horrek ez du paretarik, ezta ate edo arbelik ere. Aurten jarri dute martxan, besteak beste, Debagoieneko landa garapeneko elkartearekin elkarlanean, eta dagoeneko ari da fruituak ematen. Loreak eta barazkiak dituzte landatuta, gehienbat, baina ortuak baditu beste biztanle txiki batzuk ere. Beste hainbat esparru lantzeko ere balio die ortuak. Martitzenean, esaterako, lursaila neurtzen ibili ziren. Izan ere, proiektu horretan, talde-lana eta jarduera ikertzailearen zentzua ere garatzen dute.

Ikastetxean irakasleekin batera aritzen dira ikasleak baserritar jardunean, baina gurasoen inplikazioak ere pisua du proiektuan. Oraingoz, 3 eta 5 urte bitarteko ikasleak dabiltza, eta, itxura guztien arabera, gainera, oso gustura.

# 'Afrika Beltza' erakusten duten lanak daude kultura etxean

## Arantzazuko Adiskideek eta Tau Fundazioak antolatu dute erakusketa, Afrika erakusteko

**O.E.** | OÑATI

Filmak, mahai-ingurua, antzerki eta musika ikuskizuna eta bestelako ekintzak antolatu dituzte Tau Fundazioak eta Arantzazuko Adiskideak elkarteak, "Afrika ikusarazi eta gerturarazi" gura dietelako gizarteari. Bihar, zapatua, egingo dituzte ekitaldi gehienak, Arantzazun, bazkaria barne. Oñatiko kultura etxean, baina, *%100 Afrika Beltza* izeneko erakusketa dago zabalik.

**Kongo, Angola eta Kanbia**

Pinturak eta eskuz egindako irudiak daude erakusketa horretan. Lanen artean daude, adibidez, Boli Kostako fetitxe sakratuen irudiak, Angolako emakumeak lanean irudikatzen dituzten egurrezko eskulanak, Kenyako masaien nagusiaren irudia, Mozambikeko hiritarrak nolakoak diren irudikatzen dituzten irudiak, Malawiko maskarak, Kongoko egurrezko krokodilo eta hipopotamoak edo Gambiako musika instrumentuak. Angolako, Liberiako eta Sierra Leonako paisaiak eta bizimoduak jasotzen dituzten margoak ere badira erakusketan. Hilaren 15era arte egongo da zabalik, egunero.


Costa de Marfileko fetitxe sakratuak. | ANE JAUREGI

### Diskoa aurkeztuko du gaur El Trio Calavera taldeak gaztetxean

El Trio Calavera talde oñatiarrak *La rumba ratonera* izeneko diskoa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Antixena gaztetxean. Gauean izango da aurkezpena, 22:00etan hasiko den zuzenekoan. Kontzertua ikusteko sarrerak hiru euro balio du eta taldearen disko berriaren CDa ere eskuratu gura izanez gero, bost euro.

### Blues-rock doinuak entzungai iluntzean Pako tabernan

Getxoko Last Fair Deal taldeak blues-rock doinuak ekarriko ditu gaur iluntzean Pako tabernara. 2005ean sortutako taldea da Last Fair Deal, eta gustukoak dituzten kantuak jotzeko elkartzen dira taldeko hiru kideak, betiere, rock-and-roll, blues eta rhythm-and-blues esparruan. 2011n kaleratu zuten lehen lana. 19:30ean da kontzertua.

### Cesar Manzanos dator Fan Hemendik-ek antolatutako hitzaldira

Cesar Manzanos Salhaketa elkarteko kideak hitzaldia egingo du datorren martitzenean, hilak 12. Polizia ereduari eta antimilitarismoari buruz jardungo du kultura etxean, 19:00etan. Hitzaldia Fan Hemendik taldeak antolatu du, datorren astean, hilaren 15ean egingo den I. Alde Hemendik egun nazionalaren harira.

### EZ! taldeak Arrano tabernako elkartean joko du bihar gauean

Oñatiko EZ! taldeak Arrano tabernako elkartean joko du bihar, zapatua, 22:00etan. Arrano elkarteak 30 urte betetzen ditu aurten eta urteurren horren harira antolatutako kontzertua da. Ekainean, uztailean eta irailean hainbat ekitaldi egingo dituzte 30. urteurrena ospatzeko, eta horietan lehena izango da biharko kontzertua.

### Auzoko jaiak ospatuko dituzte domekan Gogobizkarren

Gogobizkar auzoan jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan. Domekan, hilak 9, egingo dituzte aurtengo jaietarako prestatu dituzte ekitaldi guztiak. 11:00etan meza egingo dute Jesusen Bihotza ermitan eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute joaten direnen artean. Trikitilariak ere egongo dira meza osteko lunchean.

# Corpusetako eskubaloi txapelketa bihar izango da

## Zazpigarrenez antolatu dute; Hego Euskal Herriko selekzioek jokatuko dute

GUREN AUZMENDI | OÑATI

Aloña Mendiko eskubaloi sailak antolatutako aurtengo Corpusetako lehiaketa bihar izango da, ekainaren 8an. 09:30ean hasiko da lehenengo partidua, Zubikoa kiroldegian. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako selekzioek hartuko dute parte.

Corpusen bueltan antolatzen den eskubaloi torneoa zapatu goizean hasiko da. Zortzi taldek parte hartuko dute, herrialde bakoitzeko neskek eta mutilek. Kantxan, kanpoko kirolariez gain, izango da herriko jendea ikusteko aukera ere; esaterako, Alaitz Lazkanoiturburu, Alaitz Atxa eta Eider Ibarrondo oñatiarrek Gipuzkoako selekzioarekin jokatuko dutela esan dute Aloña Mendikoek. Lehenengo partiduak 09:30ean hasiko dira. Goizeko lehiak bi txandatan banatuta egingo dituzte. Lehenengo, talde bakoitzak partidu bana jokatuko du. Gerokoak emaitzen araberakoak izango dira. Bazkaldu aurreko azken norgehiagoka 14:00etan da; gero, guztiek Pago Uso elkartean bazkalduko dute. Arratsaldean, 15:30etik aurrera jokatuko dituzte finalak eta hirugarren eta laugarren postuak. Sari banaketa, bukatzeko, 19:30ean izango da kiroldegian bertan.


Jokalariak erasoan, 2011ko txapelketan. | ALOÑA MENDI

Antolatzaileek, Corpusetako txapelketarekin, Hego Euskal Herriko jokalariei eroso jokatzeko moduko eguna prestatu gura izaten diete. Izan ere, ia denboraldi osoan talde ezberdinetan banatuta jokatzen dute. Selekzioetan bilduta, lau herrialderen artean jokatzeko aukera Corpusetako txapelketan dute gazteek.

Aurten, guztira, 160 lagun elkartuko direla uste dute. Lehenengo urteko infantilekin osatuta egongo dira taldeak: neskenak eta mutilenak.

**15ean, beste partidu bat**

Larunbateko txapelketaz gain, Aloña Mendiko eskubaloi sailak beste norgehiagoka bat antolatu du Zubikoan ekainaren 15erako. Kasu horretan, kadete mailako selekzioak izango dira: Kantabriakoa eta Euskadikoa.


ALOÑA MENDI

# Dominak Aloña Mendikoentzat

Maiatzaren 25ean Durangon jokatu zen Euskadiko kirol eskolen txapelketa; Aloña Mendiko karate saileko gazteak hantxe izan ziren. Landakoko kiroldegira klubeko zortzi kirolari joan ziren, denera, eta emaitza onak ekarri zituzten: bi domina. Infantiletan, Imanol Astudillok hirugarren egin zuen kumitean, 40 kilotik beherakoen artean. Joakim Egañak ere hirugarren postua lortu zuen maila berean, 60 kilotik gorakoetan. Klub oñatiarreko arduradunak oso pozik agertu dira Durangon gazteek egindako lanarekin.

# DBH mailako 75 gaztetxok udaberriko txapelketa jokatuko dute gaur

O.E. | OÑATI

DBH maila ikasten ari diren herriko 75 neska-mutikok 40. udaberri txapelketa jokatuko dute gaur, egubakoitza. Saskibaloian, floorballean eta raid kulturalean hartuko dute parte. Foruen plazan eta herriko frontoian lehiatuko dira, 16:00etatik 20:00etara.

Saskibaloian, esaterako, 21 talde lehiatuko dira, hirukoan; floorballean 12 talde, seikoan; eta raid kulturalean, sei kideko 12 talde.

**LHkoen jaia, 14an**

Lehen Hezkuntzan ari diren gaztetxoen jaia eta sari banaketa hilaren 14an izango dira.




Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu
EGUN BATEAN
hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.
Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.

SANER
Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETA

# Andramaixetarako esaldi eta irudi bilaketa martxan

## Esaldi eta kartel lehiaketak antolatu ditu Udalak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Andramaixak bereziak dira aretxabaletar askorentzako eta pare bat hilabete besterik ez da geratzen herria festetan murgiltzeko. Abuztuaren 14an, 15ean, 16an eta 17an izango dira jaiak eta dagoeneko hasi dira antolaketa lanak.



Andramaixen hasiera, 2012an. | GOIENA

**Esaldiak jai osasuntsuen alde**

Jaietako esaldia aukeratzeko lehiaketa martxan da, esaterako. Udaleko Gizarte Zerbitzuko Myriam Beltran de Heredia Prebentzio teknikariak aurten jarraitu beharreko gaiaz egin du berba: "Gai bakarraren ingurukoak izan behar dute aurkezten diren esaldiek; jaiak neurri onean pasatzera gonbidatu behar da, festa osasuntsu baten aldeko mezua zabalduz. Orain arte ere eskatzen genituen halako esaldiak, baina, beste gai batzuk aukeran ematen zirenez, ez ziren askorik aurkezten".

Lehiaketan 12 urtetik gorako edozein aretxabaletar edo taldek har dezakete parte eta gura beste esaldi aurkez ditzake bakoitzak, gainera. Bi sari emango dituzte: batetik, egitarauan agertuko den esaldiaren egileak 120 euro jasoko ditu eta pegatinak egiteko erabiliko diren esaldien asmatzaileentzat 60 euro egongo dira. Lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 28a izango da.

**Jaietako irudi bila**

Baina Andramaixak iragartzeko esaldiak bilatzeaz gain, jaietako kartela hautatzeko lehiaketa ere deitu du Udalak. Sariketan edozeinek har dezake parte, eta, estiloari dagokionez, teknika librea erabili ahal izango da. Derrigorrezkoa bertan agertu beharko den esaldia da: *Andramaixak 2013. Abuztuaren 14a, 15a eta 17. Aretxabaleta.*

Kultura teknikari Inma Miguelek aditzera eman duenez, 200 euroko saria emango diote kartel irabazlearen egileari. Uztailaren 4a baino lehen eraman beharko dira lanak Arkupera edo udaletxera.

Uztailaren 8an emango du epaimahaiak erabakiaren berri. Egun berean jakingo da, baita ere, esaldi lehiaketan nork irabazi duen.

**Gazteek bilerak**

Aretxabaletako Gazte Ekimeneko kideak ere Andramaixetako egitaraua prestatzen hasteko bilerak egiten hasi dira. Orain arte hiru egin dituzte eta 30 lagun inguruk hartu dute parte, aditzera eman dutenez.

"Oraingoz, jaiak hilaren 13an hasiko ditugula eta abuztuaren 17an Zopilotes Txirriaos talde nafarra arituko dela aurrera dezakegu".

Egingo duten hurrengo bilera domekan, ekainaren 9an, izango da. Udaletxe zaharrean elkartuko dira, 19:00etan.

# Dantza eta batukada Kurtzebarri eskolako jaian bihar, zapatua

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Festa giroan elkartuko dira Kurtzebarri eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak bihar, zapatua, ikastetxearen jai handia egiteko. Etxafuego jaurtiketak emango dio hasiera jaiari (11:00), eta arratsaldera bitartean zer egin egongo da.

Askotariko ekintzak antolatu dituzte, eta, berritasunen artean, 50 guraso eta irakasle batukadan irtengo dira kalera. "Entseatuta, lagun horiek prest daude bihar herriko kaleak hartzeko. Gainera, euren arteko harremanak sendotzeko baliagarria izan da ekimena". Hala adierazi dute Kurtzebarri Eskolatik. Birritan arituko dira, 11:15ean Iralabarritik Gernika plazara eta bertatik Herriko Plazara, 12:15ean.

Goizean dantzak ere egingo dituzte ikastetxeko lagunek, tartean plazan egingo duten *Bihotzez ikasi* (12:15) zein *Eguzkiari agurra* (13:00) ikuskizuna. Luncha egongo da 12:30ean plazan, Gurabarri guraso elkarteak antolatuta.

**500 lagun bazkarian**

Goizeko ekintzen ostean indarberritzeko, Iturrigorrira joango dira guztiak eta 500 lagun inguruko mahaiaren bueltan bazkaria egingo dute, 14:15ean. Bazkalostean, gaztelu puzgarriez eta karaokeaz gozatuko dute.

# Emakumeak eta kirola batuta, argazki lehiaketa abiarazi dute

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Emakumearen Astea ardatz hartuta, argazki lehiaketa ipini dute martxan, Berdintasun eta Kirol sailetatik antolatu dute eta gaurtik martitzenera bitartean aurkez daitezke argazkiak, Arkupen.

"Berdin du argazkiak koloretan diren edo zuri-beltzean. Derrigorrez jarraitu beharreko gaia da; hau da, emakumeak eta kirolak presente egon behar dute aurkezten diren lan guztietan". Gura bezain zabal eta ireki landu dezakete parte hartzaileek gaia.

**Sari berezi eta guzti**

Lau sari egongo dira, guztira. Argazki onena egiten duenari 150 euro emango dizkiote, 100 euro bigarrenari eta 50 euro hirugarren sarituari.

Hiru horiez gain, antolatzaileek azaldu dutenez, sari berezi bat ere prestatu dute: "Gaur, ekainak 7, Emakume Biraren etapa bat hasi eta amaituko da Aretxabaletan". Hala, bertan ateratako argazkiak aurkez daitezke lehiaketara, eta epaimahaiak guztien artetik onena aukeratuko du. "50 euro emango dizkiote egileari".

# Txondorrak non egiten ziren jakiteko irteera etzi

## Loramendik antolatuta irteera egingo dute; ikazkintzaz gehiago ikastero aukera egongo da

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Txondorren ibilbidea egingo dute domekan Aretxabaletan. Loramendi elkarteko toponimia taldeak antolatu du irteera eta 09:00etan abiatuko dira plazatik. Etziko antolatu duten ibilbideak 15,5 kilometro izango ditu: "Mendiola aldetik jongo gara, Ugaztegi ingurura iritsi, eta handik Urkulu aldera. Txondorrez gehiago ikasiko dugu bidean".

**Ikazkintza oinarri**

Toponimia taldeko kide Jesus Osinaga asteburuko irteera antolatzen ibili da. "Orain arte lau ibilbide historiko antolatu ditugu, kaleetan, elizateetan... Lanbide zaharrak ardatz hartzea pentsatu genuen gero. Ikazkintza oinarri dugula, ibilbidean zehar Aretxabaletan ikatza non egiten zen ikusteko aukera egongo da".

**Laguntza garrantzitsua**

Ibilbidea prestatzeko orduan herriko hiru txondorgileren laguntza jaso dute Loramendiko kideek: Fermin Pasamar, Jose Luis Madinabeitia eta Antonio Urkia. "Gerra ostean ikazkintza bolada izan zen, eta zortea daukagu egiteko horretan aritu zirenetako batzuk bizi direlako". Euren zuzeneko testigantzari esker, Aretxabaletaren historiaz gehiago jakiteko aukera baitago, Osinagaren esanetan.

Herriko txondorlekuen kopurua ez da zehatza: "Beharra zegoen tokian egiten ziren txondorrak, eta, gainera, egurra zegoen tokitik ahalik eta gertuen, lana errazteko".

# Bizikletak konpontzeko ikastaroa Loramendiren eskutik

Aretxabaletako udaletxe zaharrean emango dute bizikleta konpontzeko ikastaroa datozen hiru astelehenetan, ekainaren 10ean, 17an eta 24an. Ikastaroa 18:30ean hasi eta 20:00etan amaituko da. Gaur, egubakoitza, izango da izena emateko azken eguna; 12 euro ordaindu behar dira; 10 euro, Loramendiko bazkideek.

# Datorren urteko Santa Ageda neska-mutilen bilera martitzenean

San Juan bezperako tantaia altxatu beharko dute aurten 2014an Santa Ageda neskamutilak izango diren aretxabaletarrek. Hori horrela, "dena ondo koordinatzeko eta elkarlana sustatzeko" bilera egingo dute Arkupen ekainaren 11n, martitzenean, 17:30ean hasita, eta guztiei dei egin diete Kultura Sailetik.



Z.V.D.M.

# Diru kontuez berbetan Basotxon

Basotxo erretiratuen elkartean dirua izan zuten ardatz martitzen arratsalderako antolatutako elkarrizketa mahaian. Bertaratutako gizon eta emakumeek diruaren hainbat alderdi jorratu zituzten Pedro Etxebarria saioaren gidariarekin batera. Besteak beste, dirua bera zer den, zertarako balio duen, bankuen eta gobernuen egitekoak zeintzuk diren eta beste izan zituzten berbagai.

# Antzezlan musikatuaren bidez munduari itzulia

## Gorakada taldearen eskutik 'Munduari itzulia' antzezlana etzi Zaraian, 17:00etan hasita

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Ordubete eskasean munduari buelta emateko aukera eskaintzen du Gorakada Teatro taldearen *Munduari itzulia* ikuskizunak. Julio Verne idazlearen obran oinarrituta dagoen lan entretenigarria domekan iritsiko da Zaraiara.

Musikak garrantzia dauka Gorakadaren antzezlan horretan; izan ere, melodien bidez ikusleek munduan zehar bidaiatzeko aukera izango dute, bai eta abentura ugari bizi izateko ere.

**Irudimenarekin bidaiatzen**

Zaraiara bertaratzen direnek, ikus-entzuteaz gainera, irudimena baliatu beharko dute domekako saioan, taula gaineko guztiak ez dira-eta izango diruditenak; maleta batek elefante bat irudika dezake edo barku bat izan daiteke, istorioaren arabera. Txotxongilo eta hezur-haragizko protagonisten abenturetan murgiltzeko aukera polita.



*Munduari itzulia* obraren une bat. | GORAKADA

## Txino-dantza, Aretxabaletatik Iruñera eta Eibarrera

Loramendiko neskek Ezpalak Dantza Tradizionalen Nazioarteko Jaialdian hartu zuten parte maiatz amaieran, Iruñean eta Eibarren. Txino-dantza egin zuten beste talde batzuekin batera –argazkian Norvegiakoekin–. Euskal Herriko taldeez gainera, besteak beste, Frantziakoek eta Kataluniakoek ere egin zituzten erakustaldiak.



RAMON ERAÑA

### Aretxabaletako Gaztelekuko ekaineko egitaraua prest dago

Aretxabaletako Gaztelekuak prest dauka hilabete honetako egitaraua. Asteburu honetan antzerkia izango dute oinarri: bihar antzezlan bat sortuko dute neska-mutilek eta domekan, berriz, antzezteko txanda izango da. Bestalde, papiroflexia tailerra egingo dute hilaren 15ean; mendira irtengo dira ekainaren 16an; zinema protagonista izango da hilaren 23an eta 30ean. Bestalde, hankapalo ikastaroa antolatu dute 28rako eta 29rako. Eguenetan berriz, sukaldaritza ikastaroa egiteko elkartuko dira Gaztelekuko kideak.

KATAIDE LEIHOAK

Aluminiozko eta PVC-zko metal-arotzen sistemen fabrikazioa eta instalakuntza

Aluminiozko eta PVC-zko leihoak • Pertsiana sinpleak eta segurtasunezkoak • Mallorkinak • Errezel hormak • Fatxada aireztatuak

EVE Ente Vasco de la Energia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Aprobetxa ezazu Eusko Jaurlaritzak abiarazi duen Renove plana.
1.000 eurorainoko dirulaguntzak zure leihoak aldatzeko.

Zatoz eta informa zaitez konpromiso barik.




Bulegoa / Erakusketa / Lantegia
Musakola 21, 8 Atea. 20500 Arrasate

Tel.: 609 55 61 54 - Faxa: 943 53 49 62
aurrekontuak@kataideleihoak.com
www.kataideleihoak.com

# Aste Zapatistaren jaialdia bi egunetan izango da aurten

Gaur umeendako ekintzak daude eta bihar, urteroko bazkaria eta kontzertuak

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Azken txanpan sartu da Eskoriatzako aurtengo Aste Zapatista. Aste barruko ekintzek harrera ona izan dute; eta gaur eta bihar, aisialdiarekin lotutako ekimenak egingo dituzte. Gaur arratsaldean umeak izango dira protagonistak: besteak beste, Mirta Agirrek maskara mexikarrak egiteko tailerra eskainiko du, 17:00etan; horrez gain, Luis Ezeizakoen laguntzarekin, bestelako tailerrak egingo dituzte. Huhezikoekin batera, berriz, aerobic saioa dago plazan.

Urtero moduan, Aste Zapatistaren 13. edizioari amaiera ematéko, jaialdi ederra gertatu dute zapaturako. Ekintzak 12:00etan hasiko dira, plazan, Patxi magoaren ikuskizunarekin. 14:30ean, janari mexikarra dastatuko dute herri bazkarian; txartelak salgai daude herriko tabernetan. Bazkaldu ostean, Patxi magoaren eta Rosa Sanchez abeslarien txanda izango da; eta 20:00etan, Potros Kukaratxas, Material Rechazado, Krisis eta Hobo musika taldeena.

**Janari bilketa**

Bestalde, aurten, lehen aldiz, ekintza solidarioa jarri dute martxan: Taldea kontziente da Euskal Herrian ere beharra dagoela, eta hori dela-eta, astelehena ezkero janaria batzen dabiltza, Bergarako Elikagaien Bankura eroateko. Gaur, 21:00ak arte eraman daiteke galtzen ez den edozein elikagai jarritako bost gunetan: Arizmendiko Jose Arana gunean, Luis Ezeizan, elizan, udaletxean eta kultura etxean.

Orain arte batutakoarekin pozik badago ere, Eskoitzako Talde Zapatistak "azken esfortzua" egiteko eta "behar dutenei" laguntzeko dei egin du.

**Eider Roa** | Energien gainean praktikak egiten dabilen arrasatearra

# "Argindarraren edo uraren fakturetan nola aurreztu azalduko diegu herritarrei"

Energia kontsumoa murrizteko kanpaina berriari hasiera emateko hitzaldia egingo dute hilaren 12an

**M.B.** | ESKORIATZA

Eguaztenean, hilak 12, *Nola aurreztu dirua zure etxeko fakturetan* hitzaldia eskainiko du Ibarraundin energiari buruzko praktikak egiten dabilen Eider Roa arrasatearrak. Hainbat gomendio eman dizkigu.



Eider Roa. | M.B.

**Zein da Ibarraundin eskainiko duzun hitzaldiaren mamia?**

Berbaldia bi zatitan egongo da banatuta: batetik, birgaitze energetikoaren bueltan dauden aukerak aztertuko ditugu; energia kontsumoa murriztu aldera, etxea zelan birgai dezakegun zehaztuko dugu. Eta bestetik, energia kontsumoa aurrezteko etxean har ditzakegun ohiturak azalduko ditugu; bereziki, argindarrarekin eta urarekin lotuta daude horiek. Bi hitzordu daude: 18:30ean gazteleraz izango da berbaldia eta 19:30ean, euskaraz.

**Elektrizitateari dagokionez, zernolako aholkuak emango dituzu?**

Betikoak dira eta ezagutzen ditugu, baina askotan ez ditugu aplikatzen: esaterako, gelatik irteterakoan argia itzaltzea, baina fluoreszentea baldin bada eta kanpoan hamar minutu baino gutxiago egon behar baldin badugu, ez itzaltzea. Bestetik, *stand by* moduan dauden aparailu guztiak itzaltzea, janaria epel sartzea hozkailuan eta kontsumo txikiko bonbillak erabiltzea.

**Eta urarekin lotutakoak?**

Horiek ere ezagunak dira: hortzak eta eskuak garbitzerakoan txorrota ixtea edo txorrotendako erreduktoreak erabiltzea, bestea askoren artean.

**Bestalde, etxea birgaitzeko asmoa baldin badaukagu, zeintzuk dira sistema eraginkorrenak?**

Batetik, neurri isolatzaileak daude: hain justu, fatxadetan isolamendu termikoa jartzea, leihoak aldatzea eta zorua isolatzea. Bestetik, instalakuntzari begira, energia sistemak daude, galdara eraginkorrak jarrita. Biomasa, esaterako, modan dago orain; egun, berokuntzan asko gastatzen dugu, eta biomasarekin, gastua nabarmen murriztearekin batera, $CO_2$ ere gutxitzen dugu.

**Hitzaldiarekin batera, herritarrei zuzendutako zerbitzu berriari hasiera emango diozue, ezta?**

Bai, hala da; kanpaina berria jarriko dugu martxan. Askotariko kezkak argitzen saiatuko gara: esaterako, etxea birgaitu gura duena museora etor daiteke eta dauzkan aukerak azalduko dizkiogu eta kostua nondik nora joan daitekeen jakinaraziko diogu. Horren gaineko dirulaguntzen berri ere emango diogu. Horrez gain, faktura oso handiak dituztenei nondik aurrez dezaketen azalduko diegu. Astelehenetik egubakoitzera emango dugu zerbitzua: astelehen, eguen eta egubakoitzean goizez egongo naiz eta gainerakoetan, arratsaldez.

## Ikasleen emanaldiak, bazkaria eta jolas festa izango dira bihar Luis Ezeizaren urteroko jaialdian

Goizean hasiko dira Luis Ezeiza herri eskolaren jaiaren harira biharko antolatutako ekintzak, ikasleen emanaldiekin; 11:00etan izango dira horiek, plazan, eta amaitzean, Patxi magoaren ikuskizuna ikusteko aukera izango da. 13:30ean, etxeko txikienen bazkaria hasiko da eskolako arkupeetan eta ordubete geroago, aldiz, helduena. Egunari amaiera borobila emateko, 15:00etan, puzgarriak, musika, jolasak eta apar festa egingo dituzte eskolako patioan. Eguraldi txarra eginez gero, pilotalekuan egingo dituzte aurreikusitako ekintza horiek.

## Herriko hildako mendizaleen oroimenezko Txikirri-txikirri mendi ibilaldia egingo dute

Etzi, domeka, egingo dute bi urtetik behin herriko hildako mendizaleen oroimenez antolatzen den Txikirri-txikirri mendi ibilaldia. Parte-hartzaileak 07:00etan irtengo dira badira ere, izen -ematea ordubete lehenago zabalduko dute, plazan; prezioa bost euro da. Ibilaldia honakoa izango da: Eskoriatza, Apotzaga, Lata, Asensiomendi, Kurtzeta, Albiña, Jarindo, Pagoeder, Bentafria, Leizargarate, Mugarriluze, Degurixa, Kurtzebarri, Lete eta Eskoriatza. Jan eta edateko puntuak Bentafrian, Degurixan eta Eskoriatzan jarriko dituzte.

## Erdialdea oinezko eta bizikletendako mugatzeko proiektuak ia 24.000 euroko laguntza jasoko du

Gipuzkoako Foru Aldundiak bidegorrien udal sarea garatzeko laguntzak eman ditu. Foru agindu bidez 250.000 euroko dirulaguntza onartu du Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak; eta Eskoriatzak 23.941,71 euro jasoko ditu erdialdea oinezko eta bizikletendako mugatzeko. Eskaeraren aurrekontua 49.878,57 euro zen. Udalak irailean du Gaztañaduiko 11. zenbakidun eta Jose Aranako 2. zenbakidunen zatia oinezkoendako egokitzeko asmoa; hain justu, Bolibarrerako bidegurutzetik Azkoaga Enea hotelerainoko tartea.

# Lorea Armendarizek zilarrezko domina irabazi du

Joan den asteburuan Gasteizen jokatutako Euskadiko gimnasia erritmikoko txapelketan lan bikaina egin zuen Lorea Armendariz eskoriatzarrak; sailkapen orokorrean bigarren geratu zen, eta, hortaz, zilarrezko domina ekarri zuen etxera. Uztaiarekin bigarren izan zen eta mazoekin, laugarren.



FILO MARTINEZ

## OHARRAK

**EMAKUMEEN BIRA**

Gaur, egubakoitza, Euskal Herriko Emakumeen Bira pasako da herritik, 16:00etan.

**GAZTELEKUA**

Askotariko ekintzak antolatu dituzte gaztelekuan: gaur, zirku tailerra dago; bihar, hankapalo ikastaroa; eta etzi, ostera, mendi irteera.

**AUZOLANA ATXORROTZEN**

Dagoeneko bost aste daramatzate Atxorrotz txukuntzen; egindako lana agerikoa bada ere, oraindik badago zer egin, eta, hori dela eta, asteon ere auzolana egingo dute. Zapaturako egin dute hitzordua, 09:30ean, Atxorrotzen bertan.

**IKASTAROA**

Hilaren 24tik 27ra goizez eta arratsaldez egingo den *Hasi udan kirola egiten* ikastaroan izena eman daiteke. Kiroldegiko bazkideek 24,95 euro ordainduko dituzte eta gainerakoek, 26,95. Ekainaren 18a baino lehen eman behar da izena, herriko kiroldegian.

**MEMORIALA**

Ekainaren 21ean *Manolo Muñoz III. Memoriala: areto futboleko 24 ordu* jokatuko da eta izen -ematea zabalik egongo da hilaren 18ko 19:00ak arte, kiroldegian. 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago; parte hartzeagatik ordaindu beharreko kuota 100 euro da.



Zuria izan zen iazko jaietako zapiaren kolore nagusia; aurtengoarena jaien bezperatan jakingo da. | GOIENA

# Asteburu honetan aukeratuko dute herritarrek jaietako zapia

## Olaran etxean egongo dira ikusgai zapiak bihar eta domeka arratsaldean

**IURE EIZAGIRRE** | ANTZUOLA

Antzuolarrek asteburu honetan aukeratu ahal izango dute dagoeneko hurbiltzen ari diren herriko jai nagusietako lepoko zapiaren diseinua.

Udalak lehiaketa jarri zuen martxan duela aste batzuk eta joan den egubakoitzean amaitu zen bertan parte hartzeko epea. Jaietako irudi izateko lau proposamen aurkeztu dituzte, guztiak Antzuolako bizilagunek, hori baitzen lehiaketako baldintzetako bat.

Lanok asteburu honetan, bihar eta domekan, egongo dira ikusgai Olaran etxean. Lau diseinuak panel batean jarriko dituzte eta herritarrek gehien atsegin dutena bozkatu ahal izango dute, 18:30etik 20:30era. Pertsona bakoitzak boto bat eman ahal izango du eta bertaratzen direnen botoa erabakigarria izango da, eurak izango direlako lehiaketako epaimahai bakarra.

Urtero moduan, lepoko zapia triangelu formakoa eta kolore bakarrekoa izango da. Lehiaketako baldintzetan zehaztutakoaren arabera, aurkeztutako proposamenek beste bi kolore eduki zitzaketen.

Zapiaren aukeraketa asteburu honetan egingo bada ere, antzuolarrek jaien bezperara arte itxaron beharko festetan soinean eramango duten irudia zein izango den eta nork egin duen jakiteko. Jone Larrañaga Kultura zinegotziak iragarri duenez, uztailaren 14an aurkeztuko dute jaietako irudia. Domeka izan arren, egun horretan bertan jarriko dituzte salgai zapi berriak. "Irabazlearendako saria egongo da baina hori ere egun horretan iragarriko dugu", gaineratu du Kultura zinegotziak.

**Mahaien erreserba**

Oraindik hilabete baino gehiago falta da herriko jai nagusiei hasiera emateko. Zenbait ekintza ordea, aurretik prestatu behar izaten dira, bazkariak eta afariak, esate baterako.

Azken urteotan moduan, jaien hasieran, uztailaren 18an, Bentazaharreko mutiko alaiekin afaria izango da eta hurrengo egunean bazkaria, plazan. Herri -giroko bi hitzordu horietarako mahaiak erreserbatzeko epea astelehenean irekiko da.

Erreserba eskariak udaletxean egin behar dira, edo hala nahi dutenek Udalaren webgunean, *www.antzuola.com*-en, egin dezakete. Txartela erreserba egin ostean jaso beharko dute.

# Iralara erlojupeko igoera egingo dute bihar goizean

## Eguerdian izango da bigarren bizikleta challengea

**I.E.** | ANTZUOLA

Ondarreko jaietan egindako ginkanarekin eman zitzaion hasiera Antzuolako challengeen denboraldiari. Bihar bigarren proba izango da: Iralara igoera. Kilometro bateko ibilbidea egin beharko dute parte-hartzaileek, eta erlojupekoa izango da.

Antolatzaileek ez dute adin mugarik jartzen proba honetarako, nahiz eta Joseba Lezetaren hitzetan, "gehientsuenetan 14 urtetik beherako haurrek hartzen dute parte". Adinaren arabera sailkatzen dituzte parte-hartzaileak eta benjamin, alebin eta infantil kategoriak bereiztu ohi dira. Txikienentzat distantzia luzeegia izan daitekeela ohartuta, ibilbide laburragoa egin ohi dute.

Iralara igoera 12:00etan hasiko da eta izen-ematea ordubete lehenago egin beharko da.

**Hurrengo probak**

Herriko bizikleta probak jaiei lotuta egon ohi dira, eta biharkoa bigarren proba izango da. Datozen asteetan Uzarragako igoera, Kalebarrengo ginkana eta San Martzialgo igoera izango dira.

# Trikitixa eskolako ikasleen saioa eguaztenean

**I.E.** | ANTZUOLA

Trikitixa eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute eguaztenean, 19:00etan, Torresoroan. Emanaldia urte guztian egindako lana gurasoei erakusteko baliatuko dute. Soinu eta panderoarekin jotako doinu folklorikoak izango dira nagusi, baina kanta brasildarren bat ere entzun ahal izango da.

Ikasturte honetan 8 eta 17 urte arteko 18 ikasle ibili dira trikitixa eskolan. Urtean zehar jendaurreko emanaldi batzuk eskaini dituzte, horietako zenbait herritik kanpo.

# Herriko ondarea ezagutzeko bigarren aukera ekainaren 16an

**I.E.** | ANTZUOLA

Debagoieneko Mankomunitateak Ignaziotar Lurraldea deitutako proiektu turistikoan hartu du parte aurten lehen aldiz, Urola Garaiarekin eta Urola Erdiarekin bat eginda.

Hiru eskualdeetako ondare erlijiosoa eta kulturala sustatzeko asmoz, hainbat bisita gidatu egin dituzte eskualde bakoitzean. Antzuolan apirilean egin zuten lehen bisita eta ekainaren 16an izango da hurrengoa.

XVI. mendea aztertzen ari dira bisitetan, batetik, Loiolako San Inazioren mendea izan zelako eta, bestetik, garai hartako ondare zabala dagoelako eskualde horietan.

Antzuolako hurrengo bisita Antiguako ermitan hasiko da, eta handik erdigunera joango dira, bertako interesguneak ezagutu eta eliza ikustera.

Parte hartu nahi dutenek ekainaren 14a baino lehen eman beharko dute izena Turismo Zerbitzuarekin harremanetan jarrita. Horretarako, 943 79 64 63 telefono zenbakira deitu edo *info@tierraignaciana.com* helbidera idatzi behar da. Bisita gidatua bi euro kostako da.

**Jarraipena erabakitzeke**

Duela pare bat hilabete egindako bisitak erantzun ona izan zuen eta antzuolarren zein ingurukoen interesa piztu zuen.

Harrera ona izan arren, Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Bulegoan oraindik ez dute egitasmoaren balorazio orokorrik egin. Bigarren bisitaren ostean datu zehatzagoak izango dituzte eta orduan erabakiko dute aurrerantzean proiektu honekin jarraituko duten edo ez.



Oraingoan ere Antiguako ermita izango da bisitaren abiapuntu. | GOIENA

### Sorturen herri kontseiluaren aurkezpenean parte hartzera deitu dituzte antzuolarrak astelehenerako

Urteetan legez kanpo egon ostean, ezker abertzaleak Sortu alderdia eratu zuen duela hilabete batzuk. Ordutik hona, herririk herriko ordezkariak aurkezten ari da, eta Antzuolako herri kontseiluaren aurkezpena astelehenean egingo dute, 19:30ean, Olaran etxean. Herritarrei aurkezpen ekitaldian parte hartzeko dei egin diete alderdiko ordezkariek.

### Aldi baterako sortzen diren beharretarako kale garbitzaileen lan-poltsa osatuko du Udalak

Oposizio bidez egingo du langileen aukeraketa eta hiru proba izango ditu. Idatzizkoan legeriaz eta udal antolakuntzaz, kale garbiketaz, jai eta ekitaldi berezietako garbiketaz, hondakinen bilketa selektiboaz eta lanen arriskuaz galdetuko zaie, besteak beste. Bigarren proba euskararena izango da eta hirugarrena, berriz, praktikoa. Izena emateko azkeneko eguna ekainaren 14a da. Udaletxean erregistratu beharra dago (08:30-14:00).

### Egungo egoeran dauden baliabideei buruz gogoeta egiteko hitzaldia eguenean Erretiratuen Elkartean

Egungo krisi egoerak gizarteaz gogoeta egitera bultzatu du jendea. Erretiratuen Elkarteak ere beharrezko jo du gogoeta eta egun dauden baliabideetan zentratzea erabaki du. Gai hori lantzeko Jenaro Lekuonaren hitzaldi bat antolatu du elkarteak. Eguenean izango da Lekuona Erretiratuen Elkartean, 17:00etan. *Reflexión sobre los recursos en el momento actual* izenburua jarri diote haren jardunari.

# Uema eguna bihar: festa eta euskararen aldeko aldarrikapena

'Aire berria euskarari' lelo hartuta, egungo legea aldatzea eskatuko dute

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

17 urteren ostean, bihar itzuliko da Uema eguna Aramaiora. Udalak 1996ko urtarrilaren 25eko osoko bilkuran onartu zuen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzea eta urte bereko maiatzaren 5ean Aramaion bertan ospatu zen Uema eguna. Hego Euskal Herriko 66 udalerri daude sartuta mankomunitatean eta Aramaio da Arabako herri bakarra.



Elorrioko Sermond's taldea disko berriarekin etorriko da Aramaiora. | SERMOND'S

**Aramaioarrak, inplikatuta**

Apirilean bilera irekia egin zuten udaletxean, Uema egunaren zentzua azaldu eta prestaketa lanetarako taldea osatzeko. Rosa Mondragon Euskara teknikariak azaldu digunez, kultur talde eta eragile gehienek erantzun dute: "Taldeen parte hartzea eta inplikazioa eskertu gura dugu".

Ramon Ajuria alkateak ere eskertu du aramaioarren inplikazioa: "Gustura eta ilusioz hartu dugu Uema eguna antolatzea. Herri dinamikoa da gurea, eta herritar ugari inplikatu dira prestaketa lanetan. Herritarren esfortzua eskertu gura dut. Izan ere, eurei esker egitarau zabal eta erakargarria osatu ahal izan dugu. Aramaio ezagutzeko eta euskarari aire berria emateko aukera ederra duzue, eskuzabalik hartuko zaituztegu".

Aurtengo leloa da *Aire berria euskarari*; jaiak eta aldarrikapenak bat egingo dute beste behin. Egungo legea aldatzea eskatuko dute, "udalerri euskaldunen garapen linguistikoa" bermatzeko. Euskalgintzako eta instituzioetako hainbat ordezkari izango dira. Egitaraua haur, gazte eta helduei begira antolatu dute eta egun osoan ez da aspertzeko astirik izango. Eguraldia izango da etsaia, iragarpenen arabera: "Euria egiten badu kultur etxea eta kiroldegia ditugu erabiltzeko", diote.

### BIHARKO EGITARAUA

**11:30** Suziri jaurtiketa, trikitilariak eta dantzariak.

**12:00** Herri kirolak, Aulesti eta Aramaioren arteko lehia.

**13:00** Ekitaldia plazan.

**Goizean zehar:** Umeendako puzgarriak eskolako aterpean, artisau azoka Nardeaga kalean zehar –30 bat postu– eta talogileak eta sagardo salmenta plazan.

**14:00** Herri bazkaria kiroldegian. 100 lagun inguru espero dira.

**16:30** *Ane eta piratak parrandan!* Irrien Lagunen ikuskizuna parkean.

**18:30** Erromeria plazan, Zesuma taldearekin.

**22:00** Sermond's taldearen kontzertua parkean.

**Parkean egitekoak diren ekintzetan euria egiten badu kultur etxean edo kiroldegian egingo dira.**

# 'Irakurri, gozatu eta oparitu', hilaren 30era arte

Maddi Avila izan da maiatzeko zozketako irabazlea; orain arte 25 irakurlek hartu dute parte ekimenean

**J.B.** | ARAMAIO

Euskaltzaleen Topaguneak eta Txirritola euskara elkarteak antolatuta, *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimena Liburuaren Egunean, apirilaren 23an, jarri zen martxan hirugarren urtez.

Irakurzaletasuna bultzatzea du helburu ekimenak eta honakoan datza: liburutegian euskarazko liburu bat maileguan hartuz gero eta itzultzerakoan liburuzainak emandako fitxa beteta –irakurritako horri buruzkoa–, erosketa txartela jasoko du irakurleak Arrasate ala Gasteizko Elkar dendetan liburu hori bera ala euskarazko beste edozein erosteko. %25eko deskontu-balioa duen erosketa txartela jasoko dute irakurleek orokorrean, eta %50ekoa Txirritolako bazkide izanez gero. Haur zein helduei dago zuzenduta eta antolatzaileen arabera, oraingoz 25 irakurlek hartu dute parte.



Maiatzeko zozketa egin zen unea, liburutegian . | TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

**Maiatzeko zozketa asteon**

Asteon maiatzeko zozketa egin dute eta Maddi Avila 10 urteko neska izan da irabazlea; 30 euroko txartela jasoko du. Egitasmoak ekainaren 30era arte iraungo duenez, ekainean ere zozketa bera egingo dute parte hartzaile guztien artean. Antolatzaileek parte hartzeko dei egin dute.

## Hockeyaz ikasi eta gozatzen

Hanka Labanka taldearen eskutik Bergarako eta Aramaioko hockey zaleek saio berezia egin zuten domekan Aramaioko kiroldegian. Kirol horretan hainbat urte egin dituen Rivabellosako (Araba) entrenatzailea izan zen eurekin eta parte hartzaileak gustura ibili ziren teknika berriak ikasten eta jokaldi ezberdinak ulertzen.



AGUSTIN OYANGUREN

## Abarrategi txapeldun Legution, Arabako eskolarteko festan

Ekainaren 1ean Arabako eskolarteko bertso festa egin zuten Legution, eta, eguraldiak ez lagundu arren, giro ederrean ibili ziren. Arratsaldeko eskolarteko txapelketaren finalean Peru Abarrategi aramaioarrak jantzi zuen txapela, Iñaki Tena gasteiztarraren aurretik. Biak joango dira Euskal Herriko eskolarteko txapelketara.



Abarrategi, txapelarekin. | A.B.E.

## Me & Mr. John taldeak kontzertua eskainiko du gaur Sastiñan

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Udaleko Kultura Sailak kontzertuak antolatu ditu ekaineko egubakoitz guztietarako. Helburua da denetariko zuzeneko doinuak eskaintzea, aire librean. Gaur hasiko da kontzertu zikloa, Me & Mr. John taldearen kontzertuarekin. Blues eta rock doinuak eskainiko dituzte, 20:00etan hasita.

## Kultura Arteko Eguna antolatzeko bilera ekainaren 13an

Udalak bigarrenez antolatu gura du Kultura Arteko Eguna, irailaren 21erako. Beste herrialde eta komunitateetako kideen laguntza beharko dute eta horretarako bilera irekia deitu dute datorren hilaren 13rako; udaletxean, 18:30ean: "Gure kulturen berezitasunak ezagutzea gustatuko litzaiguke; horregatik, anima zaitez parte hartzera", adierazi dute.

## Azken eguna da gaur San Martin jaietarako kartela entregatzeko

San Martin jaietarako kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna da gaur; udaletxean entregatu behar dira lanak. Kartelak honako testua izan beharko du: *San Martin Jaiak 2013. Uztailak 5, 6, 7 eta 8.* Bi kategoria bereiztu dituzte: 15 urtera artekoak eta 16 urtetik gorakoak. Informazio gehiagorako, udaletxera jo (945 44 50 16).

ELGETA

# Koadrilen arteko 'pikea', aurten ere, gisatu onena prestatzea

Hasiera batean mantendu egingo dira biharko iragarritako ekitaldi guztiak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Asteon, behin baino gehiagotan kontsultatu dute eguraldi iragarpena Koadrila Eguneko antolatzaileek. Buruhauste garrantzitsua izan da; izan ere, zapaturako eguraldi iragarpena ez zen batere ona aste hasieran. Eguna hurbildu ahala, ordea, iragarpenak hobera egin du, eta antolatzaileen erabakia izan da egitarauko ekintza guztiekin aurrera egitea.

Zapatuan, lehenak martxan jartzen gisatu lehiaketako parte hartzaileak izango dira. 10:30ean has daitezke lanean. Berrikuntza da gisatua aurkezteko kazolak Udalak ipiniko dituela aurten.

Iaz, sei taldek hartu zuten parte lehiaketan, eta Faka Faka taldeko Josetxo Arantzabalek eta Enrike Elkorok eraman zuten lehenengo saria. Jokoan da, berriz ere, txapela. Aurten ere sukaldariek hiru ordu eta erdiko epea izango dute gisatua prestatzeko. Sari banaketa 14:30erako iragarri dute.

Festa egunak herri bazkariarekin eta erromeriarekin jarraituko du. Bazkarirako mahaiak eta aulkiak Udalak ipiniko ditu. Erromeria, berriz, Luhartz taldeak egingo du 17:00etan hasita.



Gisatu lehiaketa iaz. | L.Z.

**EGITARAUA**

**10:30** Gisatu lehiaketa, plazan.

**11:00** Puzgarria, frontoian.

**11:00** Argazki maratoia.

**14:30** Sari banaketa, plazan.

**14:30** Herri bazkaria, plazan.

**17:00** Erromeria: Luhartz.

**19:00** Bits festa, plazan.

**Ekintzak umeendako ere**

Indartuta dator Koadrila Eguna, gehienbat umeendako iragarritako ekintzekin. 11:00etatik aurrera puzgarria egongo da plazan, eta Maala Guraso Elkarteko ordezkariak arduratuko dira horrekin. Iluntzean, berriz, bits festa izango dute gaztetxoek. Ekintza hori ere plazan egingo da, eta 19:00etan emango diote hasiera. Ekintza horrekin dute antolatzaileek zalantza gehien. Azken orduko kontua izango da egin ala ez erabakitzea.

## V. FRONTENIS TXAPELKETA

**AZKEN EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Miren Zeziaga-Pello Larrea / Amaia Iribar-Luisan Alkorta | **25-16** |
| Maider Osa-Anartz Agirre / Garbiñe Sarasketa-Benito Campos | **25-10** |
| Rebeka Ubera-Xabier Ubera / Idoia Elkoro-Jesus Belamendia | **25-13** |
| Odei Zenitagoia-Fernando Zenitagoia / Sergio Bouzas-Josu Arantzabal | **25-13** |
| Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Etor Vallo-Ander Gorosabel | **25-10** |
| Adrian Gorostiza-Asier Osoro / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna | **25-15** |
| Ibon Untzetabarrenetxea-Eneko Ojanguren / Txema Cot-Juan Carlos Gonzalez | **25-11** |
| Maitena Mañarikua-Josu Mañarikua / Iratxe Bravo-Iker Lopez | **atzeratua** |
| Mikel Zubiaurre-Aitor Errarte / Josu Mañarikua-Jon Ugarteburu | **25-24** |
| Maitena Mañarikua-Josu Mañarikua / Maria Irene Olabarria-Xanti Dosuna | **25-16** |

**GAURKO PARTIDUAK, 20:00ETAN**

| | |
|---|---|
| A. Elortza-J. Barrutia / A. Gorostiza-A. Osoro | O. Zenitagoia-F. Zenitagoia / T. Cot-J.C. Gonzalez |
| J. Barrutia-I. Albizu / M. Zubiaurre-A. Errarte | I. Retolaza-X. Ubera / J. Ugarteburu-J. Mañarikua |

### Zapatuan, Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako sari nagusirako lehian izango da Sebas Arantzabal

Azken jardunaldia jokatuko dute zapatuan Azpeitiko Garmendipen. 36 txirlo jota sailkapeneko hirugarren postuan da uneotan Sebas Arantzabal elgetarra. Txirlo bakar bateko aldearekin ditu aurretik beste bi bolari. Hala, zapatuan txapelerako lehian izango da elgetarra. Tiraldia 12:00etan hasiko da. Elgeta A taldea ere lan polita egiten ari da; laugarren doa taldekako sailkapenean.

### LOMCEri buruz informatuko dute hitzaldi batean eta herentziei eta testamentuei buruz beste batean

Maala guraso elkarteak antolatuta, Baikara elkarteko Imanol Zubizarretak LOMCE legeari buruzko hitzaldia egingo du ekainaren 11n, 18:00etatik 19:30era, eskolan. Zaintza zerbitzua eskainiko dute Udal Ludotekan. Xalbadorpe erretiratuen elkarteak, berriz, testamentuei eta herentziei buruzko hitzaldia antolatu du astelehenerako, hilak 10, 18:00etan, udaletxean.

### Atzegiko familiek eskerrak eman dituzte zapatuko ekitaldian jaso zuten laguntzagatik eta babesagatik

Zapatuan egindako Atzegi egunarekin oso pozik daude antolatzaileak. "Gure esker ona adierazi nahi dugu", esan du Garbiñe Sarasketak. "Udalari mahaiak utzi zituelako, zerbitzari lanak egin zituztenei, aurreskua egin zuten umeei, eta batez ere soinua jotzen ibili ziren Elgetako soinu-jotzaileei eta pandero-jotzaleei: Leire, Ainhoa, Ainara, Uxue, Garaine, June, Janire eta Beñat".

### 80 urtetik gorako 42 elgetarrek bazkaria egingo dute gaur Ozkarbin, Xalbadorpe elkartearen eskutik

Egun berezia dute gaur, barikua, 80 urtetik gorako elgetarrek. Xalbadorpe erretiratuen elkarteak gonbidatuta bazkaria egingo dute, 14:00etan. Antolatzaileen esanetan, 42 lagunek eman dute izena, eta, bazkaldu aurretik, omenduek meza entzungo dute Elgetako elizan, 13:00etan.

### Kantsatzeke mendi taldeak ekainaren 15ean egingo du hurrengo irteera: zabalik dago izen-ematea

Ekain hasieran Kantsatzekek Araba aldera egitekoa zuen irteera hilaren 15ean, zapatuan, egingo dute. Durrumatik irten eta Mirueta eta Ballo igoko dituzte. Bost bat orduko ibilbidea da. Izen-ematea zabalik dago hilaren 13ra arte. Prezioa 10 euro da.

# Herritarren ekarpenak jasotzeko unea da orain

Hondakinen kudeaketa eraginkorrena adosteko saioetan parte hartzera deituta daude elgetarrak

L.Z. | ELGETA

Udalak eguaztenean egin zuen herriko elkarteendako hondakinen kudeaketaren inguruko bilera informatiboa, eta 11 lagun elkartu ziren. Bilera sorta egingo da eta helburua da hondakinen kudeaketarako udal ordezkari guztien adostasunarekin Elgetako Udalak onartu den plangintza herritarrei ezagutzera ematea eta egon daitezkeen ekarpenak jasotzea. Lehen ekintzak hasita daude, eta eguaztenean, esaterako, garbigune ibiltariaren lehen bisita izango dugu herrian. Salbador kaleko plazan egongo da 10:00etatik 21:00etara. Garbigunеetako zerbitzua herritarrei hurbilduz etxeetan sor daitezkeen hondakin arriskutsuak jasoko dituzte bertan —aerosolak, fluoreszenteak, aparatu elektriko eta elektroniko txikiak....

**Konpost ikastaroak**

Konposta egiteko ikastaroak ere martxan dira. Udalak antolatuta, maiatzaren 27an egin zen azkena. Elgeta Zero Zabor taldeko kideek egin zituzten irakasle lanak, eta konpost-gailu gehiago banatu zituen Udalak. Ikastaroan egon zirenek, gainera, konposta egiten hastearekin batera hobariak eskatu ahal izango dituzte zaborraren tasan. Elgeta Zero Zabor taldetik esan dute ikastaro gehiago egin daitezkeela. Interesatuek udaletxean eman behar dute izena.

**Mundumob jaialdia Donostian**

Bestalde, herriz herriko ibilbidea egin ostean, MunduMob jaialdia Donostiara iritsiko da zapatuan. 18:00etarako herrialde mailako ekitaldia iragarri dute Donostiako Bulebarrean. Elgeta Zero Zabor taldeko ordezkariek ekitaldian parte hartzera animatu dituzte elgetarrak.

LEINTZ GATZAGA

# Testamentu eta herentzia kontuak berbagai

Bi gaiokin hitzaldia dago eguaztenean; bestalde, Toki Ederrek txangoa antolatu du egubakoitzerako

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

*Nola egiten da testamentua? Zertan datza herentzia?* Bi galderok oinarri hartuta, hitzaldia antolatu dute Toki Eder erretiratu elkarteak eta Leintz Gatzagako Udalak eguaztenerako, ekainaren 12rako. 18:30ean hasiko da, kultura etxean. Jose Luis Amerigo Arrasateko notarioa izango da hizlaria, eta sarrera librea da, interesa duen edozeinendako.

**Txangoa Hondarribira**

Bestalde, udalerriko erretiratuen elkarteak txangoa antolatu du gaur zortzirako, ekainaren 14rako. Hondarribira joango dira egun-pasa, Gatzagatik 09:00etan irtenda. "Han hamarretakoa egin, eta Pasaia inguruan bueltatxoa egingo dugu. Txalupan ibiltzeko aukera dugu; dena dela, Hondarribira joango garen erretiratuen nahiaren arabera erabakiko dugu ibili edo ez. Gero, asmoa da astirik baldin badago Guadalupera joatea", kontatu du Joxe Gorosabelek, Toki Eder elkarteko bazkideak.

**Bazkari berezia**

Xehetasunen arabera, Hondarribian bazkalduko dute, Mauri Zubillagaren elkartean. "Hark prestatuko du bazkaria; izan ere, hark proposatu digu bertan bazkaltzea. Ze menu izango den? Sorpresa da hori, baina sorpresa ona izango dela, seguru", adierazi du Gorosabelek. Bapo bazkaldu eta gero, Gatzagarako buelta hartuko dute: "20:00etarako-edo iritsiko gara herrira; bidean, Zumaia inguruan geratzeko asmoa dugu", esan du Gorosabelek.

**Prezioa, merke-merkea**

Txangoarengatik ordaindu beharrekoari dagokionez, erretiratuen elkarteko bazkideek bazkariarengatik bakarrik ordaindu beharko dute: "Bidaia elkarteak ordainduko du". Hori bai, bazkide ez direnei bederatzi euro kobratuko diete, autobusean bertan. Izena emateko: Tere (943 71 43 78) edo Joxe (943 71 46 28).

REALA TXAPELDUNEN LIGAN!



Bartzelonan, Arrasateko koadrila Camp-Nou futbol zelai kanpoan. | OIHANA ARRIOLA



Bergararrak Vallecasen txikiteoan, Rayoren kontrako partidua ikustera joanda. | BERGARAKO REAL-ZALEAK

# Europan jokatuko duen Reala berbagai

Realeko jokalari izandakoak batu ditu Goienak talde txuri-urdinak egin duena baloratzeko


Mikel Gonzalez arrasatearra, taldekideekin, Anoetan, duela 15 egun. | ARITZ GORDO

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Realeko jokalariak merezitako atsedena hartzen dabiltzan bitartean, zaleek astebete izan dute Deportivoren kontrako partiduko bihotz kolpeak –taupadak baino gehiago izan ziren– baretu eta talde txuri-urdinak lortu duena barneratzeko.

Txuri-urdinek gorabehera handiak bizi izan dituzte azken hamarkadan, Europan jokatzetik bigarren mailara jaitsi, ostera igo, eta berriz ere Europara bueltatzeraino. Gozatzea tokatzen da orain. Hala, lortutakoaz galdetzeko Realearekin harreman estua duten –edo izan duten– sei lagun elkarrizketatu ditu Goienak. Aitor Lopez Rekarte, Jon Sagasta, Inaxio Kortabarria, Agustin Arantzabal, Jon Urzelai eta Sokoa Azkarate, Realeko elastikoa jantzi duten sei lagun horien iritziak batu ditugu –Azkarate oraindik jokatzen dabil– egindako denboraldiaren gainean, eta, jakina, etorkizunaren gainean ere galdetu diegu.

Etorkizun hurbilean, Reala Mojategin ikusiko dugu uztailaren 5ean.

**INAXIO KORTABARRIA**
REALEKO JOKALARI OHIA

## "Banuen konfiantza, etxekoengan sinetsi egin behar da, beti"

Lagunartean, eta telebistari tarteka kasu eginez, halaxe jarraitu zuen Inaxio Kortabarriak ligako azken jardunaldian Reala: "Baina konfiantza nuen, etxekoengan beti izan behar da konfiantza", diosku arrasatearrak: "Hori bai, Valentziaren alde esan behar da liga oso indartsu amaitu dutela. Banuen horren beldurra, baina, zorionez, emaitza guztiak aldeko izan ziren".

Realaren denboraldi onaren zergatiak aztertzeko orduan, Kortabarriak uste du taldea egonkortu egin dela: "Garrantzitsua da taldeko jokalari garrantzitsuak etxekoak izatea, eta baita kanpotik etorri direnek maila ona erakustea ere. Etxeko jokalari asko maila oso oneko futbolari bilakatu dira, eta gazteak dira oraindik. Gainera, esperientziak esaten digu Realak etxekoen alde apustu egin duen bakoitzean emaitzak onak izan direla. Ostera, kanpotik jokalari mordoa ekarri dituztenean...".

Datorren urteari begira, Kortabarriak ez du uste Europan jokatu izanagatik Realak ligan behera egin behar duenik: "Ez dut halakoetan sinesten, sekula ez dut sinetsi. Europan jokatzeak ere esperientzia emango die".


X.U.


GOIENA

**SOKOA AZKARATE**
REALEKO ATEZAINA

## "Emaitza onak badira, nekea igarri ere ez dute egingo"

Etxeko sofan sufritzen, halaxe jarraitu zuen Sokoa Azkaratek Deportivoren kontrako partidua: "Saltoka, tentsio handiz, halaxe ikusi genuen partidua", dio Arrasatekoak, barrez. Izan ere, partidu hasieran oso zail ikusten nuen Valentzia moduko talde indartsu batek azken jardunaldian kale egitea, baina edozer gerta zitekeen. Alde horretatik, aurreko astean baino esperantza txikiagoa nuen, baina bai, banuen esperantza txiki bat".

Denboraldiaren gainean galdetuta, Arrasatekoak *konfiantza* berba erabili du: "Txarto hasi arren, lehenengo emaitza onak lortzen hasi zirenean konfiantza handia hartu zuten eta konfiantza horri amaierara arte eutsi diote, bolada ona hartu zuten eta dinamika horretan jarraitu dute azkenera arte. Alde horretatik, Montanierrek ere badu merituaren zati bat, jokalariekin batera; izan ere, gauzak txarto zeudenean entrenatzailea ez zen erantzule bakarra".

Hori bai, datorren denboraldia luzea izango dela azpimarratu du: "Ondo planifikatu beharko da, baina hor ere, emaitza onak lortzen hasten badira, nekea igarri ere ez dute egingo".

**AITOR LOPEZ REKARTE**
REALEKO JOKALARI OHIA

## "Garrantzitsua izango da denboraldia ondo planifikatzea"

*Bonba*-k ere gogotik sufritu zuen joan den zapatuan: "Irrati batean esatari lanak egiteko gonbidatu ninduten, eta hor, ahotsa irudia baino lehenago iristen denez, jokaldiak ikusi baino entzun egiten genituen lehenago, eta horrek urduriago jartzen ninduen".

Bazuen esperantza, baina: "Norberak bizi izandako esperientziak izaten ditu gogoan, eta zail ikusten nuen". Hala, bigarren zatia sufritzekoa izan zen: "Beste batzuetan Realak ez du jakin izan halako partiduak defendatzen, zaila da, baina orain dauden moduan, dena irteten zaie aldeko". Denboraldiko gakoen gainean, berriz, Arrasatekoak zabal egin du berba: "Proiektu bat egonkortu da, entrenatzaileak taldea eramaten jakin du, konfiantza izugarria izan dute, joko-maila oso ona... Erantzuna luzea izan daiteke. Baina garbi geratu da bigarren itzuliak ze garrantzitsuak diren".

Datorren urteari begira jartzeko eskatu diogu: "Beste modu baten planifikatu beharko da urtea, abuztuan Txapeldunen Ligako aurre-fasea dute eta denboraldian zehar jokatu beharreko hiru torneoetan taldeak orekatuta egon behar du. Hasieratik egon behar dute maila onean".


X.U.






Edurne Urteaga, Cornellan. | E.URTEAGA




Leire eta Urtzi, Bernabeun. | U.IGARTUA



Joan den astean, Arrasateko koadrila Riazorren. | INES ALDAI



GOIENA

**JON URZELAI**
REALEKO JOKALARI OHIA

## "Montanier joan izana ez da ona; inoiz ez da gustura egon hemen"

"Tabernan, lagunekin, halaxe ikusi nuen Deporren kontrako partidua. Baina, egia esateko, futbolarekin ez dut askorik sufritzen, bere garaian sufritu nuen nahikoa", dio oñatiarrak, barrez.

Jon Urzelaik ez zuen batere garbi azken jardunaldian Reala laugarren sailkatuko zenik: "Azken partidua, eta beste batzuen emaitzen menpe zaudenean... Ez nuen uste Valentziak huts egingo zuenik, baina Realak merezi du laugarren postu hori, aurtengo denboraldian erakutsi duen joko-maila sekulakoa izan delako. Bigarren itzulia izugarria izan da, eta agerian geratu da aldagelan ze giro izan duten, baita entrenatzailearekin ere".

Alde horretatik, Urzelaik uste du ez dela ona Montanier joatea: "Uste dut sekula ez dela gustura sentitu, eta horregatik ez duela jarraitu. Ikusteko dago nor etorriko den, baina ondo planifikatu beharko dute denboraldia, urte gogorra izango dutelako. Uste dut Montanierren lan egiteko filosofia antzerakoa duen norbait ekarri beharko luketela, eta baliteke fitxaketaren bat egin behar izatea. Denbora dute urtea ondo planifikatzeko".

**AGUSTIN ARANTZABAL**
REALEKO JOKALARI OHIA

## "Urte gogorra izango da, baina baita gozatzekoa ere"

Deporren kontrako partiduko lehenengo zatian Agustin Arantzabal lasai samar egon zen: "Baina bigarrenean ez nuen partidua osorik jarraitu, sofatik altxa egiten nintzen, ostera eseri...", partidua amaitu zen arte. "Bai, nahiko urduri egon nintzen. Gainera, Valentziak egin zuen lehenengo gola, eta hori kolpea izan zen denendako. Zorionez, baina, azkenean behar den moduko amaiera izan zuen partiduak. Eta, egin duen bigarren itzulia ikusita, Realak merezitako saria jaso du".

Arantzabalek garbi du talde osoaren meritua izan dela, eta Realeko jokalariek oraindik badutela hobetzeko tarte handia. Datorren denboraldira begira, baina, Bergarakoak ere planifikazio berba erabili du: "Bartzelona edo Real Madrid moduko taldeak ohituta daude hainbat txapelketatan jokatzera, talde osoa izaten dute, jokalari askorekin, eta guztiek dute maila oso ona. Horregatik, Realean ezinbestekoa izango da planifikazio ona egitea, gainera, abuztuan duten kanporaketa-fasean kontrario gogorrak izango dituzte. Ez da urte erraza izango, baina aldi berean, gozatzeko urtea izango da".



A.TXINTXURRETA



X.U.

**JON SAGASTA**
REALEKO JOKALARI OHIA

## "Europara joan izanagatik taldeak ez du zertan behera egin"

Beste konpromiso batzuk tarteko, Jon Sagastak onartu digu ez zuela zapatuko partidua ikusterik izan, baina bazuela itxaropena: "Futbolean edozer gerta daiteke, ezin da aurrez ezer idatzi. Liga hasieran galdetu izan balidate ez nuke usteko horren lan ona egingo zuketenik, baina ikusi zer lortu duten. Bazirudien Madrilen kontra berdindu eta Valentziak aurre hartu ostean zaila izango zela ostera ere laugarren postua berreskuratzea, baina hor ere, garbi ikusi da futbolean edozer gerta daitekeela".

Denboraldiaren balorazioa egiteko orduan, Sagastak dio gauza asko hartu behar direla kontuan: "Ez da motibo bakarra egon, gauza asko pilatu dira. Talde horrek badu zerbait berezia, eta entrenatzaile horrek jakin du serio lan egiten, baina, aldi berean, jokalarien errespetua irabazten. Fisikoki ondo egon dira, ez dute behera egin, eta hori ere garrantzitsua izan da. Alde horretatik, ez dut uste datorren urtean Txapeldunen Ligan egoteagatik ligan txarto ibili behar dutenik. Daukaten sasoi eta ilusioaz? Nik ez dut gauza horietan sinesten, nekatuta daudela eta halakoak? Ez ba!".



Antolatzaileak eta pilotua Udanako igoeraren aurkezpenean. | MIREIA BIKUÑA

**AUTO IGOERAK**

# 63 gidari lehiatuko dira Udanako auto igoeran

Errepidea 12:30ean itxiko dute, baina proba 15:00etan hasiko dute Eguzkialde parean

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Udanako auto igoera zortzigarren aldiz egingo dute bihar, zapatua. 63 gidarik parte hartuko dute –21 debagoiendarrak–, eta proba irabazteko hautagai nagusiak Aitor Zabaleta, Aitor Arakistain, Ruben Nogueiras eta Joseba Iraola dira. Errepidea 12:30ean itxiko dute eta proba bera 15:00etan hasiko da. Bi txanda izango ditu, eta 4.460 metroko luzera. Ibilbidea ez dute aldatu: Eguzkialde enpresaren parean hasi eta Udanako gaina baino 100 metro lehenago bukatuko da. "Ibilbide azkarra da, batez ere lehen zatian. Erdian gidariendako konplikatuak diren lau bihurgune daude. Azken zatia oso teknikoa da". Hala definitu zuten Udanako igoerako ibilbidea antolatzaileek, Etxe Aundin egindako agerraldian.

### Segurtasun neurriak

Antolatzaileek bereziki zaindu dituzte segurtasun neurriak. Lau bihurgune nagusiak hormigoizko blokeekin babestuko dituzte eta ibilbidean zehar 18 segurtasun postu egongo dira. "Ikusleei eskatu gura diegu segurtasun postuetan dauden komisarioen aginduak betetzeko. Ez daitezela ipini zinta gorriarekin markatuta dauden lekuetan. Guztion laguntza ezinbestekoa da, arazorik egon ez dadin", esan zuen Angel Gurrutxagak, Euskadiko Automobilismo Federazioko presidenteak.

### Autoak ikusteko aukera

Udanako igoeran parte hartuko duten autoak ikusgai egongo dira Foru plazan, 09:30etik 12:00etara arte, egiaztapenak egiten dituzten bitartean.



Iazko Emakumeen Biraren une bat. | J.L. LAZKANO

**ZIKLISMOA**

# Emakumeen Birako 103,5 kilometro Debagoieneko errepideetan gaur, egubakoitza

**M.B.** | ARETXABALETA

26. Emakumeen Birak Debagoieneko errepideak hartuko ditu gaur. Bigarren etapa hasi eta bukatu egingo da Aretxabaletan. Bailarako herri gehienak –Elgeta izan ezik gainerako guztiak– eta mendate esanguratsuenak zeharkatuko ditu; besteak beste, Udana, Deskarga, Gatzaga eta Arlaban. Guztira, 103,5 kilometro. Etapa 16:00etan hasiko da Aretxabaletako Durana kalean eta 18:35 aldera izango da irabazlea leku berean.

### San Antonio saria Bergaran

Bestalde, zapatuan, kadeteendako 77. San Antonio saria jokatuko dute Bergaran. 16:00etan irtengo dira ziklistak San Antonio auzotik, eta 60 kilometro egin ondoren leku berean bukatuko dute (17:30).




Asperen fitxaketa berria, herriko pilotalekuan. | XABIER URZELAI

PILOTA

# Beñat Rezusta pilotari bergararra fitxatu du Aspek

"Debuta egitea jada sari galanta izango da", adierazi dio Goienari atzelari bergararrak

XABIER URZELAI | BERGARA

Aspeko begiraleek begiz jota dute Debagoiena, enpresa eibartarrak taldea berritzeko orduan ibarreko pilotariak aukeratzen ditu -eta –harritzekoa ere ez da, Jokin Etxaniz kirol zuzendaria etxekoa izanda–. Oraingoan, Beñat Rezusta (Bergara, 20 urte) gaztea aukeratu dute profesionaletara salto egiteko; ondo merezitako aukera, besteak beste, 22 urtez azpikoetan munduko txapeldun izan delako, eta baita DV sariko txapeldun ere, 2010ean. Gertuago, Jaka pilotariarekin bikotea osatuta Bergara Hiria torneoa irabazi berri du, maiatzean. Eta finalean Xabier Tolosaren kontra egin zuen partidu ona lagungarri izan zen Aspeko ateak zabaltzeko.

**Debuta, ekainaren 24an**

Beñat Rezustak Eibarko pilotalekuan egingo du debuta, hilaren 24an: "Debuta egitea jada sari galanta izango da. Amets bat bete dut, eta orain helburua da profesionalen erritmora ahalik eta azkarren ohitzea.

MENDIA

# Iñurrategik Paiju Peak bidean oinarrituko du proiektu berria, Karakorumgo mendigunean

X.U. | ARETXABALETA

Basque Teameko ordezkari Alberto Iñurrategik, Juan Vallejok eta Mikel Zabaltzak Karakorumen oinarrituko dute proiektu berria, eta atzo eman zituzten egitasmoaren xehetasunak. Euren filosofiari leial jarraituz, berritasuna, erronka, zailtasuna eta estiloa uztartzeko ahalegina egingo dute Paiju Peak mendiaren hegoaldeko alde esploratu gabean.

Jomuga gogorra, Karakorumeko mendi puska horrek (6.610 m) 3.000 metrotik gorako desnibel bertikal-bertikala du-eta –kanpaleku nagusitik gailurrera–. Hala, hiru mendizaleek aurreikusi dute 10 egunetik gora beharko dituztela paretan, "kapsula estiloa" erabilita; hau da, paretan gora egin ahala kanpalekuak paretan bertan egingo dituzte.

**Behin bakarrik igo dute**

"Paiju igotzeak zailtasun handia du, eta logistika aldetik eskalada konplexua izango da," Mikel Zabaltzaren hitzetan. Ez da harritzekoa, beraz, mendiak eskalada bakarra izatea: 1976ko uztailaren 21ean Bashir Ahmed eta Nazir Sabir pakistandarrek eta Allen Steck estatubatuarrak osatutakoa.



Aurkezpen ekitaldiko une bat, atzo, eguena, Bilbon. | BASQUE TEAM


## Bazkideentzat abantaila esklusiboak




## Eraman ezazu beti txartela aldean!

## Hauek dira irabazleak!

Hauek dira MAIATZEKO SARIDUNAK izan diren GOIENA KLUBeko bazkideen izenak:

ZORIONAK, GUZTIOI!

**NESCAFE DOLCE GUSTO KAFE MAKINA****
- Cesar Azkarate Beitia (Aramaio)

**BASERRISAREAKO OTARRAK****
- Amaia Bikuña Martinez de Zuazo (Oñati)
- Mikel Eguren Laskurain (Bergara)
- Marije Balanzategi Garai (Arrasate)
- Kontxi Zubia Telleria (Bergara)

**MIHILUZE JOKOA****
- Gurutze Arizabaleta Okina (Arrasate)
- Loreto Anduaga (Aretxabaleta)

**ARRIKRUTZ KOBETARAKO bi sarrerak***
- Xabier Zabala Urriategi (Bergara)
- Ainhoa Urrutia Abarrategi (Arrasate)
- Francisco Zubia Azkoaga (Arrasate)

**BERTIKAL JOKOA****
- Mikel Sarasola Astigarraga (Arrasate)
- Eluska Irazu Hernandez (Eskoriatza)
- Iñaki Martinez Busteros (Arrasate)
- Jasone Barandiaran Osuna (Eskoriatza)
- Izar Ijurra Goñi (Arrasate)

**SARIAK JASOTZEKO**

*** Arrikrutzeko sarrerak.** Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute.
**ARRIKRUTZ KOBAK.** Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00
Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00

**** Beste sariak.** Saria jasotzeko pasa zaitezte mesedez, GOIENA Komunikazio Taldeak, Aretxabaletan duen bulegotik. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.
**GOIENA.** Basabe poligonoa E-O-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05
Ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 18:00.
Ostiraletan: 08:00 – 14:00.



Beste abantaila batzuk:
- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

KULTURA

# Debagoieneko labela duen Mozarten 'Requiem'-a, estreinatzeko gertu

▸ Oñatiko Abesbatzak eta Bergarako Orfeoiak kantatuko dute Ganbara orkestrarekin

▸ Bi emanaldi egingo dituzte: ekainaren 9an Oñatin eta ekainaren 29an Bergaran

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI

Mozarten *Requiem* meza ezaguna kantatuko dute Oñatiko Abesbatzak eta Bergarako Orfeoiak espresuki obra horretarako sortutako Ganbara orkestrarekin. Aitor Biainen zuzendaritzapean, bi emanaldi egingo dituzte: Oñatiko parrokian domekan, 19:00etan, eta ekainaren 29an Bergarako San Pedro elizan.

Bi emanaldietarako sarrerak zortzi eurotan daude salgai: Oñatirakoak, Izarraitz eta Portu tabernan gaur; eta domekan, 18:15ean plazako arkupeetan. Bergarako emanaldirako, ostera, Pikupe Produkzioen bulegoan, Bergarako kultura etxean eta Benjamin zapata-dendan daude eskuragarri.

**Iaztik gogor lanean**

Iaz egin zuten abesbatzen elkartrukean erakutsi zuten elkarrekin proiektu handi bat egiteko gogoa. "Talde handi bat izanda, argi nuen errepertorio sinfoniko bat izan behar zela eta musika arlo horretan ikurretako bat den *Requiem*-a prestatzea proposatu nien; auditoriumetan, gainera, iragarkietan eta soinu bandetan ere sarritan erabili izan ohi dena. Orokorrean, hileta meza baten egitura du eta abesbatzak, orkestrak eta lau bakarlarik elkarrekin interpretatutako zatiak txandaka tartekatuz dago osatuta", dio Aitor Biain zuzendariak.

Karlos Etxaniz Bergarako Orfeoiko kideak dio aspalditik zutela orkestrarekin kantatzeko gogoa, garai baten egiten zituzten emanaldiak egiteko ohitura berreskuratuz horrela. Oñatiarrentzako handia izan da erronka, beste era bateko errepertorioa kantatzera daude-eta ohituta.

Talde bakoitza bere aldetik hasi zen: "Ohiko dinamikari eutsiz Loli Ordokirekin astean birritan entseatu dugu", dio Oihana Diaz oñatiarrak. Orfeoikoak urtarrila ezkero ari dira lanean. Maiatzean elkartu ziren bi abesbatzak eta orkestrarekin pare bat alditan entseatuta borobildu dituzte aurre-lanak.

**6.000 euroko aurrekontua**

6.000 euro da bi saioetako aurrekontua, baina esfortzuak merezi duela diote protagonistek: "Oñatin ez daude halako ikuskizun erraldoiak herrian ikustera ohituta, eta Bergaran zaletasuna aspaldotik uztartuta dagoen arren, Bergarakoa ere oso berezia da guretako. San Pedro elizan kantatzea Orfeoiari ezin hobeto datorkio, han egiten genituen-eta garai bateko ikuskizunak".



Oñatiko ETEO egoitzan ekainaren 1ean egin zuten entseguan musikariak eta abeslariak batu ziren. | XABIER ZELAIA

**DATUA**

**146**

PARTAIDE

Taularen gainean, Oñatiko, Bergarako eta Arrasateko 120 abeslariz gainera, Ganbara Orkestrako 26 musikari ere izango dira.



AITOR BIAIN

**AITOR BIAIN**
ZUZENDARIA

## "Ikusleak emaitzarekin harritu egingo ditugula esango nuke"

Desiratzen dago domeka heldu eta zotzi hilabeteko lana jendaurrean erakusteko. Gustura da Biain taldeak egindako lanarekin eta entseguetan ikusitako emaitzarekin.

**Horrelako proiektu handi bat sekula zuzendu bakoa zinen. Zer izan da zuretako?**

Sekulako erronka,alde batetik, abesbatzaren tamainagatik; baina, era berean, pieza oso interesgarria delako. Nire ustez, musikari guztiek bizitzan behin, behintzat, kantatu behar duten horietakoa eta nik zuzendari moduan ere landu gura nuena. Sekulako ilusioa egiten dit, gainera, etxekoekin egiteak.

**Zelan moldatu zara?**

Oso esperientzia polita izan da proiektua hutsetik sortzen ikustea eta etxekoak ditudan taldekideekin ilusioa eta beldurra konpartitzea.

**Emanaldi gehiago egiteko aukerarik ikusten duzue?**

Azpiegitura handia du, baina proiektuaren funtsa kanpora eramateko modukoa da.

**Eskerrak ematen hasita...**

Lantaldetik hasiko nintzateke, duda barik. Ahaztu barik, baina, gure proiektuarekin bat egin duten guztiak; besteak beste, udalak, Eliza...

## 'Beltzezko gizonak' enkargatutakoa

*Amaitu gabeko obra* izenarekin da Mozarten *Requiem*-a ezaguna. Bizitzaren azkeneko etapan bereziki operatan murgilduta zegoela jaso zuen, konposatzaileak esaten zuen moduan, *beltzezko gizonak* egin zion hileta meza bat idazteko enkargua. Ordurako Mozart gaixorik bazegoen ere, meza idazten hasi zen, berarentzako propio zen hileta meza idazten ari zela sinetsita. 1791. urtean mezaren seigarren zatia idazten ari zela hil zen Mozart, lana amaitu barik utzita. Hurrengo urtean estreinatu zuten, baina meza entzutetsua, Mozarten emaztearen enkarguz, Franz Xaver Süssmayr dizipuluak maisuaren lana bukatuta.

## Goitik behera etxean egindakoa

Hasieratik zuten argi etxean egindako produktu bat eraiki gura zutela, bazuten-eta, inora bila joan gabe, ondo prestatutako jendea. Herri bakoitzeko bina bakarlari aukeratu zituen Biainek: Oñatiko Gorka Aranburu (tenorea) eta Oihana Diaz (altua) eta Bergarako Nere Ibarra (sopranoa) eta Karlos Etxaniz (baxua). Laurek dute bakarlari moduan eskarmentua, eta, Biainen esanetan, laurek elkarrekin oso lan polita egitea lortu dute.

Debagoienekoak dira, era berean, orkestrako musikari gehienak, baina badira Musikene Eskolako ikasleak ere. Aipatzekoa da Arrasateko Goikobaluko kide batzuek ere parte hartuko dutela.



Ester Bellver antzezten. | ESTER BELLVER

## 'Todas a la una' antzezlan hunkigarria bihar Aretxabaletan

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Zapatu gauean *Todas a la una* antzezlana ikusteko aukera egongo da Aretxabaletako Zaraia aretoan, 22:00etan hasita. Agustin Garcia Calvo antzerkigile ezagunaren testuak oinarri hartzen ditu *Todas a la una* antzezlanak.

Pertsonaia bakarra, Ester Bellver artista, irtengo da ikusleen aurrera bihar: "Jendeak ongi pasatuko du, baina esango nuke obra honekin ez dudala entretenitzea helburu, ikusleak hunkitzea baizik. Eta Garcia Calvoren testuek horretarako bidea ematen dutela iruditzen zait, autorearen hizkuntzaren erabilera bikainari esker".

Agertokiko bakartasunari buruz ere egin du berba: "Bakarrik egoteak ez du esan gura bakarrik sentitzen zarenik. Izan ere, paper ezberdinak interpretatzen dira eta horrek lagundu egiten du, ikus-entzuleekin sekulako komunikazioa egotea lortzen da-eta".

### Aretxabaleta ezagun

Biharkoa, baina, ez da madrildarra Aretxabaletan arituko den aurreneko aldia izango. Hain zuzen ere, 2009an bisitatu zuen aurrenekoz Arkupe. Kasu hartan, hark idatzitako, zuzendutako eta antzeztutako *protAgonizo* izeneko obrarekin izan zen.

# Musika fusioen erritmora Flamenko Etxearekin

Arrasateko Amaia antzokian emanaldia egingo du taldeak bihar, 20:00etan

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Musika estiloen fusioan oinarritzen da Flamenko Etxea ikuskizuna. Gorka Hermosa akordeoilari urretxuarraren eta Jose Luis Monton gitarra-jole katalanaren proiektua da eta bihar Arrasateko Amaia antzokian arituko dira, 20:00etan.



Gorka Hermosa eta Jose Luis Monton. | FLAMENKO ETXEA

### Estiloekin jolasean

Flamenko munduan gitarrista ezaguna da Monton, eta Hermosak duela sei urte ezagutu zuen Jerezko Flamenko Jaialdian; ordutik kontzertu ugari eskaini dituzte elkarrekin. "Proiektu honetara gainera, bestetan elkarlanean aritu garen artista batzuk gonbidatu ditugu: Selene Muñoz dantzari daniar-espainiarra, Maria Berasarte fado abeslari donostiarra eta Hodei Lizaso perkusionista hernaniarra, hain zuzen".

Flamenkoa oinarrizko osagai izanda, hori hartu eta beste estiloekin nahastuta, proiektu interesgarria jarraitzeko aukera egongo da bihar Arrasaten: "Ez zaizkit sekula etiketak gustatu, momentu bakoitzean nahi izan dudana egin dut, musikan askatasuna oso garrantzitsua baita. Hori bai, akordeoiarekin espero ez diren musikak egiten ahalegindu naiz beti".

### Euskal kutsuko lana

Urretxuarraren esanetan, sarri galdetu izan diote euskal musika eta flamenkoa uztartzearen ideia nola sortu zen. "Oso gauza naturala dela esango nuke. Jose Luisek flamenkoa egiten du eta ni euskalduna naiz, ez dago misterio handirik. Bion arteko espazio komunak euskal kutsua eduki behar zuela iruditzen zitzaidan".

Horren adibide moduan, ikus-entzuleek flamenkoa euskaraz ere egin daitekeela ikusiko dute bihar Amaian: "Euskarazko kantu bat ere badaukagu, *Lau Haizetara*".

ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.
RENOVE PLANA

GARBIGAILUA ALF-1106 — 1000 b/min, 6 Kg — A++ Sailkapen energetikoa — aspes — 290 -105 185 €
GARBIGAILUA FE-6012 — 1200 b/min, 6 Kg — A++ Sailkapen energetikoa — FAGOR — 345 -105 240 €
GARBIGAILUA F-7212 — 1200 b/min, 7 Kg — A+++ Sailkapen energetikoa — FAGOR — 375 -125 250 €
GARBIGAILUA F-7212X — 1200 b/min, 7 Kg — A+++ Sailkapen energetikoa — FAGOR — 475 -125 350 €
GARBIGAILUA F-8212 — 1200 b/min, 8 Kg — A+++ Sailkapen energetikoa — FAGOR — 399 -125 274 €
ONTZI-GARBITZAILEA LVF13 — 1000 b/min, 6 Kg — A++ Sailkapen energetikoa — FAGOR — 405 -105 300 €
ONTZI-GARBITZAILEA LVF13X — 1000 b/min, 6 Kg — A++ Sailkapen energetikoa — FAGOR — 420 -105 315 €
HOZKAILUA FFK-6885X — 2005 x 600 x 610 — A++ Sailkapen energetikoa — FAGOR — 785 -105 680 €
HOZKAILUA FFK-6785X — 1860 x 600 x 610 — A++ Sailkapen energetikoa — FAGOR — 645 -105 540 €
INDUKZIO PLAKA IF-33BS — 395 €
LABE PIROLITIKOA 6H-760AX — 395 €
FAGOR
BERMEA 2 URTE

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Etorri gure altzari erakusketa berria ikustera eta DESKONTU HANDIAK izango dituzu!

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

# Arantzazuko Basilikako arkitektura gaztetxoengandik gertuago, bihar

- Aurtengo bigarren arkitektura tailerra egingo dute bihar, zapatua, goizean
- 6-11 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako ekimena da

**UBANE MADERA** | ARANTZAZU

Arkitektura tailerra 10:00etan hasiko da Arantzazuko basilikaren bisita gidatu batekin. Basilika bera osatzen duten eraikuntza eta arte elementu garrantzitsu edo nagusiak identifikatu beharko dituzte, eta elkarren artean duten harremana aztertuko dute. Izan ere, hasierako bisita horren helburua da "arkitekturak gainontzeko arteekin duen berezko lotura bistan jartzea, obra eskultorikoek eta piktorikoek ere Basilika osatzeko eraikuntzako elementu gisa duten balioa nabarmenduz", antolatzaileen azalpenen arabera.



Neska-mutikoak arkitektura tailerrean, ikasten. | MAUSHAUS

### Gero, Gandiagara

Basilikara egindako bisitaren ostean, Gandiaga Topagunea dute hurrengo hitzordu neska-mutikoek. Han, hiru taldetan banatuko dituzte ikasle gaztetxoak; arkitektoak, eskultoreak eta margolariak. Eta modu horretan antolatuta, Arantzazuko basilika egin ahal izateko, bertan parte hartu zuen lan-talde bakoitzak garatu zuen prozesua, zailtasunak eta diziplinen arteko koordinazioa izango dute aztergai.

Interpretazio-maketa bat eginez amaituko dute arkitektura tailerra. "Emaitza kartoiz, plastiko likidoz, pasta zuriz, tenpera -pinturaz zein bestelako materialez osatutako Arantzazuko Basilikaren maketa-interpretazioa izango da", zehaztu dute.

13:30ak inguruan bukatuko da ekimena.

### Elkarlana hobeto ezagutuz

Hori guztia egingo dute Francisco J. Saenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoek eta Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Nestor Basterretxea, Lucio Muñoz eta Xavier Alvarez de Eulate artistek egindako lana bertatik bertara ezagutarazten laguntzeko helburuarekin. Hain zuzen ere, artistok "Arantzazuko Basilika XX. mendeko monumentu artistiko esanguratsuenetarikoa gauzatzeko elkarrekin egin zuten lana hobeto ulertu" ahal izateko.

Arantzazu Gaur Fundazioak Jorge Oteiza museoarekin batera antolatutako ekimena da tailer ezohiko hori.

Maushaus izeneko Donostiako estudioa arduratuko da ekimen didaktiko horretaz. Eta zentzu bereko bigarren hitzordua dute gurean. Lehenengoa maiatz hasieran egin zuten, hori ere Arantzazun, eta 20 partaide izan zituen orduan. Oraingoan ere, asko jota beste horrenbeste umerendako lekua du ekitaldi kultural-pedagogiko horrek.

## Maushaus: hezkuntza eremu berria

Maushaus hezkuntza artistiko-teknikorako proiektua da, gaztetxoei zuzendutakoa eta tailerren bidez arkitekturarekiko harreman afektiboa ezartzea eta ingurua osatzen duten elementuen azterketaren bidez haren hizkuntzaz jabetzea helburu duena. Hezkuntza eremu berria proposatzen du, jarduera teknikoak eta bestelakoak modu ludikoan gauzatzeko. Eta bide horretan ekitaldi kultural eta pedagogikoetarako tailerrak diseinatzen ditu.

## Gallastegi ekonomialaria, Eusko Ikaskuntzako saridun

Mari Carmen Gallastegi ekonomialaria, Jaurlaritzako sailburu ohia eta Jakiundeko akademiko bergararrak eskuratu du aurtengo Eusko Ikaskuntza saria, atzo, eguena, aditzera eman zutenez. Hark Euskal Herriko Unibertsitatean ikerketaren alorrean egindako lana eta "euskal erakundeekiko konpromisoa" nabarmendu ditu epaimahaiak sariaren arrazoi modura. Gallastegirekin batera, Francisco Etxeberria auzitegi-medikuak ere eskuratu du sari hori.

## Opera ikustera Bilbora joan ahal izateko abantailak, Arrasaten

Arrasate Musikalek eta ABAOk (Asociacion Bilbaina de Amigos de la Opera) elkarteak hitzarmena adostu dute. Hari esker, Arrasate Musikaleko ikasleek, irakasleek, gurasoek eta bazkideek %10eko beherapena izango dute operako elkartearen urteko abonuan. Horrez gainera, ekitaldiak ikustera Bilboko Euskalduna jauregira joateko autobusa doan izango dute Arrasatetik, betiere, gutxienez 25 lagunek izena ematen badute.



**Xabi Igoa** | LEINNeko ikaslea

# "Ikasketa bidaiak oso aberasgarriak izaten dira; Txinan eta Indian asko ikasi dut"







**Xabi Igoa, Txinako Harresi Handian. India gertutik ezagutzeko aukera ere izan du (argazki txikietan).**

**RUBEN CUESTA** | ARAMAIO

Xabi Igoak (Aramaio, 1992) Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan Gradua egiten dihardu Mondragon Unibertsitatean, Oñatiko fakultatean, eta datorren urtean amaituko du. Horrez gain, bertsolaria da eta kirola maite du. Aurten, Txinan eta Indian egon da, eta, guztira, 80 egun igaro ditu. Ez da kontinentetik irteten den lehen aldia, eta, seguruenik, mundua ezagutzen jarraituko du. Minutu batzuk eskaini dizkigu bere bidaiaren berri emateko.

**Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan Gradua ikasten ari zara. Zertan datza gradua?**

Guztiz praktikoa den gradua da, eta enpresa bat sortu dugu. Azterketak egin beharrean, sortutako enpresa aurrera atera behar dugu taldekideen artean. Benetako enpresa eraiki dugu eta Snatu *(http://snatu.wordpress.com/)* du izena. Hamaika ikaslek osatzen dugu proiektu hau, eta gure funtzionamendua honakoa da: proiektuen bidez funtzionatzen dugu, eta aurrera eramaten ditugun ekitaldietatik dirua lortzen dugu; horiekin lortutakoarekin ikasketa bidaiak ordaintzen ditugu.

**Zergatik egin duzue bidaia?**

Urtero unibertsitatetik egiten ditugu bidaiak. Lehenengo urtean Finlandiara joan ginen, iaz San Frantziskora eta aurten Txina eta Indiara joatea egokitu zaigu. Azpimarratzekoa da ikasketa bidaiak direla; hau da, ikasteko eta garatzeko helburuarekin diseinatutako joan-etorriak direla. Finlandiaren kasuan, modelo hau bertan hasi zelako joan ginen; San Frantziskora, aldiz, enpresen mugimendu berrien gainean zer zegoen jakiteko –azpimarratzekoak, besteak beste, Facebook eta Google–, eta aurten Txina eta Indiara joan gara, hazten dauden herrialdeak direlako.

**Zein hirietatik pasa zarete?**

Txinan, Shanghain egon ginen, 23 milioi biztanle baino gehiago dituen hirian; eta Indian Tunen egon gara, baina hainbat hiritatik ere pasa gara; besteak beste, Agra, Calcutta eta Bombay.

**Nolakoak dira Txinako eta Indiako ikasle eta langileen ohiturak?**

Ikasleekin baino gehiago, enpresako jendearekin izan dugu kontaktua. Proiektua garatzera joan gara eta espazio egokitu batean egin dugu lan. Txinatarren kasuan, asko harritu nau diruari ematen dioten garrantziak. Ekonomikoki asko hazi dira eta hazkunde hori oso ongi nabari da. Gizarteari dagokionez, gero eta goi-erdi mailako eta goi mailako familia gehiago ikusten dira. Guk hemen txinera ikasten ibili gara. Gutxieneko kontzeptu batzuk ezagutuz barrera batzuk apurtzen dira. Hori bai, txinatarrak nahiko itxiak dira. Indiako kasuan, pobrezia handiagoa dago. Jendea oso gertukoa da, baina barrera kultural eta erlijioso asko dituzte, hala ere, zabalagoak dira. Han badaukazu barre egiteko aukera, bai langileekin, bai taxi-gidariarekin. Irekiagoak direnez, errazagoa da haiekin lan egitea.

**Eta bidaiatik zer izan da zuretzat zirraragarriena?**

Txinatik gehien harritu nauena izan da garapen bidean baino gehiago, garatuta dagoen herrialdea dela. Baina ez dakit noraino heltzeko prest dauden; izan ere, diruak garrantzi handia du, uste baino handiagoa. Indian gehien harritu nauena jendearen irribarrea izan da. Kaleetan zehar miseria handia ikus daiteke, pobrezian bizi den herrialdea delako, baina ikusten diren irribarreak ahaztezinak dira.

**Bidaian denetik ikusiko zenuen... baina zein paisaiak harritu zaitu gehien?**

Txinan, Shanghai gauez da ongi gogoratzen dudan irudia; kolore guztietako argiak piztuta kalean zehar. Dudarik gabe, garapenaren erreflexua da.

**Buruan duzun proiekturen bat?**

Snatu garatzen jarraituko dugu, gutxienez, urte batez.

**Eta amaitzeko, animatuko zenuke jendea ikasketa bidaiak egitera?**

Bai, oso gomendagarriak eta aberasgarriak dira halako esperientziak. Gainerakoengandik ikasteko oso aukera polita da. Bidaiatik bueltan, asko baloratzen dugu daukaguna.

## PERTSONALA

**Musika talde bat:** Berri Txarrak.

**Irakurritako azken liburua:** Andoni Egañaren *Hogeita bina*.

**Film bat:** Olivier Marchal-en *Les Lyonnais*.

**Janari bat:** Baratzeko entsalada.

**Kirol bat:** Saskibaloia.

**Txineraz hitz bat:** *Xie Xie* (Eskerrik asko).

**Indiarrez hitz bat:** *Namaste* (Kaixo).

**Bizi izateko leku bat:** Aramaio.

**Hurrengo bidaia:** Algarvera, Portugalera.



XABI IGOA

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Aukera ona. Gantzaga auzoan etxebizitza bakarra salgai. 2000 urtean eraikia. 8000 metroko lursailarekin. 636 94 81 31

**Oñati.** Duplexa salgai. Berria. Urte bat baino gutxiago dauka. Lau logela eta hiru komun. Beheko solairua jantzita dago. Erdigunetik oso gertu. Deitu telefono honetara: 656 74 29 49

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 2013-2014 ikasturterako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Unibertsitatetik oso gertu. 605 77 51 71

**Arrasate.** Ikasleendako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Erguin 7an. Egongela ere badu. Laugarren solairua, igogailuarekin. Berokuntza indibidualarekin. 676 85 45 36 edo 943 79 83 48

**Arrasate.** Uriburu kalean etxebizitza ematen da errentan, logelaka edo osorik. 650 02 79 29 edo 943 79 99 63

**Laredo.** Apartamentua ematen da errentan. Bistak itsasora. Deitu arratsaldez zenbaki honetara: 687 95 13 44

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Kurtzebide kaleko 5. zenbakian. Deitu telefono honetara: 615 73 29 83

**Peñiscola.** San Juanetarako edo oporretarako apartamentua ematen da errentan. Lau pertsonarendako modukoa. Hondartzatik bi minutura. Guztiz jantzia. Aparkalekuarekin. Igerilekua eta igogailua dauzka. Deitu telefono honetara: 670 66 64 13

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, prezio onean. Hiru logelakoa. 648 46 90 51

**Baserri bila.** Baserri bat errentan hartuko genuke Bergara inguruan. Deitu telefono honetara. Ione. 615 734 553 edo 943 76 54 12

**Bergara.** Alokairuan hartzeko etxe bila nabil. 400 eurotik behera. 622 94 19 12

**Bergara.** Hiru logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. 654 24 13 27

**Bergara.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 664 88 26 43

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan erdigunean, sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. 603 14 28 89

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono honetara: 629 80 77 73

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 225 euro dena barne. Wifiarekin. Interesatuok deitu telefono honetara: 670 85 86 68

**Logela bila nabil.** 40 urteko gizon bat naiz eta logela bat alokatuko nuke Arrasaten. 680 30 06 05

**Oñati.** Etxea osatzeko jendea behar da. Iikasleak ere izan daitezke. Duplexa. Goiko solairuko bi logelak bete nahi dira. Komuna goiko pisuan. Sukaldea eta egongela konpartitzeko. Plazatik hiru minutura. 656 74 29 49

**Oñati.** Pisua osatzeko pertsona bat beharko genuke. Langilea izatea gustatuko litzaiguke. Deitu 653 74 87 51 zenbakira 20:00etatik aurrera.

### 106. BESTELAKOAK

**Trukea.** Oletan dagoen etxea, lursailarekin, trukatuko genuke Arrasateko etxebizitza batekin. Deitu 645 73 82 31 edo 648 06 65 24 zenbakietara.

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Oñati.** San Lorentzo auzoko 10ean garaje itxia ematen da errentan. 943 78 13 57 edo 686 76 01 87

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje bat errentan hartuko nuke Bergara erdialdean. Gehienez ere 60 eurotan. 635 72 44 36

**Oñati.** Garaje itxia alokatuko nuke Kalegoienan. Gehienez 60 euro ordainduko nituzke. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 653 71 04 56

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Udan umeak zaindu.** Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620 95 46 11

**Uztailerako lan bila.** Uztailean haurrak zaintzeko edo ludotekara eramateko prest dagoen neska Markinarra naiz (haur -hezkuntzako goi mailako zikloarekin). Interesatuak deitu telefono honetara. Eskerrik asko. 628 43 76 30

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Garbitasunean, etxeko lanak egiten edota ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Egun osoz, orduka eta baita egun solteetan ere. 625 86 99 51

**Arrasate eta Aretxabaleta.** Haur Hezkuntza ikasketak aurten bukatuko dituen neska euskalduna ekainean eta uztailean umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 87 12 97

**Arrasate.** 54 urteko emakumea lanerako gertu, pertsona nagusiak zaintzeko, umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. 943 79 60 89

**Arrasate.** Atariak garbitu edo nagusi zein umeak zainduko nituzke. Etxean bizi izaten edo bestela. Legezko paperak ditut. 627 12 16 33

**Arrasate.** Atariak garbitzen edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka eta baita asteburuetan ere. 636 47 64 92

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. 699 54 17 27

**Bergara.** Haur Hezkuntzako ikasketak dituen neska euskaldun arduratsua uztailean umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 76 29 25

**Bergara.** 16:00etatik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko gertu nago. Urte askotako esperientziaduna. 610 34 97 88

**Bergara.** 49 urteko neska euskalduna lanerako gertu: umeak zaindu, etxeko lana eta bazkariak, sukalde laguntzaile edo zerbitzari eta abar. 943 76 52 39

**Bergara.** Emakume arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko gertu. Puerikultura tituluduna. Arantxa. Deitu telefono honetara: 688 65 30 62

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Bergara.** Haur hezkuntza ikasketak egiten ari den neska euskalduna ekainean eta uztailean haurrak zaintzeko prest. 618 43 60 35 edo 943 76 32 27

**Bergara.** Neska lan egiteko gertu, garbitasun lanak: etxeak, tabernak eta abar. Deitu telefono honetara: 622 94 19 12

**Debagoiena.** Adin nagusikoak zaindu, egunez zein gauez eta etxeko lanak egiten ditut. Orduka edo lanaldi osoan. Deitu 727 74 42 36 telefonora.

**Debagoiena.** Begirale bezala esperientzia duen gazte euskalduna umak zaintzeko gertu ekain, uztail eta abuztuko lehen hamar egunetan. Jon Ander. Interesatuok deitu telefono honetara: 660 00 79 17

**Debagoiena.** Denetariko garbitasunak egingo nituzke, urtetan horretan aritutakoa naiz -eta. Umeak zaintzen ere esperientzia daukat. Ez nuke asegururik behar izango. Interesatuok deitu telefono honetara: 647 10 58 72

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Zubieta 70 m², 3 logela. Oso ondo. 132.223€.
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 m², 3 logela, trastelekua. Garajea aukeran. 150.000€.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000€ PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000€.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabalotegi 2 eta 3 logeletako pisuak OSO PREZIO ONEAN.
- Bidekurutzeta 147 m2. Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m2, logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000€.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000€.
- Justo Garate 50 m², 2 logela. 10 m² terraza. Oso ondo. 210.350€. PREZIO JAITSIERA.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000€.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000€.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 169.500€.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212€. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m2 + 45 m2 garajea + 90 m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 150.000€. AUKERA BIKAINA.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua umeak edo nagusiak zaintzen eta garbitasun lanetan jarduteko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 638 82 25 57

**Debagoiena.** Emakume espainiarra lanerako gertu garbitasun lanetan zein nagusien eta umeen zaintzan jarduteko. Baita etxean bertan bizi izaten edo gauak egiteko ere. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 32 43 67

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. Eskarmentua daukat lantegian, dendan, nagusi zein umeak zaindu eta abarrean. Interesatuok deitu honetara: 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: garbitasunak, pertsonen zaintza egunez, hotelean, sukaldean eta abar. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 11 23 40

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusiak etxean bizi izaten edo bestela zaintzen, atari, taberna eta abarrak garbitzen. Interesatuok deitu telefono honetara: 671 10 39 13

**Debagoiena.** Emakumea orduka lan egiteko gertu, nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten. Maite. 943 76 48 26 edo 650 17 74 87

**Debagoiena.** Eritzaintza tituludun neska lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasun lanetan, gauak ospitalean egiten eta abar. Autoa daukat. Debagoienetik kanpo ere lan egingo nuke. Deitu 688 80 27 01 edo 943 25 02 96 zenbakietara.

**Debagoiena.** Garbitasuna lanetan, eraikuntzan, banaketak egiten edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Nortasun agiria legeztatuta daukat. Interesatuok deitu telefono zenbakihonetara: 682 51 83 70

**Debagoiena.** Gidari lanak egingo nituzke. Baimen guztiak dauzkat eta urte askotako esperientzia. Berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 66 69 77

**Debagoiena.** Gizonezkoa lan bila: garbiketak, tabernatan, banaketan eta abar. 679 60 08 48

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. Tabernari zein garbitasun lanetan jardungo nuke. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Hamar urteko esperientzia duen emakumea lanerako gertu: nagusi edo umeak zaintzen, garbitasunean eta abar. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Legezko paperak ditut. 634 11 31 09

**Debagoiena.** Mutil boliviarra pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan eginez. Carlos. 631 36 17 62

**Debagoiena.** Mutil gazte euskalduna lanerako prest. Baserrieta, tabernan eta abar. 647 19 86 00

**Debagoiena.** Mutil senegaldarra garbiketa lanak egiteko prest Bergara eta inguruetan. 626 78 33 80

**Debagoiena.** Mutila gertu lanerako: garbitasun lanak edo nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 661 94 19 13

**Debagoiena.** Mutila edozein motatako lanak egiteko prest. 602 87 46 25 edo 605 44 61 98

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zainduko nituzke, baita etxean bizi izaten ere. Garbitasunean, tabernatan edo sukaldean ere lan egin dezaket. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Oinarrizko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna. Etxe, atari, taberna eta bestelako garbiketak egingo nituzke eta baita nagusiak zaindu ere. Etxean bertan bizi izaten edo egun osoz zein orduka. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak edo umeak zaindu eta sukalde zein garbitasun lanetan. Interesatuok deitu telefono honetara: 688 68 12 79

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu zein garbiketak egiten. Orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu telefono honetara: 629 80 77 73

**Debagoiena.** Neska eskarmentuduna lanerako gertu: garbitasunak edo ume zein nagusiak zaintzen. Legezko paperak eta autoa dauzkat. 680 87 38 66

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna lanerako gertu. Garbitasun lanak edo umeak zainduko nituzke. Orduka edo egun osoz. 664 37 49 85

**Debagoiena.** Neska garbitasun lanak egiteko gertu. Orduka edo arratsaldez. 672 70 71 25

**Debagoiena.** Neska lan bila dabil. Garbiketa lanak egingo nituzke: atarteak, etxeak, elkarteak eta tarbenak, baita nagusiak zaindu ere. Sukaldean esperientzia daukat eta kotxeko karneta. Esperientziaduna. 602 36 39 92

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu etxe lanetan, garbitasunetan, etxean bizi izaten, orduka edo egun osoz. 648 46 90 51

**Debagoiena.** Neska lanerako prest. Erizaintza laguntzaile ikasketak ditu. Ospitalean gaua pasatzeko zein nagusiak zaintzeko orduka. Tabernan lan egiteko, umeak zaintzeko edo dendan lan egiteko ere prest. Autoa dauka. 617 20 59 43

**Debagoiena.** Neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Legezko paperekin. 633 77 44 24

**Debagoiena.** Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egingo nituzke bai etxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 631 45 60 53

**Debagoiena.** Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egingo nituzke bai etxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 633 28 81 24

**Debagoiena.** Paperak dituen pertsona lanerako gertu; garbiketan edo pertsona nagusiak zaintzen. Debagoiena osoan. 672 96 08 22

**Debagoiena.** Prest nago mandatuak egin, autoan leku batetik bestera eraman eta antzeko lanak egiteko, prezio onean. 607 34 90 43

**Debagoiena.** Ume eta nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan, tabernatan, sukaldean. lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izateko ere gertu nago. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 680 87 38 66

**Oñati.** Lehen Hezkuntzako ikasle euskalduna haurrak zaintzeko prest ekain, uztailaeta abuztuan. Deitu telefono honetara: 660 77 87 65

## 5. IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Bergara.** Ingelesezko eskolak ematen ditut ekainean eta uztailean. Ikastaro trinkoak, maila guztietan. Baita HEOko zein Cambridge-ko azterketak prestatzeko ere. Talde murriztuak. 618 91 32 89

**Gitarra elektrikoa.** Gitarra elektrikoko eskolak ematen ditut. Etxera joango nintzateke. Metodo erraza eta dibertigarria. Merke. 679 74 00 61

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak.** Egongelarako eta sarrerarako moduko altzari edota osagarriak saltzen ditugu: aparadorea, alazena eta abar. Dena batera edo bakarka. Estilo rustikoa eta kolore argia dute. Prezio onean. Debagoienean. 608 34 85 23

### 802. EROSI

**DVD irakurgailu eramangarria.** Bi pantailadun DVD irakurgailu eramangarria erosiko nuke. 665 75 64 38

**Klarinetea.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. 688 84 10 82

**Samsung Galaxy SII-SIII.** Bigarren eskuko Samsung Galaxy SII-SIII edo antzerako mugikorra erosiko nuke. 647 31 64 41

**Trikitia.** Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. 600 37 54 97

### 804. HARTU

**Sofa zaharrak hartzen dira.** Sofa zaharrak hartzeaz arduratzen gara. Etxeetatik hartu eta ondoren bere berrerabilpenaz edo birziklatzeaz arduratzen gera. Zerbitzu guztiz doakoa da. 671 92 06 49

### 805. TRUKATU

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzke ortua jartzeko lursail baten truke. 943 77 00 19

### 806. GALDU

**Aretxabaletan erlojua galdu.** Larunbat arratsaldean Iturrigorri frontoi inguruan edota Durana kalean mutikoen erloju digital beltz bat galdu nuen. Aurkitu duenak deitu dezala zenbaki honetara mesedez. 679 86 67 38 edo 943 25 05 44

**Eraztuna Arrasaten.** Zapatuan, maiatzaren 11n, eraztuna galdu nuen Forum Sport dendan. Goizean. Eraztun handia da, anbar kolorekoa eta harri bat dauka. 628 77 58 28

**Erlojua Arrasaten.** Jose Luis Inarra kaletik Zerrajerako Eroskira bidean, Maala errabaletik pasatuta, erlojua galdu da. Zilar kolorekoa, kate-mailaduna, laukiluze formaduna. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara mesedez: 943 79 38 29

**Mobila.** Mobila galdu dut. HTC One X. Funda arrosa batean. Ozaetan. 50 euro emango ditut. Eskerrik asko. 672 25 74 26

**Patinetea Aramaion.** Oxelo patinete beltza eta urdina galdu nuen ekaineko lehen igandean parke inguruan. Aurkitzen baduzue deitu mesedez. 945 44 50 97 edo 692 70 42 71

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Euskara-Frantsesa Arrasaten.** Nik zuri euskara erakutsiko nizuke eta zuk niri frantsesa. Elkartu eta mintzatzea litzateke asmoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 76 59 73

**Hizkuntza elkartrukea Arrasaten.** Belgikako ikaslea naiz eta hizkuntza elkartrukea egiteko jende bila nabil. Nik gaztelania ikasi nahi dut eta holanderaz, ingelesez, alemanieraz, frantsez eta italieraz egiten dut, maila ezberdinetan bada ere. Gaztelaniaz maila ertaina daukat. Kontakturako idatzi mezu bat: Vandekerkhof_niels@hotmail.com helbidera edo (+32) 476 02 22 52 zenbakira.

## ASTEA GOIENAN


JULEN IRIONDO

### 'Pedalka' saioaren beste atal bat

Julen Iriondo kazetariak Vars mendatea igotzen amaituko du egueneko saioa eta Barcelonnette herria bisitatuko du. Alpeetan dago Barcelonnette, Frantzian, baina etxe asko Mexikon daudenen modukoak dira. Goza ezazue hurrengo saioa.
**'Pedalka'**
Eguena, 21:53


VELOCIOSPORTS.COM

### Emakumeen Bira, 'Harmailatik'-en

Emakumeen Birako bigarren etapa Aretxabaletan hasi eta bukatuko da gaur, egubakoitza. Bada, Goiena telebistako kamerak bertan izango dira eta han jasotakoak erakutsiko dizkizuegu asteleheneko kirol saioan, *Harmailatik*-en.
**'Harmailatik'**
Astelehena, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 7

**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Gurean gaur
**13:30** Onein
**13:55** Pedalka
**14:25** Ikusmira
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Planik bai?
**15:33** AZK2012
**16:03** Erreportajea
**16:48** Beranduegi.tv
**17:18** Zorion Agurrak
**17:24** Planik bai?
**17:44** Berriak
**18:09** Eguraldia
**18:12** Planik bai?
**18:32** Altxorraren bila
**19:04** Zorion Agurrak
**19:10** 28.Klip
**19:42** Beranduegi.tv
**20:07** Zorion Agurrak
**20:12** Berriak
**20:42** Eguraldia
**20:45** Planik bai?
**21:05** Gurean gaur
**21:30** Pedalka
**22:00** AsteON
**22:30** Jaiak: Corpusak
**23:00** Berriak
**23:25** Eguraldia
**23:28** AsteON
**23:58** Planik bai?

### ZAPATUA, 8

**10:00** 28.Klip
**10:30** Beranduegi.tv
**10:55** Magazinea
**11:55** Jaiak: Corpusak
**12:15** Klaketa
**12:55** Onein
**13:20** Berriak
**13:35** AsteON
**14:05** Magazinea
**15:05** Zorion Agurrak
**15:10** Onein
**15:37** Pedalka
**15:57** Huhezinema
**16:27** Altxorraren bila
**16:55** Onein
**17:22** Zorion Agurrak
**17:27** AZK2012
**17:51** Jaiak: Corpusak
**18:11** Magazinea
**19:11** Planik bai?
**19:31** Berriak
**19:46** AsteON
**20:16** Beranduegi.tv
**20:41** Berriak
**20:56** Pedalka
**21:26** Magazinea
**22:26** Berriak
**22:41** AsteON
**23:11** Jaiak: Corpusak
**23:31** Kontzertua: Bakearen doinuak
**00:12** AZK2012

### DOMEKA, 9

**10:00** Magazinea
**11:00** Zorion Agurrak
**11:05** Huhezinema
**11:35** Onein
**12:00** AZK2012
**13:00** Kontzertua: Bakearen doinuak
**14:42** Onein
**15:08** Magazinea
**16:08** AsteON
**16:38** Zorion Agurrak
**16:43** Jaiak: Corpusak
**17:03** Pedalka
**17:33** Planik bai?
**17:53** Beranduegi.tv
**18:17** Klaketa
**18:57** Jaiak: Corpusak
**19:17** Magazinea
**20:17** Berriak
**20:32** Zorion Agurrak
**20:37** AsteON
**21:07** Magazinea
**22:07** Klaketa
**22:47** Beranduegi.tv
**23:12** Magazinea
**00:10** Eguraldia

### ASTELEHENA, 10

**12:00** Magazinea
**13:00** Gurean gaur
**13:30** Zorion Agurrak
**13:36** Pedalka
**14:06** AsteON
**14:36** Berriak
**15:06** Eguraldia
**15:09** Zorion Agurrak
**15:14** AZK2012
**16:14** Pedalka
**16:44** Zorion Agurrak
**16:49** Berriak
**17:19** Eguraldia
**17:22** Onein
**17:46** Kontzertua: Bakearen doinuak
**19:28** Beranduegi.tv
**19:48** Berriak
**20:13** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:30** Berriak
**21:55** Eguraldia
**22:00** Harmailatik
**22:45** Magazinea
**23:45** Berriak
**00:18** Eguraldia

### MARTITZENA, 11

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:22** Harmailatik
**14:07** Nere herrie
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Harmailatik
**15:58** Onein
**16:25** AsteON
**16:55** Zorion Agurrak
**17:00** Berriak
**17:25** Eguraldia
**17:28** AZK2012
**17:58** Altxorraren bila
**18:26** Zorion Agurrak
**18:31** Beranduegi.tv
**18:56** Harmailatik
**19:41** Zorion Agurrak
**19:46** Berriak
**20:11** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**20:58** Gurean gaur
**21:28** Huhezinema
**21:58** Berriak
**22:23** Eguraldia
**22:28** Magazinea
**23:13** Klaketa
**23:53** Berriak

### EGUAZTENA, 12

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:18** Harmailatik
**14:03** Pedalka
**14:33** Zorion Agurrak
**14:40** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Klaketa
**15:48** Onein
**16:13** Harmailatik
**16:58** Huhezinema
**17:28** Zorion Agurrak
**17:33** Berriak
**17:58** Eguraldia
**18:00** Ur eta lur
**18:30** Harmailatik
**19:15** Zorion Agurrak
**19:19** Berriak
**19:44** Eguraldia
**19:47** Magazinea
**20:32** Gurean gaur
**21:02** AsteON
**21:32** Berriak
**21:57** Eguraldia
**21:59** Magazinea
**22:44** Harmailatik
**23:29** Berriak
**23:54** Eguraldia
**23:57** Magazinea
**00:36** Berriak
**01:01** Eguraldia

### EGUENA, 13

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:10** Huhezinema
**13:40** Nere herrie
**14:10** Onein
**14:46** Zorion Agurrak
**14:49** Berriak
**15:14** Eguraldia
**15:17** Kontzertua: Bakearen doinuak
**17:00** AZK2012
**17:30** Berriak
**17:55** Eguraldia
**17:58** Onein
**18:24** Planik bai?
**18:44** Huhezinema
**19:14** Zorion Agurrak
**19:19** Planik bai?
**19:44** Zorion Agurrak
**19:50** Berriak
**20:15** Eguraldia
**20:18** Magazinea
**21:03** Gurean gaur
**21:53** Pedalka
**22:23** Planik bai?
**22:43** Berriak
**23:08** Eguraldia
**23:11** Magazinea
**23:56** Klaketa
**00:13** Eguraldia

## ARRASATE IRRATIA

### Asteko gainbegiratua zapatuan eta domekan 10:00etan

Asteon irratian izan ditugun elkarrizketak entzun ahal izango dituzue asteburuan 107.7an. Besteak beste, entzun ahal izango duzue *Flamenko etxea* ikuskizunari buruzko elkarrizketa eta asteburuan Arantzazun umeendako emango duten arkitektura tailerrari buruzkoa.

### Baserritarren azoka izango dugu berbagai datorren astean

Baserritarren azoka egingo dute datorren astean Arrasaten eta horri buruz hitz egingo dugu Marga Garmendiarekin Landa eta Garapen teknikariarekin, *Igo autobusera!* irratsaioan. Edozelan ere, bestelako elkarrizketak ere izango ditugu datorren asteko saioetan.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 7** | RUIZ | Nafarroa Etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| **Zapatua, 8** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea 38 | 943 77 16 30 |
| **Domeka, 9** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea 1 | 943 79 15 15 |
| **Astelehena, 10** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Martitzena, 11** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea 1 | 943 79 22 26 |
| **Eguaztena, 12** | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| **Eguena, 13** | AMEZUA | Sta. Marina 32 | 943 79 09 74 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 7** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **Zapatua, 8** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Domeka, 9** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Astelehena, 10** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Martitzena, 11** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 12** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguena, 13** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 7** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Zapatua, 8** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Domeka, 9** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Astelehena, 10** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Martitzena, 11** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguaztena, 12** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguena, 13** | GARATE | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



Max. 18º
Min. 10º

**ZAPATUA, 8**
Zapatuan zaparradak izango ditugu eta tenperatura jaitsi egingo da; eta nabarmen, gainera.



Max. 18º
Min. 10º

**DOMEKA, 9**
Domekan eguraldiak hobera egingo du eta eguzki izpiak ikusi ahal izango ditugu. Tenperatura mantendu egingo da.

### EUSKAL HERRIA



Zapatuan eguraldiak okerrera egingo du eta tenperatura jaitsi egingo da orokorrean.

## GAZTE INFORMAZIOA

### BEKAK

**Australia.** Australiako Hezkuntza, Lan eta Lan Harreman Ministerioa. Gradu edo graduondoko ikasketak egiteko, master edo doktoradutza ikasketen esparruan ikerketak egiteko edo australiar enpresa edo erakundeetan praktika profesionalak egiteko. Epea: ekainak 30.

### LEHIAKETAK

**Bideo laburrak.** Skate, mikropatin, BMX, roller edo bestelako irrristagailuekin egindako bideo laburren lehiaketa (1 eta 3 minutu artekoa). 12-17 urte arteko gazteentzat. Epea: ekainak 13.

### LANA

**Hainbat lanpostu.** Bizkaiko Foru Aldundia. 10 basoko agente, 23 suhiltzaile gidari eta 6 industria ingeniari. Ekainak 10.

**Begiraleak Elgetako Udalekutarako.** Elgetako Udala. Udalekuetako egitaraua prestatu eta uztailean udalekuetan lan egiteko begiraleak behar dira. Epea: ekainak 10.

### UDAKO UNIBERTSITATEAK

**EHU.** Ekainetik irailera bitartean Miramar jauregian (Donostian) izango dira alor asko lantzeko: historia eta kultura, hizkuntzalaritza, literatura, kirola, psikologia, osasun zientziak, bizitzaren bidaia, zuzenbidea, gizartea, energia, ingurumena, ekonomia, teknologia... *www.sc.ehu.es/cursosdeverano*.

**UEU.** Uztailaren 1etik 24ra, Eibarren, Baionan eta Iruñean. Artea eta musika, gizarte zientziak, ingeniaritza, teknologia... *www.ueu.org*.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



## Maialen eta Gorka

Maialen Arrazola eta Gorka Bernal ekainaren 8an ezkonduko dira Olabartako ermitan. "Ondo pasatu eguna eta zoriontsu izan, bikote. Musu bana eta zorionak, familia eta lagunen partetik".



## Izar eta Ibai

Izar Gomez eta Ibai Gracia gaur, egubakoitza, ekainak 7, ezkonduko dira. "Ondo pasatu eguna eta zoriontsu izan, bikote. Zorionak eta musu bana, lagunen partetik".



## Amaia eta Gotzon

Amaia eta Gotzon zapatuan, ekainaren 8an, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Zuen eguna heldu da eta desiratzen gaude elkarrekin eguna disfrutatzeko. Musuak bien lagunen eta etxekoen partetik."



## Andoni eta Leire

Andoni Arrieta eta Leire Arriola zapatuan, ekainaren 8an, Deban ezkonduko dira. "Ondo pasatu eta disfrutatu zuen eguna! Zorionak, Laiaren, familiaren eta koadrilakoen partetik!".



## Iker eta Maitane

Iker Arostegi eta Maitane Landa arrasatearrak gaur, egubakoitza, ekainak 7, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Desiratzen gaude ospakizunetarako. Zoriontsu izan eta musu bana, lagunen partetik".



## Iñaki eta Amaia

Iñaki Salcedak eta Amaia Aranak ekainaren 11n zilarrezko ezteiak beteko dituzte. Ospatzeko, Mediterraneoan itsas-bidaian ibili dira eta asteburuan familiakoekin ospatuko dute. "Zorionak eta musu bat, guztion partetik!".

## HILDAKOAK

**Felipe Bollon Muñoz.** Arrasaten, maiatzaren 23an. 90 urte.

**Antonia Fernandez Sanchez.** Arrasaten, maiatzaren 31n. 97 urte.

**Carmen Sanchez Ramirez.** Bergaran, maiatzaren 31n. 93 urte.

**Adela Moyua Pinillos.** Oñatin, ekainaren 2an. 56 urte.

**Dolores Arregi Etxabe.** Aretxabaletan, ekainaren 3an.97 urte.

**Juana Regatos Prieto.** Arrasaten, ekainaren 4an. 70 urte.

**Carolina Mateos Romero.** Arrasaten, ekainaren 5ean. 91 urte.

URTEURRENA

## Bixenta Arrillaga Lasa



2012ko ekainaren 13an hil zen.

Urteurreneko meza domekan, ekainaren 9an, 10:30ean,
Elorregi auzoko San Prudentzio elizan egingo dugu.

—

*Oroitzen zaitugu zeru sabaian eskegita dagoen izarra bezela.*
Zure familiak.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**
**Elorregin, 2013ko ekainaren 7an.**

OROIGARRIA

## Jose Antonio Abril Fernandez



2012ko ekainaren 7an hil zen, 45 urte zituela.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,*
*ez zaitugu inoiz galduko*
*gure bihotz barrenean*
*eramango zaitugu betiko.*

**Aretxabaletan, 2013ko ekainaren 7an.**



## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

**Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.**

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**
**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**BERGARA Udaberriko kontzertua**
Bergarako Musika Eskolak udaberriko jai kontzertua egingo du zapatuan. Aurtengoa, gainera, 25. jaialdia izango da. 400 bat ikasle igoko dira taula gainera. Sara Manzano eta Irene Hernando izango dira aurkezleak eta ondoren afaria egingo dute.
Bihar, zapatua, Udal pilotalekuan, 19:00etan.


BME


GOIENA

**ARAMAIO Uema eguna ospatuko da Aramaion**
*Aire berria euskarari* lelopean egingo da aurtengo Uema eguna Aramaion. Goizean goiz hasiko dituzte ekitaldiak: herri kirolak, abesbatzen emanaldia, herri bazkaria, Irrien Lagunak eta Zesuna taldearen emanaldia izango dituzte.
Bihar, zapatua, Aramaion, 11:30ean.

## MUSIKA

**ARETXABALETA DJ Karma**
DJ Karmaren emanaldia, Herriko Plazan.
Gaur, egubakoitza, Herriko plazan 18:30ean.

**OÑATI Last Fair Deal-en kontzertua**
Blues-rockaren eta hegoaldeko rock amerikarraren artean mugitzen den Getxoko taldea da. Gazteak diren arren, 2005a ezkero dabiltza batera jotzen.
Gaur, egubakoitza, Pako tabernan 20:30ean.

**OÑATI El Trio Calavera**
El Trio Calavera talde oñatiarraren kontzertua gaztetxean.
Gaur, egubakoitza, Antitxena gaztetxean 22:00etan.

**ARRASATE Joseba B. Lenoir**
Joseba B. Lenoirrek emanaldia eskainiko du Iluntz tabernan.
Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan 22:00etan

**ARAMAIO Me & Mr. John**
Blues eta rock musika eskainiko dute Sastiñan.
Gaur, egubakoitza, Sastiñan 20:00etan.

**OÑATI Herriraren diskoa**
Herrirak osatutako disko akustikoaren aurkezpena.
Bihar, zapatua, Antitxena gaztetxean 19:00etan.

**ESKORIATZA Aste Zapatista**
Proto Kukaratxas, Material Rechazado, Krisis eta Hobo taldeen kontzertua.
Bihar, zapatua, Plazan 20:00etan.

**OÑATI Ez! taldearen emanaldia**
Oñatiko Arrano elkartea 30. urteurrena ospatzen dabil. Ospakizunen artean, Ez! taldeak kontzertua eskainiko du.
Bihar, zapatua, Arrano tabernan 22:00etan.

**ARETXABALETA Leizarra musika eskolakoen kontzertua**
Leizarra musika eskolakoen ikasleek kontzertua eskainiko dute martitzenean. Pianoa eta biolontxeloa. Sarrera doan.
Ekainaren 11, martitzena, Zaraia aretoan 18:00etan.

**OÑATI Mozarten 'Requiem' kontzertua**
Oñati Abesbatza, Ganbara orkestra eta Bergarako orfeoia, elkarrekin. 150 lagun inguru, guztira.
Etzi, domeka, San Migel parrokian 19:00etan.

# NON-ZER

EKAINAK 7
EKAINAK 14

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## ANTZERKIA

**ARETXABALETA 'Todas a la una' antzezlana**
Esther Bellverren antzezlana, Zaraian. Sarrera 4 euro.
Bihar, zapatua, Zaraia aretoan 22:00etan.

**BERGARA 'Ali Baba eta 40 lapurrak'**
Umeendako antzerkia Borobil Teatroren eskutik. Anartz Zuazua da zuzendaria. Sarrera 4 euro.
Etzi, domeka, Zabalotegi aretoan 18:00etan.

**ARETXABALETA 'Munduari itzulia' antzezlana**
Gorakada taldearen emanaldia. Sarrera, 3 euro.
Etzi, domeka, Zaraia aretoan 17:00etan.

## IKUSKIZUNAK

**ARETXABALETA Pirritx, Porrotx eta Marimotots**
*Sentitu, pentsatu, ekin!* ikuskizunarekin arituko dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots Aretxabaletan.
Ekainaren 12a, eguaztena, Herriko Plazan 18:00etan.

## DANTZA

**ELGETA Luhartz**
Koadrilen Egunaren egitarauaren barruan.
Bihar, zapatua, Herriko plazan 17:00etan.

## JAIAK

**OÑATI Koixkarreko jaiak**
11:00etan meza Jesusen Bihotza ermitan; ondoren, salda, txorizoa eta trikitilariak.
Etzi, domeka, Koixkarren 11:00etan.

**BERGARA Ikasturte bukaerako jaialdia**
Jardun elkartearen ikasturte bukaerako jaialdia Zabalotegin.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan 18:00etan.

**BERGARA San Antonio auzoko jaiak**
San Antonio auzoko jaiak ospatuko dituzte. 16:00etan txirrindularitza probak izango dituzte eta 20:30ean sardina-jana plaza txikian. Ondoren, DJ batek musika jarriko du.
Bihar, zapatua, San Antonio auzoan 15:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**BERGARA Gaztetxearen urteurrena. Egubakoitza**
19:00etan pregoia izango dute, ondoren salsa tailerra. 21:30ean herriko artisten erakusketa eta ondoren afaria (janaria norberaren kontu). 22:30ean bertsoak eta ondoren jokoak.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean 19:00etan.

**BERGARA Gaztetxearen urteurrena. Zapatua**
Goizean mendi ibilaldia, 09:00etan gaztetxean hasita. 16:00etan xake txapelketa. 22:30ean Endemaño eta Los Bonitos del Norte.
Bihar, zapatua, gaztetxean 9:00etan

**BERGARA Gaztetxearen urteurrena. Domeka**
12:00etan hitzaldia: *Bizi toki hezkuntza alternatiba*. Ondoren, luncha. 16:30ean bisita gidatua kartzela zaharrean.
Etzi, domeka, gaztetxean 12:00etan.

**BERGARA Gaztetxearen urteurrena. Astelehena**
16:30ean hitzaldia: *Maputxea*. 19:00etan musika emanaldia eskainiko dute Los Discolos eta Ez! taldeek. Sarrera 2 euro.
Ekainaren 10a, astelehena, gaztetxean 16:30ean..

**ARRASATE 'Flamenco etxea'**
Gorka Hermoso akordeoi-jotzaile urretxuarrak eta Jose Luis Monto gitarra-jotzaileak *Flamenco etxea* ikuskizuna ekarriko dute Amaiara. Flamenkoa eta euskal musika nahastuko dute ikuskizunean. Taula gainera dantzariak ere igoko dira eta denen artean ikuskizun bikaina eskainiko dute.
Bihar, zapatua, Amaian, 20:00etan.


GORKA HERMOSO

**ARRASATE Ardo eta Gazta Azoka**
Mondrak antolatuta Ardo eta Gazta Azoka egingo dute zapatuan Herriko Plazan.
Bihar, zapatua, Herriko plazan 10:00etan.

**BERGARA Circus Day jaialdia**
Circus Day jaialdia Ipintzako patioan kale hezitzaileekin.
Gaur, egubakoitza, Ipintzako patioan 17:00etan.

**ELGETA Nagusien bazkaria**
Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta 80 urtetik gorakoen bazkaria.
Gaur, egubakoitza, Ozkarbi elkartean 13:00etan.

## UMEAK

**ELGETA Koadrilen Eguna**
Koadrilen Egunaren egitarauaren barruan puzgarriak eta argazki maratoia 10:30ean. Bits festa 19:00etan.
Bihar, zapatua, Herriko plazan 19:00etan.

**ESKORIATZA Luis Ezeiza herri eskolaren jaialdia**
Goizean ikasleen emanaldiak ikusteko aukera egongo da. 13:30ean umeen bazkaria eta ondoren nagusiena. Arratsaldean, puzgarriak, musika, jolasak, apar festa...
Bihar, zapatua, Luis Ezeizako patioan 11:00etan.

**ESKORIATZA Aste Zapatista: Patxi magoa**
Aste Zapatistari amaiera emateko Patxi magoak emanaldia eskainiko du herriko plazan, goizean eta arratsaldean.
Bihar, zapatua, plazan 12:00etan eta 16:30ean.

## ERAKUSKETAK

**ARRASATE 'Zezen festak Arrasaten'**
*Zezen festak Arrasaten* erakusketa zabalduko dute hilaren 7an Kulturaten. Martitzenetik domekara egongo da zabalik erakusketa, 17:30etik 20:30era. Ekainaren 26ra zabalik izango ditu ateak erakusketak.
Gaur, egubakoitza, Seber eta Kulturaten 17:30etan



GOIENA

**ESKORIATZA Lucas Prest taldearen emanaldia**

Eskoriatzako musika taldeak herritarren aurrean eskainiko du emanaldia gaur, egubakoitza. Inkernu tabernan joko dute, eta 80ko eta 90eko hamarkadetako hardcorearen mezua eta doinuak eskainiko dituzte.

Gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan, 20:00etan.

**BERGARA Bergara Hiria argazki lehiaketa**

Bergara Hiria argazki lehiaketako lanak Aroztegin daude ikusgai. Ekainaren 9ra arte egongo dira ikusgai, larunbatean 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan 12:00etatik 14:00etara.

Gaur, egubakoitza, Aroztegin 18:00etan.

**ARETXABALETA Eskulan ikastaroko lanen erakusketa**

Eskulan ikastaroan ibilitakoek egindako lanak daude ikusgai Arkupe kultura etxean. Hilaren 29ra arte egongo da zabalik, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan 11:00etatik 13:00etara eta domeketan, berriz, itxita.

Gaur, egubakoitza, Arkupen 11:00etan.

**OÑATI '%100 Afrika Beltza'**

*Arantzazu, Afrikarekiko topaleku* ekimenaren barruan *%100 Afrika Beltza* erakusketa dago Kultura etxean hilaren 15era arte.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean 18:00etan.

## BESTELAKOAK

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua: Gatz museoa, berezia**

Bisitan parte hartzeko aldez aurretik izena eman beharko da. Gatzaren ekoizpenean urjauzien erabilerak duen garrantzia.

Etzi, domeka, Gatz Museoan 12:00etan.

**ARRASATE Bisita gidatua: Garagartzako San Migel elizako erretaula**

Bisitan parte hartzeko aldez aurretik izena eman beharra dago. San Migelen elezaharraren berri ematen duen XVI. mendeko erretaula bikain urreztatuta eta polikromatua.

Bihar, zapatua, Garagartza auzoan 17:00etan.

**ESKORIATZA Aste Zapatista: bazkaria**

Janari mexikarrarekin herri bazkaria. Bazkariak irauten duen bitartean, Rosa Sanchez abeslariak musika doinuak.

Bihar, zapatua, plazan 14:30ean.

**ESKORIATZA Aste Zapatista: umeendako jolasak**

Aste Zapatistaren bueltan, haurrekin mandala apainketa, Mirta Agirreren maskara mexikarren tailerra, igel txapelketa, aerobic klasea eta tonbola izango dituzte neska-mutikoek. Rosa Sanchez abeslariak giroa alaituko du bitartean.

Gaur, egubakoitza, plazan 17:00etan.

## DEIA

**BERGARA Udaleku irekien bilera informatiboa**

Udaleku irekien bilera informatiboa 18:00etan Haur Hezkuntzako haurren gurasoei zuzenduta; eta 19:00etan, berriz, Lehen Hezkuntzako haurren gurasoei zuzenduta.

Ekainaren 12a, eguaztena, Zabalotegi aretoan 18:00etan.

**OÑATI Mendi ibilaldia**

Aizkorri Aratz mendilerroko karstak ezagutzeko ibilaldia.

Etzi, domeka, Arantzazuko parketxean 9:00etan.

## HITZALDIAK

**OÑATI Polizia ereduari buruz, Cesar Manzanos**

*Fan hemendik!* egunaren harira "polizia ereduaren eta antimilitarismoaren inguruko" hitzaldia. Cesar Manzanos Salhaketako kideak egingo du.

Ekainaren 12a, eguaztena, kultura etxean 19:00etan.

## LEHIAKETAK

**ELGETA Gisatu lehiaketa**

Koadrilen Egunaren barruan. 10:30ean hasi eta 14:00ak arte. Sari banaketa 14:30ean.

Bihar, zapatua, Herriko plazan 10:30ean.

## KIROLA

**ESKORIATZA Emakumeen Bira**

Euskal Herriko Emakumeen Bira Eskoriatzatik pasatuko da.

Gaur, egubakoitza, plazan 16:00etan

**OÑATI Udanako igoera**

Entrenamendu saioa eta bi txanda izango ditu lasterketak. Errepidea 12:30ean itxiko dute.

Bihar, zapatua, Udanan 15:00etan.

# ZINEMA

## ARRASATE

### AMAIA ANTZOKIA

**El gran Gatsby**
Domekan: 19:30.
Astelehenean: 20:30.

**Lili princesa hada y el unicornio**
Domekan: 17:00.

**Barbara**
Martitzena: 20:30.

## OÑATI

### KULTURA ETXEA

**El gran Gatsby**
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30.
Zapatuan: 19:30, 22:30.
Domekan:19:30.

## EIBAR

### COLISEO

**Efectos secundarios**
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22.30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

**El lado bueno de las cosas**
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22.30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

### COLISEO ANTZOKIA

**Resacon 3**
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22.30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

## GASTEIZ

### FLORIDA

**15 años y un día**
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00.

**Fast &Fourius 6**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**La nostra vita V.O.S.**
Egubakoitzean eta zapatuan: 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 20:15.

**Resacon 3**
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:15, 20:00.
Domekatik eguenera: 17:15.

**La caza**
Egubakoitzean eta zapatua: 22:30.
Domekatik eguenera: 20:00.

**El gran Gatsby**
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:00, 19:45, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:15.

**La aventura de los cinco**
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**Un amigo para Frank**
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:50, 20:30, 22:30.
Domekatik eguenera: 20:30.

**Inch Allah**
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:00, 20:15, 22:30.
Domekatik eguenera: 18:00, 20:15.

**Los Croods**
Zapatuan eta domekan: 12:00, 16:50.

**Popular**
Egubakoitzean eta zapatua: 18:35, 20:35, 22:40.
Domekan: 18:35, 20:35.

### BOULEVARD

**15 años y un día**
Egubakoitzetik domekara: 18:10, 20:15, 22:20.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:25.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:05.

**Resacon 3**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:45.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45.

**Fast & Fourius**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 21:15, 19:30, 22:15.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 00:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45, 16:45.

**Iron Man 3**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

**La venganza del hombre muerto**
Egubakoitzetik domekara: 17:55, 20:10, 22:25.
Egubakoitzean ta zapatuan, baita: 0:40.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:40.

**El gran Gatsby**
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 21:10.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 00:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30.

**Los croods**
Egubakoitzetik domekara: 17:45.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:40.

**La mula**
Egubakoitzetik domekara: 19:45.

**Objetivo: La casa Blanca**
Egubakoitzetik domekara: 21:50.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:15.

**Hijo de Cain**
Egubakoitzean: 17:35, 19:35, 21.35, 23.35.
Domekan: 15:35, 19:35, 21:35, 23:35.

**Campanilla**
Zapatuan eta domekan: 17:35.

**Buscando a Nemo 3**
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:00.

**Scary Movie**
Egubakoitzetik domekara: 20:35.

**La gran boda**
Egubakoitzetik domekara: 22:40.

### GORBEIA

**Campanilla**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

**El mensajero**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatuan, baita: 0:45.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45.
Astelehenetik eguenera: 19:30, 21:45.

**Resacon 3**
Egubakoitzetik domekara: 18:10, 20:20, 22:40.
Zapatuan, baita: 0:45.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 18:40, 20:50.

**Fast & Fourius**
Egubakoitzean eta domekan: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatuan: 15:45, 18:20, 21:00, 23:40.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:30.

**El gran Gatsby**
Egubakoitzean: 19:15, 22:00.
Zapatuan eta domekan: 15:40, 18:30, 21:20, 0:10.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:15.

**Un amigo para Frank**
Zapatuan eta domekan: 15:40, 19:45, 21:45.
Egubakoitzean: 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:15.

**Mi gran aventura sexual**
Egubakoitzetik domekara: 22:10.
Zapatuan, baita: 0:20.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

**Jack el cazagigantes**
Zapatuan eta domekan: 17:50.

**La estrella**
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

**Objetivo: La casa Blanca**
Egubakoitzean: 17:40, 20:00, 22:20.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30, 20:00, 22:20, 0:40.
Astelehenetik eguenera: 18:50, 21:10.

**Stoker**
Egubakoitzetik domekara: 20:10.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

**Iron Man**
Egubakoitzean: 17:30, 20.00, 22:30.
Zapatuan eta domekan: 19:00, 21:30, 0:00.
Astelehenetik eguenera: 18:45, 21:20.

**Iron Man 3D**
Zapatuan eta domekan: 16:15.

**Oblivion**
Egubakoitzetik domekara: 22:20.
Astelehenetik eguenera: 21:15.

**Buscando a Nemo 3D**
Egubakoitzetik domekara: 18:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45.

**Los croods**
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:30.

# KRITIKA

**EL GRAN GATSBY ★★★★★**
**Zuzendaria:** Baz Luhrmann.
**Herrialdea:** Australia.
**Urtea:** 2013.
**Aktoreak:** Leonardo DiCaprio, Carey Mulligan, Tobey Maguire.
**Iraupena:** 143 minutu.



## Klasiko baten bertsio pertsonala

F. Scott Fitzgeralden *El gran Gastby* literaturako klasiko bat da. Halako liburuen zinemarako bertsioa egiten denean ikusmin handia sortzen da. Ea liburuaren funtsa mantentzen den, ea aldaketa handiak izaten diren... Irakurleak bere buruan irudiak sortu ditu eta liburuaren interpretazioa egin du; hala, beste baten interpretazioa ikusterakoan, askotan dezepzionaturik geratzen da. Kasu honetan, filmaren zuzendaria Baz Luhrmann dela jakiterakoan, ezustea eta kuriositatea sortzen da. *Romeo y Julieta*, *Moulin Rouge* edo *Australia*–ren egilearen estilo barrokoa, zaratatsua eta handikia ematen du ez dela aukeraketa aproposena. Liburua barnekoia eta misteriotsua da, ezkutuagoa. Luhrmannek gustuko du ikuskizun handiak sortzea, eta leuntasuna ez dago bere ezaugarrien artean.

Eta zein da filmaren emaitza? Alde batetik esan behar da zuzendariak trebetasun handiz jakin izan duela filma bere aldera eramaten. Hau da, *El gran Gatsby* ikusterakoan antzematen da Luhrmannen estiloa duela. Lehen aipatutako ezaugarri guztiak ditu, eta irudiaren aldetik eta erabilitako margo eta kamara mugimenduen aldetik, filma ikusgarria da. Begietatik ondo sartzen da eta momentu batzuetan liluragarria da. Istorioa oso ona da eta horrekin zuzendariak bere seilua duen bertsioa egin du. Lehen zatia eroagoa, bigarren zatia pausatuagoa, baita beti ikuskizun handi baten bila. Hori lortu du. Lortu ez duena da pertsonaien alde tragikoa harrapatzea, amodio istorioaren pisua azaltzea. Pertsonaiak iraganagatik markaturik daude. Istorioa moztu ostean protagonistak galdutako denbora berreskuratu nahi du. Eta zuzendariak ez du asmatu lehenago gertatutakoa azaltzerakoan. Ez zaigu heltzen bikotearen artean sortutako magia, ez dugu sentitzen egon beharko lukeen kimika.

**ANTONIO ZABALA**




goiena“ 2013-06-07

BUKATZEKO

# Gorosabeldarrak bolatokira bueltan

▶ Jesus Mari eta Jose Luis Gorosabel lehengusuak umetatik bolatokiz bolatoki ibilitakoak dira

▶ Bihar, zapatua, merezitako omenaldia jasoko dute Gipuzkoako Hiru Txirlo Boloen Federaziotik

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Hango eta hemengo bolatokietan ezagunak dira oso Jesus Mari eta Jose Luis Gorosabel lehengusuak. "Praka motzak jantzi zizkigutenetik egin izan dugu txirlotan. Hiru hilabeteko aldea daukagu eta beti ibili izan gara bolatokiz bolatoki elkarrekin. Inguruko txapelketetan, batek edo besteak, guztietan lortu dugu txapela", kontatu digute.

Hiru txirlo kategorian jokatu izan dute beti, eta txirloekin duten lotura hain da handia, gaur egun indarrean dauden hiru txirloen estatutuak ere eurek egindakoa dira, 1984an.


Jesus Mari Gorosabel eta Jose Luis Gorosabel, Untzillako bolatokian, asteon. | ARRITXU BARRUSO

### Makina bat gaupasa

Azken urteetan oso gutxi jokatu izan duten arren, garai batean orduak eta orduak emandakoak dira bolatokietan. "Makina bat gaupasa egindakoak gara boloetan jokatzen. Parranda guztiak bolatokietan hasten genituen. Goizaldera askotan egiten genuen topo baserritarrekin. Eurak kalera, merkatura produktuak saltzera, eta gu oraindik boloetan. Gure emazteekin ere haserre bat baino gehiago izan dugu gure zaletasunaren kontura", diote barre artean.

### Merezitako omenaldia

Gipuzkoako Hiru Txirlo Federazioak bihar, zapatua, Gipuzkoako txapelketaren azken tiraldia egingo du Azpeitian. Gorosabel lehengusuek ez dute parte hartu aurten, baina eguneko protagonistak izango dira: Federazioak omenaldia egingo die. Ilusio handiarekin hartu dute Federazioaren keinua: "Sekulako sorpresa izan da. Ez genuen espero. Uste dugu, gainera, oraindik gazteak garela halako omenaldi bat jasotzeko. Azkenaldian txirloak utzita ditugu, baina omenaldiaren ostean itzuli egin beharko dugu, akaso, bolatokietara. Zapatuan, behintzat, egingo ditugu jaurtiketa batzuk".

Ez dakigu gaupasarik egongo den edo ez, baina, aspaldiko partez, bihar Gorosabel lehengusuak bolatokira itzuliko dira.

AZKEN BERBA



MIKEL IRIZAR

## Normal–normal

Euskararen normalizazioa hartzen dugu helburu euskaltzaleok, nahiz ez dagoen beti argi zer litzatekeen bakoitzarentzat hizkuntza normaltasuna. Niretzat zer den ondo azaltzen duen adibide bat bizi izan dut berrikitan Aretxabaletan.

MUk Ikus-entzunezko ikasketen campus berria inauguratu zuen duela pare bat aste. Eta gonbidatu multzo polita bildu zuen ekitaldirako, tartean Cristina Uriarte sailburua eta Martin Garitano diputatu nagusia. Hitzaldien txandan, ziento bat lagunen aurrean, aurkezleak ongietorria eman zigun eta ondoren hitza hartu zuten bi agintariok, udal ordezkariak, dekanoak eta errektoreak. Denak hasi eta buka euskaraz, naturaltasunez, aipatu ere egin gabe, normal.

Euskarak zenbat egiten duen aurrera, hortxe adibide garbia: hizkuntzari erreparatu gabe, ekitaldiari dagokion ordezkaritza kualifikatua bildu eta aitzakiarik edo desenkusarik gabe normal-normal euskaraz egitea, ekitaldiaren parte formalean bezala informalean.

Ze horretarako ez da aski hizkuntzaren ezagutza, erabakitasuna behar da, jarreran dago giltza. Hain zuzen, horrelako jarrerak orokortzen diren neurrian hurbilduko da euskara normaltasunera.

